

**FACULTAD
DE CIENCIAS
JURÍDICAS**



**ZIENTZIA
JURIDIKOEN
FAKULTATEA**

**TRABAJO DE FIN DE GRADO/GRADU
AMIERAKO LANA**

**ARMEN NAZIOARTEKO SALEROSKETA ETA GIZA ESKUBIDEAK. XXI
MENDERAKO HAUSNARKETAK NAZIOARTEKO ZUZENBIDE
PRIBATUTIK.**

Adriana de Diego Liberal.

**DIRECTOR/ZUZENDARIA
Unai Belintxon Martín**

**Pamplona/Iruña
2022ko maiatzaren 12a**

ESKER-EMATEAK

AMA, AITA eta SARA. Bizitza den ibilbide luze honen euskarria izateagatik. Zuen pazientzia eta ulermenagatik. Une gorenetan eta baxuetan hor egoteagatik, beti etortzen zen frustrazioa jasateagatik eta ondoren iristen zen pozaz gozatzeagatik. Niregan beti sinesteagatik, gaur naizen emakumea garatzen laguntzeagatik. Bihotzez, mila esker eskaini didazuen bizitzarengatik.

AMONA, AITONA eta AMATXI. Zalantzarik gabe honaino eta are urrunago iritsiko nintzelakoan sinesteagatik, pozten nau harro sentitzea, espero dut bizitzaren hurrengo fasean are gehiago egotea. AITATXI, zu hemen egotea gustatuko litzaidake ere, harro egongo zinatekeela dakit, gai honi buruz hitz egitea interesgarria eta polita izanen zen. Mila esker konfiantzarengatik.

PEPI IZEBEA. Erreferente bat izateagatik, zure hausnarketengatik. Norbera bere burua lantzearen garrantzia erakusteagatik. Mila esker maistra bat izateagatik, behar dudana ni neu naizela erakusteagatik.

KUADRILA. Nire bigarren familia izateagatik. Azterketetako desagerpenak ulertzeagatik, eta betazpi gorriekin itzultzean besarkatzeagatik. Barre eta negarren artean nirekin hazteagatik, urte guzti hauetan zehar eskaini didazuen maitasunarengatik. Zuen besoetan garatzen jarraitzeko gogoak dauzkat. Mila esker zentzu guztietan hain bereziak eta bitxiak izateagatik.

KLASEKOAK. Aniztasunaren edertasuna erakusteagatik, mundu berri bat erakutsi didazue, eta izugarri gustatu zait hura ezagutzea. Nire oihuak pairatzeagatik. Bizi ditugun lau urte hauengatik. Mila esker oroitzapen guzti hauengatik, benetan espero dut gure bideak berriz elkartzea.

GORKA. Anai bat izateagatik. Elkar pasa ditugun atsedean trinkoengatik. Esateko daukadan guztia entzuteagatik eta hain denbora gutxian naizen gizakia maitatzeagatik. Badakit gure adiskidetasuna luze joko duela. Mila esker hormarik gabe zu ezagutzen uzteagatik.

AINHOA. Segurtasunaren itsasotik burua nirekin ateratzeagatik, bista eder hauek nirekin partekatzeagatik. Argi daukat ez ditugula kaioekin arazorik izanen, eta nahiz eta umeak ez izan, badirudi ez ditugula amets guztiak atzean utzi. Mila esker zure suarengatik.

DANIEL. Kexa guztiei arreta jartzeagatik, nire dramen inguruan barre egin arren, kontraprestaziorik gabeko laguntzagatik. Legelarien txantxengatik. Mila esker partekatu ditugun fideoengatik. Nahi duzun tokira iritsiko zara, eta izugarri poztuko nau gailurrean zu ikustea.

MAIDER, SAIOA ETA IÑIGO. Azken tarte honetan ondoan egoteagatik, hainbeste etsipenaren arteko eztabaidengatik, laguntzagatik, elkar-maitatze eta -ulerpenarengatik. Mila esker genero-ikuspegiarengatik. Zuetaz harro nago, eta zuek berdin egon behar zenukete.

UNAI. Ikastea errazteagatik, zure berezitasunekin, nahiz eta milaka praktika bidali, azken finean funtzionatzen duen sistema alternatibo eta korapilatsu erabiltzeagatik. Euskaraz ikasten jarraitzea posible egiteagatik. Mila esker maite duzun horretan grina erakusteagatik.

Mila esker beti egon zaudetenei, orain hemen zaudetenei, eta jadanik ez zaudeten haiei.

AGRADECIMIENTOS

AMA, AITA y SARA. Por ser mi mayor apoyo en este camino tan largo llamado vida. Por vuestra paciencia y comprensión. Por haber estado ahí en los momentos más altos y bajos, soportando la frustración que aparecía siempre, y disfrutar de la felicidad que venía después. Por haber creído siempre en mí, ayudándome a convertirme en la mujer que soy. De corazón, gracias por la vida que me habéis dado.

AMONA, AITONA y AMATXI. Por no haber dudado que llegaría hasta aquí, y de que aún llegaré más lejos, espero que en mi próxima etapa lo estéis incluso más. AITATXI, me gustaría que estuvieras aquí también, sé que estarías orgulloso, y que sería bonito debatir este tema contigo. Gracias por la confianza.

TIA PEPI. Por haber sido una referente, por tus reflexiones. Enseñarme la importancia de trabajar nuestra mente. Gracias por ser un modelo a seguir, por enseñarme que soy todo lo que necesito.

KUADRILA. Por ser una segunda familia. Entender que desaparezca en exámenes, y abrazarme cuando vuelvo con las ojeras rojas. Por haber crecido entre risas y llantos junto a mí, por todo el amor que me habéis dado a lo largo de estos años. Tengo ganas de continuar creciendo entre vuestros brazos. Gracias por ser tan especiales y preciosas, en todos los sentidos.

COMPAÑERAS Y COMPAÑEROS. Por enseñarme la belleza en la diversidad ideológica, por haberme enseñado un mundo nuevo. Por los cuatro años que hemos compartido. Gracias por todas las memorias, espero que nuestros caminos vuelvan a cruzarse.

GORKA. Por ser un hermano. Por los intensos descansos de la biblioteca. Por escuchar todo lo que tengo que decir, y haberme querido tanto en tan poco tiempo. Se que nuestra amistad va a dar para largo. Gracias por dejarme conocerte sin muros.

AINHOA. Por sacar la cabeza de este mar de seguridad, por compartir las vistas tan bonitas. Tengo claro que no vamos a tener ningún problema con las gaviotas. Gracias por tu pasión.

DANIEL. Por poner atención a todas mis quejas, riéndote de mis dramas, por la ayuda sin ninguna contraprestación. Por los chistes de juristas. Gracias por los fideos que hemos compartido. Vas a llegar a donde quieras, y me va a encantar verte en la cima.

MAIDER, SAIOA e IÑIGO. Por estar a mi lado en este último tramo, por los debates fruto de tanta desesperación, por la ayuda, por habernos apoyado y entendido en todo momento. Gracias por la perspectiva de género. Estoy muy orgullosa de vosotras, y deberíais sentirnos igual.

UNAI BELINTXON. Por facilitarnos el estudio, con tus peculiaridades, aun habiéndonos enviado mil prácticas, por haber utilizado un sistema alternativo y enrevesado que finalmente funciona. Gracias por poner pasión en aquello a lo que amas.

Gracias a los que habéis estado siempre, a los que estáis ahora, y a los que ya no estáis.

“I have heard it asserted that the inadequate sanctions already applied have not achieved their object. At no time, and under no circumstances could sanctions that were intentionally inadequate, intentionally badly applied, stop an aggressor. This is not a case of the impossibility of stopping an aggressor but of the refusal to stop an aggressor.

Faced by numerous violations by the Italian Government of all international treaties that prohibit resort to arms, and the use of barbarous methods of warfare, it is my painful duty to note that the initiative has today been taken with a view to raising sanctions. Your Assembly will doubtless have laid before it proposals for the reform of the Covenant and for rendering more effective the guarantee of collective security.

On behalf of the Ethiopian people, a member of the League of Nations, I request the Assembly to take all measures proper to ensure respect for the Covenant. I renew my protest against the violations of treaties of which the Ethiopian people has been the victim. I declare in the face of the whole world that the Emperor, the Government and the people of Ethiopia will not bow before force; that they maintain their claims that they will use all means in their power to ensure the triumph of right and the respect of the Covenant.

I ask the fifty-two nations, who have given the Ethiopian people a promise to help them in their resistance to the aggressor, what are they willing to do for Ethiopia? And the great Powers who have promised the guarantee of collective security to small States on whom weighs the threat that they may one day suffer the fate of Ethiopia, I ask what measures do you intend to take?

Representatives of the World I have come to Geneva to discharge in your midst the most painful of the duties of the head of a State.”

Haile Selassie “Appeal to the League of Nations”, Geneva, 1936, ekaina.

LABURPENA

Ondorengo ikerketa nazioarteko armen salmenta araudietan jasandako garapenaren, baita Europar Zuzenbideak sektore honetan duen eraginaren azterketa eta baloratze kritikoa du helburu. Ikuspuntu bikoitza duen analisi hau, teorikoa zein praktikoa, arau-bloke, europar Zuzenbidearen eragin eta nazioarteko zuzenbide publiko eta pribatuaren duen eraginetan oinarritzen da. Sektore honetako ekintzaileen analisiari dagokionez, segurtasun juridikoaren helburua zein neurritan lortzen ari den aztertuko da. Edo aitzitik, arau ezberdinen arteko bateragarritasun arau argien gabeziak sor dezakeen ezjakintasuna, parte hartzen duten alde guztien intereserako kaltegarri dena, analizatuko da. Drogak eta prostituzioarekin batera, armagintzak diru kantitate handienak mugitzen ditu munduan zehar. Gobernuak, urtero, bilioi bat baino gehiago xahutu egiten dute industria honek eskaintzen dituen produktuetan, urtero handitzen ari den zifra.

HITZ GAKOAK: Armak; Nazioarteko salerosketa; Armen Inguruko Merkataritzarako Ituna; Giza-eskubideak; Jokabide-kodea.

ABSTRACT

The further research aims at analyzing and assessing critically the development of international arms sales regulations and the impact of European law on this sector. This theoretical and practical analysis, with a dual perspective, is based on normative blocks, the effects of European law and the effects of international public and private law. As regards the analysis of entrepreneurs in the sector, the extent to which the objective of legal certainty is being achieved will be investigated. Or, on the contrary, it will study the ignorance that might arise from the absence of clear rules of compatibility between the various rules, which undermines the interests of all the parties involved. Alongside drugs and prostitution, the arms industry is making the largest amounts of money in the world. Every year, governments spend billions on the products that this industry offers, a figure that grows every year.

KEY WORDS: *Weapons; International Trade; International Arms Trade Treaty; Human Rights; Code of Conduct*

RESUMEN

Esta investigación tiene como objeto el análisis y valoración crítica del desarrollo de las normativas internacionales de venta de armas, así como del impacto del Derecho Europeo. Este análisis, con una doble perspectiva, tanto teórica como práctica, se basa en bloques normativos, en los efectos del Derecho europeo y del Derecho internacional público y privado. En cuanto al análisis de los actores de este sector, se analizará en qué medida se está logrando el objetivo de seguridad jurídica. Si no, se analizará la ignorancia que pudiera derivarse de la ausencia de normas claras de compatibilidad entre las distintas normas, lo cual es perjudicial para el interés de todas las partes intervinientes. Junto a las drogas y prostitución, la industria armamentística mueve las mayores cantidades de dinero en todo el mundo. Los gobiernos gastan más de un billón en productos que ofrece esta industria, una cifra que aumenta con cada año.

PALABRAS CALVE: Armas, Compraventa internacional; Tratado sobre el Comercio de Armas; Derechos humanos; Código de conducta.

AURKIBIDEA

I. SARRERA	11
II. MARKO JURIDIKOA	16
1. Nazioarteko maila.....	17
1. 1. Nazio Batuen Fundazio Gutuna.	18
1.2. Armen inguruko Merkataritzarako Ituna.....	20
1.3. Tlatelolco-ko Ituna	25
1. Maila europarra.....	27
2.1. 2008/944/ASPE Jarrera Bateratua.....	29
2.2 2018/101 Erabakia.....	38
2.3. 428/2009 Erreglamendua	39
2. Estatu maila	41
3. 1. 53/2007 Legea	41
3.2. 679/2014 Errege Dekretua.	43
3.3. 9/1968 Legea. Sekretu Ofizialei Buruzko Legea.	52
3. 4. 5/2005 Lege Organikoa. Defentsa Nazionalaren Lege Organikoa	57
III. NAZIOARTEKO ZEHAPENAK.....	59
1.Nazio Batuen Erakundeak ezarritako zehapenak.....	62
1.1. Yemen	64
1.2. Libia.	66
2. Europar Batasunak ezarritako zehapenak.....	69
IV. ESTATU ESPAINIARREKO ENPRESEN JOKABIDE-KODEAK.....	73
1. Airbus Defence and Space-ren jokabide-kodeak.....	74
1. 1. Airbus enpresaren jokabide-kodea.....	75
1.2. Airbus-ren hornitzaileei eta hirugarrenei bideratutako jokabide-kodea.....	76
3. Indra-ren jokabide kodea.....	77
4. Navantia-ren jokabide-kodea.....	78
5. Sapa Placenciaren enpresaren ardura falta.	79
6. Maxam-ren egoera berezia.	80
V. ARMEN MERKATARITZAREN ONDORIOA. GIZA-ESKUBIDEEN URRAKETA SISTEMATIKOAK.....	81
1. Babes sistemak.....	81
1.1. Nazio Batuen Erakundearen protekzioa.....	81

1.2. Protekzioa Europan.	83
a. Europako Kontseiluaren protekzioa. 1950ko Erromako Hitzarmena eta Giza Eskubideen Europako Auzitegia.....	86
b. Europar Batasunaren protekzioa. Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegia.....	88
2. Babestearen ardura. Eskuhartze falta.	88
3. Eskubideen eta ekonomiaren arteko gatazka.	91
VI. ONDORIOAK.	94
VII. BIBLIOGRAFIA.	98
1. Arautegia.....	98
2. Jurisprudentzia	100
3. Doktrina	100
4. Errekurtso digitalak.....	103

LABURPURAK

Art.	Artikulu/Article/Artículo.
BOE	Boletín Oficial del Estado.
DOUE	Diario Oficial de la Unión Europea.
ECOSOC	Economic and Social Council.
NATO	North Atlantic Treaty Organization.
OPANAL	Agency for the Prohibition of Nuclear Weapons in Latin America.
Orr.	Orrialdea(k).
Znb.	Zenbakia.

I. SARRERA.

1989. urtean Berlingo harresiaren erortzeak¹, Varsoviako ituna desagiteak² eta Sobietar Batasunaren desagertzea³ amaiera eman zioten Bigarren Mundu Gerraren ondorioz ezarritako mundu-ordenari. Honen ondorioak bereziki Europan izan ziren nabarmenak, bakea iritsi zela uste baitzuten. Ipar Atlantikoko Itunaren Erakundeak gertatu ziren aldaketak onartu zituen eta bere doktrina egoera geostrategiko berrira egokitu zuen. Gobernuak, iritzi publikoaren presioaren ondorioz, defentsa-aurrekontuak murriztu zituzten. NATOk estatuburuak eta gobernuburuak, 1989ko maiatzaren 30ean Bruselas-en bildu ziren, aliantzaren 40. urteurrena zela eta, “mundu osoko herrialdeen arteko harreman-esparru berria ezartzeko” borondate aliatua agertu zuten.

Londresko Deklarazioak, 1990eko uztailaren 5ean eta 6an ospatutako Goi-bileraren ondoren argitaratu zena, bere seigarren puntuan Varsoviako Ituneko eta NATOk kideei aitortzen bateratu bat egitea proposatzen zen, jada aurkariak ez zirela baieztatuz. Urte bat geroago, “Europako erdialdeko eta ekialdeko herrialdeen Elkartea” izeneko dokumentua, Kopenhageko Ipar Atlantikoko Kontseiluak 1991ko ekainaren 7an egindako ministro-bileraren ondoren onartuko zena, herrialde horiekiko harremanak

¹ Harresia erori egin zen 1989ko maiatzean Austria eta Hungaria arteko mugak irekieraren ondorioz. Egiantan, gero eta alemana gehiago joaten ziren Hungariara Alemaniako Errepublika Federaleko enbaxadetan babesa eskatzera. Horrek eragin handia izan zuen Alexanderplatzen, eta, horren ondorioz, 1989ko azaroaren 9an gobernuak mendebalderanzko bidea baimenduta zegoela adierazi zuen. Hurrengo egunean, harresiaren lehen arrakalak ireki ziren eta atzerako kontaketa hasi zen hoen erabilera amaitzeko. <https://www.disfrutaberlin.com/muro-berlin> (Azken bisita (2022/05/05)).

² 36 urteren ondoren, Sobietar Errepublika Sozialisten Batasuna (SESB) buru zuen Ekialdeko Blokea amaitu zen, merkatu-ekonomiak zituzten sistema demokratikoetara aldatzen zen eskualde batean. Errusiako agintariak eskualdea utzi besterik ez zuten egin, SESBek bere arorialdiaz arduratu behar baitzuten. Poloniako tropa sobietarrak erretiratzea Itunaren amaierako punturik ahulenetako bat izan zen. Ekialdeko blokea eraitsi ondoren, hura osatu zuten nazioek NATOr aurreratu ziren pixkanaka, paktua eroriz. <https://www.iri.edu.ar/index.php/2021/07/02/1-de-julio-de-1991-disolucion-definitiva-del-pacto-de-varsovia/> (Azken bisita (2022/05/05)).

³ 1991ko abuztuaren 19tik 21era Gorbachov-en aurka estatu-kolpea emateko saioak huts egin zuen, Sobietar Errepublika Sozialisten Batasunaren desintegrazio-prozesua bizkortu zuena. Gorbachov, Krimean zegoenean, bere egoitzan atxiki zuten eta, bitartean, Moskun, Larrialdi Egoerarako Batzorde autoizendatu batek boterea hartu zuen. Boris Yeltsinek herritarrei eta Indar Armatuak aurre egiteko deitu zien. Horrela, golpeak neutralizatu egin zen eta Gorbachov askatu egin zuten. Baina golpeak iraun zuen hiru egun horietan, Sobietar Batasuna osatzen zuten errepublikek banantzea eta independentziak adieraztea erabaki zuten. Beraz, Gorbachovek kontrolari berriro heldu zionean, herrialdea desagerteko ofizialerantz gidatzea besterik ez zitzaion geratu. <https://www.pauta.cl/internacional/los-30-anos-del-fin-de-la-union-sovietica-causas#:~:text=Los%2030%20a%C3%B1os%20del%20fin,diciembre%20la%20disoluci%C3%B3n%20oficial> (Azken bisita (2022/05/05)).

sendotzeko ideiak azpimarratzen zituen “segurtasun-elkarte batekiko konpromezua” adieraziz.

Ondoren, 1991ko azaroaren 8ko Erromako Gailurrean⁴ adostutako Kontzeptu Estrategikoak adierazi zuen Aliantzaren funtsezko eginkizunetako bat Europaren segurtasun-ingurune egonkorra sortzea eta mantentzea zela adierazi zen. Hau lortzeko xedez, “segurtasunari buruzko hurbilketa zabal” bat definitu zen. Honen barnean, lankidetzeta eta elkarrizketa azaltzen dira, Europa berri batean bakea babestearekin, defentsa kolektiboarekin eta krisiak kontrolatzearekin batera. Doktrinaren aldaketaren ondorioz, lankidetzeta-ekimenak eta kide berriak gehitzeak⁵ - 1989an 16 kide izatetik 2010ean 28 izatera pasatu zen - , Aliantza gaur egun duela 20 urtekoarekin konparatuz oso ezberdina da. 2010ean Lisboako goi-bileran⁶ onetsitako Kontzeptu Estrategikoak errealitate hori jaso zuen.

XX. mendearen azken hamarkadako zenbait gertakariak ahaztuta uste ziren gatazka zibilak, erlijiosoak eta etnikoak, hala nola, Golkoko gerrak eta Balkanetako gatazkak, berriz agertu ziren. Gatazka horien maiztasuna eta indarkeria zirela eta, Nazioarteko Komunitateak esku hartu behar izan zuen, bai zuzenean Nazio Batuen Erakundeak, bai erakunde horren agindupean, NATOk, Europar Batasunak, Afrikako Batasunak, nazioarteko beste erakunde batzuen artean. Hala ere, 2001eko irailaren 11ko atentatuak⁷ piztu egin zituzten alarmak. Fundamentalismo erlijioso islamiarrari lotutako

⁴ Atlantikoko Lankidetzeta Kontseilua sortu zen, eta, hala, kontzeptu estrategiko berria hartu zuten, zeinek defentsa kolektiboaren printzipioaren garrantzia berresten den, baina, Aliantza erronka berrietara bideratzen du: krisiaren kudeaketa, eremutik kanpoko misioak eta bakeari eusteko eragiketak.

[https://www.europarl.europa.eu/enlargement/briefings/31a3_es.htm#:~:text=La%20Cumbre%20de%20Roma%20de%20nuevo%20concepto%20estrat%C3%A9gico%20\(%20201\)](https://www.europarl.europa.eu/enlargement/briefings/31a3_es.htm#:~:text=La%20Cumbre%20de%20Roma%20de%20nuevo%20concepto%20estrat%C3%A9gico%20(%20201).). (Azken bisita (2022/05/05)).

⁵ Berlingo Harresia erori baino lehen NATOk Grezia eta Turkia 1952an, Alemania 1955ean eta Espainia 1982an gehitu zituen. 1999an, SESB zatitu eta Varsoviako Ituna desagitean, bloke komunista zaharreko herrialdeak sartu ziren antolakuntzan: Hungaria, Polonia eta Txekiar Errepublika. Baina Ekialdeko Europarako hedapen handia 2004an iritsiko zen: Errumania, Bulgaria, Eslovakia, Eslovenia eta Estonia, Letonia eta Lituaniako errepublika sobietar ohiak. 2009an Albania eta Kroazia sartu ziren. Azkenik, 2020an Iparraldeko Mazedonia.

<https://www.esglobal.org/infoguias/otan/historia.html#:~:text=Hasta%20la%20ca%C3%ADda%20del%20Muro,Varsovia%20de%20atacar%20Europa%20Occidental>. (Azken bisita (2022/05/05)).

⁶ NATOk Estatu kideek 1999az geroztik indarrean zegoen Kontzeptu Estrategikoa berrikustea erabaki zuten Estrasburgoko aurreko goi-bileran. 2010eko azaroan ospatu zen “NATOn gailurra”, non Aliantzako Estaturuek eta gobernuburuek zehaztu zuten nola jokatu behar zen hurrengo hamar urteetan, Aliantzaren zeregina argituz, zer funtzio eta helburu dituen, eta, horrez gain, erreformak, Afganistango nazioarteko tropen atzeratzea eta Kabulerako trantsizioa eta kudeaketa-aldaketa zehaztea.

<http://www.diputados.gob.mx/sedia/sia/dir/SPE-CI-A-08-11.pdf>. (Azken bisita (2022/05/05)).

⁷ Lau hegazkin bahitu zituzten Qaedako kideek, Estatu Batuetako boterearen eraikin enblematikoen kontra jotzeko. 2.996 heriotzarekin, izan zen eta da inoiz AEBn izan den eraso handiena.

<https://www.bbc.com/mundo/resources/idt-b7a00a0b-9386-4fae-84b7-9c3e9f39d8ff>.

(Azken bisita (2022/05/05)).

mehatxu bat sortu zen, berria ez bazen ere, herrialde askori eragiten ziena, baita musulmanei ere. 2010etik herrialde arabiar askotan izan diren protestek, - udaberri arabiarra⁸ bezala ezagutzen dena - eta iraultzek aldaketa nabarmenak ekarri dituzte Afrikako Iparraldeko eta Ekialde Ertaineko egoera politikoa. Gobernu batzuek oraindik finkatu behar dira, hala nola Libiako egoeran aurkitzen diren Estatuak, kontrolik gabeko banda armatuei eta eskualdeko norgehiagokek eragindako ezegonkortasunari aurre egin behar diote. Guzti honek, Siriako egoera eta fundamentalista musulmanek masak mugitzeko duten gaitasuna gehituz, zalantza ugari uzten dituzte etorkizuneko egonkortasunari buruz, Amerikako Estatu Batuek eta Europar Batasuneko hainbat herrialdeek defentsa-gastuak handitzeak ekarri zuen.

Armen sektorea erregulatzearen beharra ezinbesteko baldintza da Segurtasun eta Defentsarako Politika Bateratuaren - inplementatua ez dagoena - garapenerako, Europar Batasuneko Atzerri eta Segurtasun Politika delakoaren esparruaren barne. Segurtasun eta Defentsarako Politika Bateratuaren garapena ikuspegi global batetik egin behar da, NATOk Europako herrialdeen defentsan duen zeregina ahaztu gabe. Kontzientzia kolektibo honek “Defentsaren Europa” terminoa sortu du. Lisboako Itunak argi utzi zuen EBko Estatu kideek Segurtasun eta Defentsarako Politika Bateratu bat ezartzeko borondatea. Balio eta printzipio hauek mehatxu berri eta zaharren aurrean defendatu behar dira, besteak beste, terrorismoa, armen ugaritzea, porrot egin duten Estatuak eta abar. Europako defentsa-industriak funtsezkoak dira herrialde hauen garapenarentzako⁹.

Lehen munduan garrantzia daukan edozein materia bezala, marko juridiko bat sortu da honi buruzko kontrola ezartzeko, gobernuen ekintzak neurririk gabe ekiten badira, gerra ondorio gisa aurkitu ahal dezakegu eta. Nazioarteko hitzarmen multilateral antz aurkitzen ditugu, konkretuki Armen Merkataritzaren Inguruko Itunak garrantzia handia dauka. Itun hau Nazio Batuen Erakundearen Fundazio Gutunaren¹⁰ 26. artikuluan oinarritzen da, zeinek nazioarteko bakea eta segurtasuna ezartzea eta mantentzea

⁸2010 eta 2012 urteen arteko protestak, manifestariak herri arabiarren demokrazia eta gizarte-eskubideak eskatzen zituztenak.

<https://www.amnesty.org/es/latest/campaigns/2016/01/arab-spring-five-years-on/>. (Azken bisita (2022/05/05)).

⁹ YANIZ VELASCO, F (2013). *La Defensa de Europa: Las alianzas, las capacidades defensivas y la industria de Defensa*. [Doktoretza tesia, Rey Juan Carlos Unibertsitatea]. Dialnet.

¹⁰ 1945eko ekainaren 26an sinatu zen San Frantziskon, Nazio Batuen Nazioarteko Antolakuntzari buruzko Konferentziaren amaieran, eta urte bereko urriaren 24an sartu zen indarrean. Nazioarteko Justizia Auzitegiaren Estatutua Gutunaren zati bat dela kontutan hartu behar da.

<https://www.un.org/en/about-us/un-charter> (Azken bisita (2022/05/04)).

sustatzea du helburu, ahalik eta armamentu, giza baliabide eta baliabide ekonomikoak gutxien bideratuz. Funtz honekin, Itunaren 6. artikulua debekuak aurkezten ditu, hala nola, arma konbentzionalak transferitzeko hauek genozidioa, gizateriaren aurkako krimenak, 1949ko Genevako hitzarmenaren arau hauste larriak edo zibilen aurkako eraso zuzenak bideratzeko badira. Baina, errealitatea beste bat da, egunero giza eskubideak eta nazioarteko zuzenbidea sistematikoki urratzen baitira. Armen salmentarekin etekin ekonomikoa bilatzean, laguntza humanitarioa eta diplomatikoa behar duten herri eta nazio zapalduak alde batera uzten dira. Herri hauen bizitza zuzenean mehatxatuta dago, krimen masiboak jasaten baitituzte.

Nazioarteko bake eta segurtasunerako mehatxua dakarten Estatu, Estatuak ez diren entitate edo norbanakoen aurka aplikatuko dira nazioarteko zehapenak ondorio bezala. Zehapenek prebentzio izaera dute eta lortu nahi den helburuarekiko proportzionalak izan beharko dira. Hauen onarpena eta aplikazioa Nazioarteko Zuzenbidearen arabera ezarriko dira, Giza Eskubideak errespetatuz. Horrez gain, iraungitze- edo berrikuspen-klausula bat sartu beharko dute eta, hala badagokio, bertan behera uzteko aukera agertu beharko da. Neurririk ohikoenak murrizketa ekonomiko-merkatariak edo finantzarioak izaten dira, hala nola armen enbargoak, edo pertsona batzuen aurka zuzentzen diren banakako zehapenak.

Nazio Batuen Fundazio Gutunaren 39. eta 41. artikuluek Segurtasun Kontseiluari ahalmena ematen diote indar armatua erabiltzea ez dakarren neurriak hartzeko, nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzeko edo berrezartzeko xedez. Orokorrean, arma nuklearren ez ugaltzea, terrorismoaren aurkako borroka, gatazken konponbideak edo erregimen demokratikoei laguntzeko izanen dira neurri hauek. Aldi berean, Europar Batasunaren barruan, neurri murriztaileak Atzerri eta Segurtasun Politika Bateratuak erabakiak hartzeko eskuduntza dauka. Hiru motatako erregimen bereziak aurkitzen ditugu: Nazio Batuen esparruan adostutako neurrien transposizio soil bat dakartenak, transposizio neurriak deritzonak; era osagarrian, Segurtasun Kontseiluak hartutako neurriak zabaltzeko hartzen direnak, neurri gehigarriak deitzen direnak; eta Kontseiluak bere kabuz onartzen dituenak, neurri autonomoak. Estatu kideen agintariei dagokie barne-arauen bidez nazioarteko zehapenak aplikatzea eta errespetatzea. Estatu Espainiarren

Ekonomia eta Enpresa Ministerioa eta Industria, Merkataritza eta Turismo Ministerioa eskuduntza daukate¹¹.

Azken urteetan, Europar Batasunak nagusitu egin da kooperazioari dagokionez, gero eta garrantzia handiagoa lortzen nazioarteko araudien koordinazioan. Garapen honek aurrera egiten ari du askatasun, segurtasun eta justizia barnebiltzen duen gunea finkatzen, lehendanik, Maastricht, Amsterdam, Niza eta Erromako Itunek baimendu duten marko juridiko bateratuari esker. Berez, Amsterdam-en Itunarekin, askatasuna, segurtasuna eta justizia gune horren eraketa mailakatua Europar Batasunaren munta handiko xede berri bat bihurtu da. Momentura arte, arrakastatsuak izan diren aurrerapenak lortu dira esparru gehienetan, batez ere justizia eta barne gaiei dagokionez, Estatu bakoitzaren tradizioak errespetatuz. Izan ere, helburu hau gauzatzeko, printzipio berdinak eta gutxiengo-araudiak barnebiltzen dituen partekatutako markoa eratu behar da - batez ere aldean arteko konfiantza indartzeko -, baita eraginkorrak diren eremu zibil eta merkataritzazkoak bermatzea, hiritarren eta operadore juridikoek bide judizialarekin kooperatzeko eta honetan sartzeko erraztasunak izateko. Hau da, jadanik kooperazioan oinarritutako araututako materiak sakontzen jarraitu behar da, baina, araudi europarraren bidez oraindik legeratu ez diren materia horietan esfortzu gehiago ipini beharko da¹².

Zera da arazoa, oraindik legeratu ez diren materia asko daude, abiadura ezberdinetan lantzen ari dira sektore ezberdinetakoak eta. Harmonizazio konfliktuala, harmonizazio materiala baino askoz azkarrago garatzen ari da, honek zailtasun gehigarriak ekartzen baititu, konplexuagoa izaten baita adostasunak lortzea Estatu bakoitzeko barne-araudia ordezkatzeko duen arau-komun bat eratzea. Harmonizazio konfliktuala garatzeko joera, mugen ezabatzean dauka funtsa, baina, honek ez du Estatuen barne-araudien desagerpena ekarri behar, hau da, ez du bateratze zurrun bat ekarri behar, barne-araudien pluraltasuna aberastasun eta kultur-ondarea ekartzen dute eta¹³. Gakoa zera da, Kontratazio Zuzenbidearen eta Obligazioen Zuzenbidearen esparruarekin batera, legegintzako zeregina zuzenbide pribatuko esparruetan proiektatu behar den ala ez

¹¹ Estatu Espainiarreko Atzerriko Ministerioa “Cooperación y globalización. Oportunidades y Riesgos. Sanciones internacionales”.

<http://www.exteriores.gob.es/Portal/es/PoliticaExteriorCooperacion/GlobalizacionOportunidadesRiesgos/Paginas/SancionesInternacionales.aspx> (Azken bisita (2022/05/04)).

¹² BORRÁS, A. “La Comunitarización del Derecho Internacional Privado: pasado, presente y futuro”, *Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Zuzenbidearen eta harremanen ikastaroa*. 2001, Bilbo, 285-318 orr.

¹³ IRIARTE ÁNGEL, J. L.; ÁLVAREZ RUBIO, J. J; CELAYA, A. “La armonización del Derecho material en la Unión Europea”. *Zuzenbidearen Euskal Akademiaren aldizkaria*, 4. urtea, 9. znb., 2006, 14. orr.

zehaztea, eremu horiek ondare- edo ekonomia-edukirik gabeko elementuak baitituzte. Estatuaren sustraiekin lotura indartsua daukaten sektoreetaz hitz egiten ari gara, hura osatzen duten ikuspegi soziologiko eta kulturalak, hala nola, Zuzenbide Forala¹⁴.

Azken finean, subsidiariorotasun-printzipioa¹⁵ Europar Batasunaren botereak nola erabili behar diren zehazteko gida gisa erabiltzen da, eta Estatuak Erkidegoari eskumen berriak transferitzeko duten jarreraren eta Erkidegoak eskumen horiek estatu indibidualen lehenbaiten kaltetan erabiltzeko duen kezkaren arteko tentsioa adierazten du. Doktrinaren arabera, kodifikazioa Europaren integrazioa lortzeko biderik onena lirateke, prozesu honetan ezin baita bakarrik Zuzentarau eta Erregelamendu bidez aurrera egin, irtenbidea Europako merkatu bakarrean gertatzen diren harremanak arautuko dituen Kode bakarria idaztea da beraz¹⁶.

Hiru errealitate hartu behar ditugu kontuan Espainiako Nazioarteko Zuzenbidea ikertzean: (1) legeaniztasuneko Estatu bat da, hainbat ordenamendu zibil dituen, barne-legeen arteko gatazkak eragiten duena; (2) Europako Ekonomia Erkidegoan sartzeak, egungo Europar Batasunaren Estatuakiko harremanak eragiten ditu; (3) kanpo-trafikoko harremanak daude, Europar Batasunetik kanpoko Estatuarekin¹⁷. Europako zuzenbideak estatu kideen barne-jatorriko nazioarteko zuzenbide pribatuan duen eraginari dagokionez, kontuan hartu behar dugu nazioarteko zuzenbide pribatuaren harmonizazioa mugatua dela, Estatu kide bakoitzak, neurri handi batean, kanpo-trafikoa arautzeko arau-sistema ezartzen duela, baina Europako zuzenbideak eragina izaten du honetan, Europako zuzenbidearekin bat etortzeko, influentzia hutsarekin edo gomendioekin¹⁸.

II. MARKO JURIDIKOA.

Armen nazioarteko salerosketa erregulatzen eta kontrola ezartzen duten konstituzio-arau, lege, erregelamendu, jurisprudenzia eta administrazio-xedapenen

¹⁴ IRIARTE ÁNGEL, J. L.; ÁLVAREZ RUBIO, J. J.; CELAYA, A. “La armonización del Derecho material en la Unión Europea”. *op. cit.*, 26. orr.

¹⁵ CHICHARRO LÁZARO, A. *El Principio de Subsidiariedad en la Unión Europea*. Aranzadi, Zizur Txikia, Nafarroa, 2001, 33-51 orr.

¹⁶ IRIARTE ÁNGEL, J. L.; ÁLVAREZ RUBIO, J. J.; CELAYA, A. “La armonización del Derecho material en la Unión Europea”. *op. cit.*, 31 eta 37. orr.

¹⁷ IRIARTE ÁNGEL, J. L.; ÁLVAREZ RUBIO, J. J.; CELAYA, A. “La armonización del Derecho material en la Unión Europea”. *op. cit.*, 46. orr.

¹⁸ IRIARTE ÁNGEL, J. L.; ÁLVAREZ RUBIO, J. J.; CELAYA, A. “La armonización del Derecho material en la Unión Europea”. *op. cit.*, 62. orr.

multzoak maila ezberdinetan aurkitzen ditugu: internazionala, europarra, Estatukoa eta autonomia erkidegoetakoa Estatu Espainiarreko kasuan. Nazioarteko araudiek neurri orokor edo oinarrizkoak ezartzen dituzte, geroago, Estatu kidek barne-legediaren bidez garatu beharko dute haiek ezarritako kontrol jarraibideak. Kontrol hau autorizazio-administratiboen sistemaren bidez funtzionatzen du. Ezin da transferentziarik egin hauetako bat ez bada eskuratzen, kasuari egokitu beharko zaiona. Hauek lortzeko araudiek ezarritako kasuan kasuko prozedimenduak jarraitu eta ezaugarriak bete beharko dira.

1. Nazioarteko maila

Maila internazionallean, Nazio Batuen Erakundearen eskutik, Nazio Batuen Fundazio Gutuna eta Armen Merkataritzaren Inguruko Ituna¹⁹, eta Amerikako Estatuaren Tlatelocoko Ituna²⁰ aurkitzen ditugu.

Nazio Batuak Erakunde Globala da, hau da, munduko herrialde guztiei heltzeko sortu egin zen, baina, lehena Nazioen Elkartearen izan zen. Berez, lehen erakunde honekin ez zuten espero bezala aurrera egin, herrialdeen arteko tratatu berdintasuna lortzen saiatzen ari zen, eta porrot egin zen. Baina, aurretik ere, Haile Selassié, Etiopoiako enperadorea izan zena, 1936an azaldu egin zuen zergatik huts egiten ari zuen. Arazoa zera zen, nazioarteko erlazioak ez ziren erronkari behar bezala egokitu, helburu zehatz horretarako sortu izan arren:

There is no precedent for a Head of State himself speaking in this assembly. But there is also no precedent for a people being victim of such injustice and being at present threatened by abandonment to its aggressor [...] It is to defend a people struggling for its age-old independence that the head of the Ethiopian Empire has come to Geneva to fulfill this supreme duty, [...].

Hortaz, Nazioen Elkartearen Lehen Mundu Gerraren ostean sortu zen, berri bat gertatu ez zezan, Estatuaren arteko berdintasuna bermatzeko helburuarekin, baina, huts egin zuen, Bigarren Mundu Gerran Estatu boteretsuenak beste herrialde batzuk inbaditu baitzituzten, eta inork ez baitzuen haiek geldiarazten saiatu. Ondoren, Nazio Batuen

¹⁹ 2014ko abenduaren 24an indarrean sartu zen arma konbentzionalen nazioarteko merkataritza arautzen du, arma txikietatik hasi eta gudu-tankeetaraino, borroka-hegazkinetara eta gerra-ontzietaraino. <https://www.un.org/disarmament/convarms/att/> (Azken bisita (2022/05/04)).

²⁰ 1969ko apirilaren 25ean sartu zen indarrean. Latinoamerikan eta Karibean arma nuklearrak garatu, eskuratu, probatu eta kokatzea debekatzen du. Gustavo Díaz Ordaz, Mexikoko presidentea, proposatu zuen, Kubako misilen krisiak sortutako beldurrari erantzuteko. <https://www.opanal.org/tratado-de-tlatelolco/> (Azken bisita (2022/05/04)).

Erakundea sortu zen Bigarren Mundu Gerraren ostean, Estatuak herritarren eskubideak eraso ez zezaten, askatasuna eta giza eskubideak errespetatuz, gaur egun arte mantentzen dena.

1. 1. Nazio Batuen Fundazio Gutuna.

Nazio Batuen Fundazio Gutuna²¹, Nazio Batuen Erakundearen sorreraren dokumentua daukagu, nazioarteko bakea eta segurtasuna mantentzea xede bera ezartzen duena. Bestalde, nazioen arteko adiskidetasun harremanak garatzearen beharra adierazten da, betiere, eskubide berdintasunaren eta herrien autodeterminazioaren printzipioaren errespetuan oinarrituz. Gutunaren atarikoan aipatzen da erakundearen sorketaren zergatiak. Ikus dezakegunez, Nazioen Elkarteak lortu ez zuten egitateak azaltzen dira, beste Mundu Gerrarik ez gertatzeko, bakea mantentzeko:

WE THE PEOPLES OF THE UNITED NATIONS DETERMINED to save succeeding generations from the scourge of war, which twice in our lifetime has brought untold sorrow to mankind, and to reaffirm faith in fundamental human rights, [...] and to establish conditions under which justice and respect for the obligations arising from treaties and other sources of international law can be maintained, and to promote social progress and better standards of life in larger freedom,

AND FOR THESE ENDS to practice tolerance and live together in peace with one another as good neighbours, and to unite our strength to maintain international peace and security, and to ensure, by the acceptance of principles and the institution of methods, that armed force shall not be used, [...].

Jarraian, gutunaren 1. artikuluan, Elkartearen xedeak azaltzen dira eta, neurri eraginkorren bitartez, bakea mantentzeari garrantzia emateari buruzko aipamena egiten da berriz ere. Estatu Kideek, xede, betebeharrak zein printzipio hauek urratzen badituzte, seigarren artikulua harira, Erakundetik kanporatu ahal izango du Batzar Orokorrak, betiere lehendabizi Segurtasun Kontseiluaren gomendioan oinarritzen bada:

The Purposes of the United Nations are:

1. To maintain international peace and security, [...] to take effective collective measures for the prevention and removal of threats to the peace [...];
2. To develop friendly relations among nations based on respect for the principle of equal rights and self-determination of peoples [...];
3. To achieve international co-operation in solving international problems of an economic, social, cultural, or humanitarian character, and in promoting and encouraging respect for human rights and for fundamental freedoms for all [...];

²¹ «BOE» 275. znb., 1990ko azaroaren 16a, 33862 - 33885 orrialdeak.

Azken puntuan adierazitako arazo ekonomikoen inguruko konponketa bermatzeko lankidetzaren inguruan, izaera ekonomikoko arazoak kontutan hartzen dira, nazioarteko armen salerosketa barnebiltzen duena, kontutan izan gabe esportazioek eraginik izanen baduten zuzenbide humanitarioan edo giza eskubideetan. Hauek urratzen dituen Estatu batera armak esportatzen ari dira, baina lehen puntuan adierazitako nazioarteko bakean eta segurtasunean eraginik ez badu, Nazio Batuen Fundazio Gutuna ezinen da eskubide hauek babesteko aplikatu. Baina, arriskuan jartzen badira, aplikagarria izanen da, honetan ezartzen diren mekanismoak erabiliz. Hortaz, hirugarren herrialde batera esportatzean nazioarteko bakea eta segurtasuna arriskuan jartzea dakarren kasuetan, Nazio Batuen Erakundeak bere Gutunak ezarritako mekanismoak aurrera eraman ditzazke, Nazio Batuen Fundazio Gutunaren 2.1 artikuluan²² jasotako subiranotasun printzipioan oinarrituz. Kasu honetan Segurtasun Kontseiluaren²³ aurrean urraketak frogatzean, honek egokiak iruditzen zaizkion neurrian hartu ditzazke urraketak benetan ematen direla ulertzen badu.

Gutunaren 11. artikulua hiruugarren atalean adierazten den bezala, Batzar Nagusiak²⁴ Segurtasun Kontseiluarekin kontaktatu dezake nazioarteko bakea eta segurtasuna arriskuan jar dezaketen egoerei buruz, honek, egoera saihesteko edo geldiarazteko erabaki bat hartu dezan, hala nola, Estatu baten armagabetzea. Berez, Segurtasun Kontseiluak, 47. artikulua²⁵ aipatzen duen Estatu Nagusiaren Batzorde Militarraren laguntzarekin, Nazio Batuetako kideei aurkeztu beharko planak formulatzeaz arduratuko da, "armak arautzeko sistema bat ezartzeko" betebeharra dauka, bake mantentzearen helburuarekin, Gutunaren 26. artikulua adierazten duen bezala. 25. artikulua harira, 34. artikuluaekin batera ulertu behar duguna, Estatu Kide guztiek behartuta daude Segurtasun Kontseiluaren erabakiak errespetatzera. Gai hauen inguruan,

²² The Organization and its Members, in pursuit of the Purposes stated in Article 1, shall act in accordance with the following Principles: 1. The Organization is based on the principle of the sovereign equality of all its Members [...].

²³ Nazioarteko bakea eta segurtasuna bermatzen ditu, kide berriak onartzen ditu eta Nazio Batuen Erakundearen Gutunaren aldaketak onartzen ditu, hain zuzen ere ebazpen lotesleak dituen organo bakarra da. <https://www.un.org/securitycouncil/> (Azken bisita (2022/05/04)).

²⁴ Nazio Batuen Erakundearen politikak egiteko organo nagusia da. Estatu kide guztiak biltzen dituen, Nazio Batuen Gutunak jasotzen dituen nazioarteko gai guztei buruzko eztabaida eskaintzen ditu. <https://www.un.org/en/ga/> (Azken bisita (2022/05/04))

²⁵ 1. There shall be established a Military Staff Committee to advise and assist the Security Council on all questions relating to the Security Council's military requirements for the maintenance of international peace and security, the employment and command of forces placed at its disposal, the regulation of armaments, and possible disarmament.

27.3 artikulua adierazitako moduan, aldeko bederatzi boto beharko dira, kontutan hartuz, *kide iraunkor*²⁶ guztien aldeko botoa behar dela, eta hauek *beto eskubidea*²⁷ daukatela.

1.2. Armen inguruko Merkataritzarako Ituna

Armen inguruko Merkataritzarako Ituna²⁸, merkataritzaren erregulazioak hilketak ondorioztat dauzkaten armak fabrikatzea eta saltzea onesten du, baina, ez erregulatzeak, trafikatzailen eskuetara erraztasunez iristea eta honen ugariketa bermatzen du, zeinek giza eskubideen urraketa sistematikoak egingo dituztenak. Horregatik, globo osoan zehar materia hau erregulatuko duen itun bat aurrera eramateak hainbeste sufrimendu saihesteko garrantzitsua da, hala nola, giza-eskubideak errespetatuak izateko, eta kontrolik gabeko eran erabiliko dituzten esku txartoetara ez iristeko. Baina, nahiz eta Itun baten bidez kontrolatuagoak egon, bide egokia ez da bakarrik hauek erregulatuak egotea, baizik eta gizakien bizitzatik desagertzea. Itunak pauso garrantzitsua da nazioarteko mailako merkataritzarako kontrolpean, baina, naiz eta heriotza gehien eragiten dituzten armei buruz aritzen den - arma arinak - ez ditu arma nuklearrak ez kimikoak eta biologikoak barnebiltzen, behin erabiltzearekin nahikoa direnak konponezinezko hondamendi bat eragiteko. Gainera, zalantza ugariak azaltzen ditu testuak. Merkataritza legitimatzen du baldintza zehatz batzuk betetzen badira, baina ez da armagabetzen duen Itun bat, ezta suntsipen masiboa eragiten duten armei buruzkoa, besterik gabe, nahikoa ez dena²⁹.

Beraz, Itun honek giza eskubideen urraketak egiteko erabiliko dituzten pertsonen eskuetara arma hilgarriak heldu ez daitezten eratu egin zen, genozidioa eta gerra, zein gizateriaren aurkako krimenak barne. International Amnesty-k dioenez, Itunak bizitzak babesten lagundu dezake, baina, behar bezala aplikatzen bada eta estatuak hausten dutenean erantzukizuna eskatzen badute. Egia esanda, armen transferentzia gertatu ahal izateko betebeharrak zehatzak ezartzen ditu, eta Europar Batasunak bere araudiak

²⁶ Bigarren Mundu Gerra irabazitako bost Estatu dira Kontseiluaren kide iraunkorrak: Txina, Frantzia, Errusia, Amerikako Estatu Batuak eta Erresuma Batua.

https://www.un.org/en/ga/62/plenary/election_sc/bkg.shtml (Azken bisita (2022/05/04)).

²⁷ Segurtasun Kontseiluaren kide iraunkorrek daukaten eskubide berezia, Kontseiluak hartuko duen edozein erabaki aurrera ez eramateko erabili dezaketena.

<https://www.un.org/securitycouncil/content/security-council-members> (Azken bisita (2022/05/04)).

²⁸ «BOE» 26. znb., 1991ko urtarrilaren 301, 3170 - 3179 orrialdeak.

²⁹ JIMÉNEZ OLMOS, J. "El Tratado sobre el Comercio de Armas". *Razon y fe Aldizkaria*, 1381. znb., 2013, 374-376 orr.

aplikatzeko oinarri erabili ditu, eskualde-sistemen artean armen esportazioen inguruan gehien aipatu izan dena.

Atarikoak aipamen zuzena egiten du Nazio Batuen Fundazio Gutunaren 26. artikuluari, NBEren xede nagusi bezala bake eta segurtasun internazionala mantentzearen sustapena ezartzen duena, betiere ahal den giza baliabide eta baliabide ekonomiko gutxienak armagintzara desbideratuz. Honekin batera, legez aurkako merkataritza aurreikusteko eta ezabatzeko beharra aipatzen da, legala ez den merkatuetara edo erabilpen eta hauek jasotzeko autorizazioa eskuratu ez duten norbanakoetarantz ez desbideratzeko, bereziki, itunaren lehen artikuluan, non honen azaltzen den, zera adierazten da:

The object of this Treaty is to: Establish the highest possible common international standards for regulating or improving the regulation of the international trade in conventional arms; Prevent and eradicate the illicit trade in conventional arms and prevent their diversion; for the purpose of: Contributing to international and regional peace, security and stability; Reducing human suffering; Promoting cooperation, transparency and responsible action by States Parties in the international trade in conventional arms, thereby building confidence among States Parties.

Atariarekin jarraituz, honen bukaeran Estatu kideek, haien jarduerak exekutatzeko momentuan, zenbait printzipio jarraituz jokatzeko beharra azaltzen da: Gutunaren 51. artikuluan³⁰ aitortutako autodefentsa indibidual edo kolektiborako Estatu guztien berezko eskubidea; nazioarteko gatazkak bide baketsuen bidez konpontzea, nazioarteko bakea eta segurtasuna edo justizia arriskuan jartzen ez dituen moduan, Gutunaren 2.3^o artikulua³¹ arabera; Nazioarteko harremanetan, edozein Estaturen lurralde osotasunaren edo independentzia politikoaren aurkako mehatxuari edo indarra erabiltzeari uko egitea, edo NBEren helburuekin bateraezina den beste edozein modutan, Gutunaren 2.4^o artikuluan³² xedatutakoaren arabera; funtsean Estatu bakoitzaren barne-

³⁰ Nothing in the present Charter shall impair the inherent right of individual or collective self-defence if an armed attack occurs against a Member of the United Nations, until the Security Council has taken measures necessary to maintain international peace and security. Measures taken by Members in the exercise of this right of self-defence shall be immediately reported to the Security Council and shall not in any way affect the authority and responsibility of the Security Council under the present Charter to take at any time such action as it deems necessary in order to maintain or restore international peace and security.

³¹ All Members shall settle their international disputes by peaceful means in such a manner that international peace and security, and justice, are not endangered.

³² All Members shall refrain in their international relations from the threat or use of force against the territorial integrity or political independence of any state, or in any other manner inconsistent with the Purposes of the United Nations.

eskumena diren gaietan ez esku hartzea, Gutunaren 2.7º artikulua³³ arabera; nazioarteko zuzenbide humanitarioa errespetatzeko eta bermatzeko betebeharra, besteak beste, Genevako Hitzarmenen arabera.

Printzipio hauekiko erlazio zuzena aurkitzen dugu Itunaren 4. artikuluan, non kontrol nazionalaren beharra azaltzen den. Estatu kide bakoitzak tokiko araudia ezarri beharko du esportazioak kontrolatuak egon daitezen, beharrezko lizentzia lortzeko baldintzak betetzen edo ez dituen ebaluazioaren eskakizunak garatzen dituen barnelegedia bidez. Itunak limiteak eta gidak ezartzen ditu Estatuentzako ebaluazioa egiterakoan, hala nola, 6. artikuluan lizentziak eskuratzeko debekuak zerrendatzen dira, eta 7. artikuluan ebaluazioak egiteko jarraibideak. Debekuei dagokienez zera azaltzen da: Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak hartutako neurriek ezarritako betebeharrak urratzea, bereziki armen bahituei dagokienak; Estatuak parte den nazioarteko hitzarmenen arabera dagozkion nazioarteko betebeharrak urratzea, batez ere arma konbentzionalen nazioarteko transferentziari edo legez kanpoko trafikoari dagokienak; eta arma horiek genozidioa, gizateriaren aurkako krimenak, Ginebrako Hitzarmenean aipatzen diren beste urraketa larriak, objektu zibilen edo babestutako zibilen aurka zuzendutako erasoak edo Estatuak parte hartzen duten nazioarteko hitzarmenetan adierazitako beste gerra krimen batzuk egiteko erabiliko balira.

Hau da, Nazio Batuen Erakundearen organoak erabakitakoa eta beste Hitzarmenek ezarritakoa errespetatu beharko dute Estatuak. Beste nazioarteko hitzarmenekiko harremanari dagokionez, 26.1 artikulua Itun honen aplikazioa mugatzen du, beste Itun, Erreklamendu edo Akordioekin batera interpretatu beharko dena:

The implementation of this Treaty shall not prejudice obligations undertaken by States Parties with regard to existing or future international agreements, to which they are parties, where those obligations are consistent with this Treaty.

Seigarren artikulua prebentzio xedearekin aplikatzen da, hau da, ez da berrespenik edo erantzuteko mekanismorik ezartzen, baizik eta urrapenik ez egotea bilatzen da, arauaren huts bat bezala ulertu dezakeguna. Bere aldetik, Europar Batasunak, aurrerago ikusiko dugunez, 2008/944 Jarrera Bateratuaren³⁴ 2. artikuluan zortzi irizpide

³³ Nothing contained in the present Charter shall authorize the United Nations to intervene in matters which are essentially within the domestic jurisdiction of any state or shall require the Members to submit such matters to settlement under the present Charter; but this principle shall not prejudice the application of enforcement measures under Chapter VII.

³⁴ DOUE L335/99 13/12/2008

ezartzen ditu, non, esportazio-lizentzia eskaerak ebaluatzeko orduan, Estatu kideek zein jarraibide bete beharko dituzten azaltzen den. Bere aldetik, 8.1 artikulua, 7. artikuluaekin batera, Estatu kide esportatzaileak horrela eskatzen badu, esportazioa gertatu ahal izateko informazio zirkulazioaren erraztasunaren beharra adierazten du lizentziak eskuratzeko prozeduran bagaude. 15. artikulua³⁵ argi uzten du Estatu kideen arteko kooperazioaren beharra, baina, ez du ideia hau behar bezala garatzen.

Izan ere, esportazioa, seigarren artikuluaen harira debekatuta ez badago, eta barne kontrol legediarekin bat egiten badu, estatuak ebaluazioari hasiera emanen dio, betiere era objektiboan eta ez diskriminatzailean, inportatzaileak eskuratutako informazioa kontutan hartuz eta ikusketa ezberdinak bideratuz, hala nola, eragiketak bakea eta segurtasuna ahuldu edo laguntzen duen, edo nazioarteko zuzenbidearen edo eskubideen urraketa larri bat egitea edo hau gertatzea erraztuko badu. Bestalde, arrisku posibleak arintzeko neurriak hartzeko beharra aztertuko du, kontutan hartuz armen entreguak genero-indarkeriazko ekintza edo hurren aurkako indarkeria-ekintza larriak egiteko edo errazteko erabiliko diren aztertuko da.

Atea irekia uzten da Estatu kideek helmugako Estatuaren inguruko egoeraren, harremanen edo intentzioen inguruko ezjakintasuna justifikatzeko eta, horren ondorioz, Estatu kideen esku geratzen da giza-eskubideak urratuak izatea edo ez, non eta Segurtasun Kontseiluak ebazpenik egin duen. Baina, berriz ere organo honen blokeoa aurkitzen dugu. Mundu mailan gehien esportatzen duen Estatu Amerikako Estatu Batuak da, Txina hauen jarraian egonda, ondoren Errusia, Erresuma Batua, Japonia eta Frantzia, ordena honetan, eta guztiak Kontseiluaren kide iraunkorrak dira, Japonia izan ezik, lehen azaldutako beto daukatenean. Hainbeste diru kantitate handiak mugitzen duten Estatuak gardentasunez kontrola egitea eta informazioa eskaintzea, edo beste Estatuak hau behin eskuratuta, kide-iraunkorrek testu legeletan erregulatutakoa bermatuko dutela sinestea zaila bihurtu daiteke. Hala nola, orain azalduko dugun desbideraketan inguruan, merkatu honen dimentsio ekonomikoak kontutan hartuz, arma arinen kontrola eta kuantifikazioa zailagoa egiten da, legez kanpoko merkatuan bukatzeko aukera handiagoak izanen dute, beraz, Estatu kideen kooperazioa eta gardentasuna beharrezkoa da hau ez gertatzeko.

³⁵ 15. 1. *States Parties shall cooperate with each other, consistent with their respective security interests and national laws, to effectively implement this Treaty.* 2. *States Parties are encouraged to facilitate international cooperation, including exchanging information on matters of mutual interest regarding the implementation and application of this Treaty pursuant to their respective security interests and national laws.* 3. *States Parties are encouraged to consult on matters of mutual interest and to share information, as appropriate, to support the implementation of this Treaty. [...]*

Sekretismoak merkatu honen ezaugarri nagusia da. Nazioarteko segurtasunak beti konfidentziasuna behar izan duen materia baita, horregatik, Estatuak askotan informazioa gordetzen dute, hauen aktibitate edo salmenten inguruko isiltasuna mantenduz. Baina, gaur egun, oraindik utopikotzat jo dezakegu noizbait eskubideak interes ekonomikoen gainean nagusitzea, horregatik, Estatu kideek lan egin behar dute araudia errespetatua izan dadin eta Itun honek intentzio deklarazio gisan ez geratzeko³⁶.

Behin ebaluazioa bukatuta, arriskurik ikusten badu, Estatu kideak ez du lizentziarik eskuratuko, prozedimendua geldituz. Arriskuen ebaluazioekin batera, 11. artikulua jarraituz, esportazioa bideratuko duen Estatu kideak arma-transferentzien desbideratzea eragozten saiatuko da, 5.2º artikuluan adierazten den barne kontrol-sistemaren bidez, armak desbideratzeko arriskua ebaluatuz. Artikuluaren bigarren paragrafoan hau ez gertatzeko probabilitateak murrizteko neurriak ezartzeko aukera ematen da, hala nola, konfiantza sustatzeko neurriak edo Estatu esportatzaileek eta inportatzaileek elkarrekin garatu eta adostutako programak, betiere, hurrengo paragrafoan adierazten den bezala, Estatuak informazioa elkar igorri beharko dute prozedimenduak arintzeko. Hala nola, nahiz eta prozedura jarraibideak jarraituz eta beharrezkotzat jotzen diren neurriak hartuta ere, transferentziaren desbideratzea antzematea gerta daiteke. Egoera honen aurrean, Estatu esportatzaileak neurri egokiak hartuko ditu, barne-legediaren arabera eta nazioarteko zuzenbidearen arabera, desbideratze horri aurre egiteko. Esaterako, artikuluaren laugarren paragrafoan, armen bidalketak aztertzea, egoeraren ikerketa eta legea betearazteko jarraipen neurriak hartzea proposatzen da. Desbideraketak garrantzia asko duen gaia da, zera gertatzeko arriskua altua baita. Testuaren zehaztugabetasunak, Estatu kideei aukera ematen die Ituna berretsi ez duten beste Estatuak armak saltzeko zeinek, ondoren, seigarren artikuluan ezartzen diren debekuak azaldutako baldintzak errespetatzen ez dituzten hirugarren baten eskuetan iritsi daitezken.

Dudarik gabe, bostgarren artikuluan, testuaren aplikazio orokorrari dagokiona, arazo bat ikus dezakegu argitasunari dagokionez. Ez dago ia azalpenik aplikatuko diren neurrien inguruan, behin eta berriz erreferentzia egiten da Estatu kideen barne-legedia garatzearen beharrari, inongo amonizazioarekin zehaztuz. Ziurgabetasun honek ezin da ulertu Estatu kide bakoitzak bere egoera jakinera egokituko duen araugintzako erantzuna

³⁶ JIMÉNEZ OLMOS, J. "El Tratado sobre el Comercio de Armas". *op. cit.*, 375. orr.

ezartzeko aukera bezala. Sistema eraginkorra izateko, nazioarteko hitzarmen bilateral eta multilateralak arautu beharko dira, ahalik eta egoera ezberdin gehien aurrean mekanismo eta neurri zehatzen bidez erantzun ahal izateko. Barne-legedia garatzearen beharra sistemak aurkezten duen beste arazo bat bezala ulertu dezakegu. Ikusi dugunez, testuak, Estatu kideek barne kontrol-sistema garatu behar dutela adierazten du, gardena eta eraginkorra izan behar dena funtzionamendu egokirako. Beste hitzetan, Estatu kideek haien buruak kontrolatu beharko dituzte, hauen administrazio-organoen erantzukizunarekin lizentziak eskuratzeko momentuan. Estatu kideek kontrol-informazioa aurkezteko betebeharra daukate, hau da, Estatuen diskreziora uzten da salerosketen kontrol zerrendatzeak lantzea³⁷.

Bukatzeko, mekanismoei dagokionez, Estatu kideek testuaren araudiak betzeko erabiliko dituzten mekanismoen ezarpenaren inguruan, 14. artikulua eskatzen du egokiak diren neurriak ezartzea xedapenen exekuzio egokirako eta testuan jasotako xedapenen exekuziorako lege eta erregelamendu nazionalak betearazteko. Modu honetan, lizentziarik gabeko esportazioak aurreikusiko dira eta zuzenbidearen urraketak ikertu eta epaitu ahalko dira. Izan ere, neurriak Estatuen arteko kooperazioaren bidez era egokiago batean bermatuko dira.

Bestalde, interpretazioaren edo aplikazioaren inguruko gatazkak sortzekotan, 19. artikulua aurkezten duen mekanismoa erabiliko da. Artikuluak alde biko negoziaketak proposatzen ditu, hala nola, bitartekotza, adiskidetzea edo auzitegien aurrean konpontzea. Baita, alderdien arteko akordioaren bidez, arbitrajepean utz dezakete kasua, alegia, nazioarteko bake eta segurantza arriskuan dauden kasutan ez dirudi aukerarik egokiena. Itunak Nazio Batuen Segurtasun Kontseilura jotzea proposatzen du alde biko negoziaketek porrot egiten badute, baina, Nazio Batuen Gutunarekin ikusi dugunez, honen erantzun edo erabaki bat egotearen zailtasunak mekanismoak blokeatu ditzakete.

1.3. Tlatelolco-ko Ituna

Tlatelolco-ko Ituna³⁸, Amerikako Estatuak eskualdeko bake eta justizia lortzeko, elkartasuna sustatzeko eta haien subiranotasuna, lurralde osotasuna eta independentzia defendatzeko, Amerikako Estatuaren Erakundea sortu zuten, zeinek, 1948. urtean ospatutako bere bederatzigarren Konferentzian, Bogotan, Amerikako Estatuaren

³⁷ JIMÉNEZ OLMOS, J. "El Tratado sobre el Comercio de Armas", *op. cit.*, 378. orr.

³⁸ Inf.11/2018 5, 2018ko ekainaren 5a.

Erakundearen Gutuna onartu zuten, gizabanakoen eskubideak sustatzeko, non lehen artikulua zera adierazten duen.

The American States establish by this Charter the international organization that they have developed to achieve an order of peace and justice, to promote their solidarity, to strengthen their collaboration, and to defend their sovereignty, their territorial integrity, and their independence.

Itun honi esker arma nuklearrik gabeko lehen lurralde-eremua sortu zen. Gaur egun bere pausoak jarraitzen dituzten beste nazioarteko testuak aurkitzen ditugu: Hego Pazifikoa (Rarotonga Ituna, 1985. urtekoa); Asiako hego-ekialdea (Bangkoko Ituna, 1995. urtekoa); Afrika (Pelindabako Ituna, 1996. urtekoa); Erdialdeko Asia (Erdialdeko Asiako Ituna, 2006. urtekoa); eta Mongoliako lurraldea, 2000. urtean Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiaren 55/335 Ebazpenaren³⁹ bidez arma nuklearrik gabeko aitortpena lortu zuena. Testu hauek ezinbestekoak dira armagabetzearen eta bakearen garapenarentzat⁴⁰.

Itunaren lehen artikuluan arma nuklearren inguruko Estatuaren eginbehar orokorrak azaltzen dira. Honen harira, beren jurisdikziopeko material eta instalazio nuklearrak helburu baketsuetarako soilik erabiltzeko, eta dagozkien lurraldeetan debekatzeko konpromezua hartzen dute. Desbideraketei buruzko argibideak ematen dira, erabilera ez-baketsurik ez gertatzeko kontrola ezarri dezaten: arma nuklearren proba, erabilera, fabrikazioa, ekoizpena edo eskuratzea, edozein bideren bidez zuzenean edo zeharka erabilpen baketsua helburu ez badute, eta hauen harrera, biltegiatzea, instalazioa, kokapena edo edozein eratako edukitzea, zuzenean edo zeharka helburu ez-baketsuetarako baldin bada.

Hortaz, Armen inguruko Merkataritzarako Itunaren 11. artikulua adierazten denarekin bat egiten du desbideraketen inguruan. Bakarrik bakea xede izatean baimentzen du hauen erabilera. Azken hau ulertzeko Itunaren 18. artikulura jo behar dugu, non helburu baketsuetarako leherketei buruz hitz egiten den. Estatu kideek leherketak helburu baketsuetarako edo helburu berberetarako hirugarrenekin lankidetzan aritu daitezke, baldin Ituneko gainerako xedapenetan, bereziki 1. artikuluan aipatzen dena, urratzen ez badira. Hau gertatu ahal izateko, prozedura bat ezartzen da, Organismoari eta Energia

³⁹ A/RES/54/60, 1999ko abenduaren 31a.

⁴⁰ OPANAL “Arma nuklearrik gabeko lurraldeetako eta Mongoliako laugarren Konferentzia”. (2020). <https://www.opanal.org/cuarta-conferencia-de-zonas-libres-de-armas-nucleares-y-mongolia-2020/> (Azken bisita (2022/05/04)).

Atomikoaren Nazioarteko Organismoari jakinarazpena egin beharko diote, aldez aurretiko denborarekin, leherketaren data, erabili beharreko armaren eta egin beharreko kontrola, baita gizartean, floran eta faunan gerta daitezken ondorioen inguruko informazioarekin.

Itunak, bere 21. artikuluan, azaldutako betebeharrak errespetatzen ez duten kasutan, neurriak ezartzen dira. Biltzar Orokorrak, bere ustean egokitzat jotzen dituen gomendioak emanen ditu. Baina, Itunaren urraketak bakea eta segurtasuna arriskuan jartzea suposatzen duela ulertzen badu, kasuaren berri emango die Segurtasun Kontseiluari eta Nazio Batuen Batzar Nagusiari, Erakunde bakoitzaren Idazkari Nagusiaren bitartez, baita Amerikako Estatuaren Erakundearen Kontseiluari, modu zuzenean. Era berean, Energia Atomikoaren Nazioarteko Agentziari jakinaraziko dio, honen Estatutuaren arabera egokiak diren egoeratan. Ikus daitekeenez, Nazio Batuen Erakundearen Fundazio Gutunaren mekanismoa bezala da, arma nuklearren inguruko organoen zehaztasunak gehituz. Hau da, kontrola Nazio Batuen Erakundearen menpe dago, honen berezko kontrol mekanismoaren modeloa jarraitzen da eta.

2. Maila europarra

Eskualde mailan Europar Batasuna aurkitzen dugu, integraziozko Nazioarteko Erakundea dena. Integraziozkoa dela esaten dugunean, eskumenetaz gozatzen duela esan nahi dugu, baina, eskumen hauek ez dira bereak, hauen titularrak Estatu kideen hiritarrak dira eta, hortaz, eskumen eskuordetza bat egiten da, non Estatu kideek edozein momentutan berreskuratu ditzazkete, baina, hau gertatzeko, Europar Batasuna utzi beharko dute. Beraz, eskumenen transferentzia honen ondorioz, Europar Batasunak eskumen subirano propioak ditu. Hauen artean eskumen normatiboa aurkitzen dugu, Europar Batasunaren Funtzionamendurako Itunaren⁴¹ 3. artikulua⁴² helburuak betetzeko xedez lortzen direnak. Orokorrean, arau-ahalmen horiek gai bati buruz gauzatzen direnean, gaiaren erabateko arauketa ez da egintza bakarrean hartzen. Horrela,

⁴¹ DOUE C 83/116, 30/3/2010.

⁴² 1. La Unión dispondrá de competencia exclusiva en los ámbitos siguientes: a) la unión aduanera; b) el establecimiento de las normas sobre competencia necesarias para el funcionamiento del mercado interior; c) la política monetaria de los Estados miembros cuya moneda es el euro; d) la conservación de los recursos biológicos marinos dentro de la política pesquera común; e) la política comercial común. 2. La Unión dispondrá también de competencia exclusiva para la celebración de un acuerdo internacional cuando dicha celebración esté prevista en un acto legislativo de la Unión, cuando sea necesaria para permitirle ejercer su competencia interna o en la medida en que pueda afectar a normas comunes o alterar el alcance de las mismas.

oinarrizko arauak edo zuzentarauak aurki ditzazkegu, non funtsezko alderdiak arautzen diren, eta, ondoren, erregelamenduak, jarraibideak edo garapen edo exekuzio erabakiak, zeinek gai horren alderdi zehatz edo partikularrak arautzen dituzten.

Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 288. artikulua Europar Batasuneko erakundeek zein egintza juridiko mota har ditzazketen azaltzen du: Erregelamenduak, orokorrean aplikagarria izaten dira, bere osotasunean lotesleak eta zuzenean aplikagarriak Europar Batasuneko Estatu Kide guztietan; Zuzentarauak, lotesleak direnak zuzenduta dauden Estatu Kideentzat, kasuan kasuko xedea dela eta, baina, emaitza lortzeko forma eta metodologia aukera dezake Estatu kide honek; Erabakiak, lotesleak direnak, baina Estatu jakin bati zuzenduta dagoela zehazten duen erabakia haienztat bakarrik izanen da; azkenik. gomendioek eta iritziek ez daukate inolako indar loteslerik.

1998. urtetik, Europar Batasunak armen salerosketaren kontrol-erregimen aurreratua izan du. Gainera, Nazio Batuetatik datozten ekimen edo erabaki guztiak babesten dituzte Europar Batasuneko Estatu kideek, Armen Inguruko Merkataritzarako Itunarekin gertatuko zen bezala. Baina, baikorregia litzatekeela pentsatzea horrelako nazioarteko tresna juridikoan ezar litekeen erregimena Europar Batasunak ezar dezakeenaren antzeko irismena izanen duenik, horregatik, behin Itun hau indarrean egotekotan, etorkizuneko garapen eta berrikuspenak beharrezkoak izatea hobekuntzak ezartzeko⁴³.

Europar Batasuneko armen merkataritzak barne-erkidegoko dimentsioa eta kanpo-erkidegoko dimentsioa aurkezten du. Barne-erkidegoko merkataritzak, printzipioz, edozein ondasun eta zerbitzuak barnebiltzen ditu, baina, Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Itunaren 346. artikulua⁴⁴, nazioarteko armen merkataritzaren inguruko esportazioetan ituna ez aplikatzea baimentzen du, hau da, publizitate eta konkurrentzia printzipioak alde batera uzteko aukera ematen da. Kanpo-erkidegoko dimentsioari dagokionez, orokorrean, Estatu kideen barne legediaren esku

⁴³ MARRERO ROCHA, I. "El régimen de comercio de armas convencionales en la Unión Europea", *Revista de Derecho Comunitario Europeo*, 40. znb., Madril, 2011 iraila/abendua, 669-700 orr..

⁴⁴ 1. Las disposiciones de los Tratados no obstarán a las normas siguientes: a) ningún Estado miembro estará obligado a facilitar información cuya divulgación considere contraria a los intereses esenciales de su seguridad; b) todo Estado miembro podrá adoptar las medidas que estime necesarias para la protección de los intereses esenciales de su seguridad y que se refieran a la producción o al comercio de armas, municiones y material de guerra; estas medidas no deberán alterar las condiciones de competencia en el mercado interior respecto de los productos que no estén destinados a fines específicamente militares.

geratzen da, zera esan nahi du, armen esportazioen erregulazio neurriak kooperazio intergumentalean egiten dira⁴⁵.

2.1. 2008/944/ASPE Jarrera Bateratua

Atzerri eta Segurtasun Politika Erkideak 2008/944 Jarrera Bateratua erabaki egin zuen, teknologia eta ekipamendu militarren esportazioen kontrola arautzen duten arau komunak zehaztuz, ondoren, 2019 urtean, 2019/1560 erabakia⁴⁶ hartu egin zen, jatorrizko testua modifikatuz. Aldaketa honekin, besteak beste, Armen inguruko Merkataritzarako Ituna errespetatu beharrari aipatzen da.

Baina, Europar Batasunaren arma kontrolaren aurrekaria Armen esportazioen inguruko Jarrera Kodea⁴⁷ da, loteslea ez dena. Honetan, jadanik aipatutako barne-errepresioaren prebentzioa azaltzen zen. Europar Batasunaren Armen inguruko esportazioak kontrolatzeko sistemaren oinarria daukagu.

Armen Inguruko Merkataritza Itunaren eta Jarrera Bateratuarekiko lotura bistakoa da. Itunean, lehen aldiz nazioarteko mailan erregulatzen zen materia hau, eta, Nazio Batuen Erakundeak adierazi zuen bezala, hurari buruzko erregulazio falta heriotzetan, giza-eskubideen eta nazioarteko giza zuzenbidearen urraketetan, herritarrek haien lurraldetatik atera beharra, hauen segurtasun ezan eta guzti hau jasaten dituzten zailtasun ekonomikoetan ondorioztatzen da, azken finean, gatazka armatuengatik kaltetuak izaten dira. Bestalde, kontrolik gabeko trafikoak horrekin batera topatzean, eskubideak modu sistematikoa batean urratzen dira, armak gizartearen aurka zuzenean erabiltzen baitira. Testu juridikoetan giza-irizpidea txertatzearen beharra dago egun. Baina, Itunarekin ikusi dugunez eta berriz ere Jarrera Bateratuan aztertuko dugunez, testu hauen xedea prebentziozkoa da, ez zigorrekkoa edo punitiboa⁴⁸.

Jarrera Komunaren eratzearen beharraren aurrekaria Iran eta Irak Estaturen arteko guda azaltzen da, non Europar Batasuneko Estatu kideek bi alderdiei armak saldu

⁴⁵ JANER TORRENS, J. D. “Política europea de control de las exportaciones de armas convencionales y seguridad humana: mecanismos para fomentar el respeto de los derechos humanos”, *op. cit.*, 53. orr.

⁴⁶ DOUE L.239/16 17/09/2019.

⁴⁷ Asunto Orokorren Kontseiluak 1998ko maitzaren 25ean onartutakoa. Armen ez-ugaritzearen eta esportazioaren inguruko Euopar Kontseiluaren 1991ko ekainaren 28 eta 29ko Erabakia aurrekarizat hartzen du, helmugako estatuaren herritarren giza-eskubdieak errespetatzea ezartzen zena. Gaiaren inguruko armonizazioa bilatzen zuen.

⁴⁸ JANER TORRENS, J. D. “Política europea de control de las exportaciones de armas convencionales y seguridad humana: mecanismos para fomentar el respeto de los derechos humanos”. *Revista española de derecho internacional aldizkarian*, 68, 1.º znb., 2016, 50-51 orr.

zizkioten. Egoerari aurre egiteko, kontrolpe moduko bat ezartzeko helburuz, 1991. urtean Luxenburgoko Europar Kontseiluan zazpi irizpide ezarri egin ziren, eta hurrengo urtean zortzigarren irizpide bat onartu zuten Lisboako Europar Kontseiluan. Azken finean, 1998. urtean, Jarrera Kodea adoptatu egin zuten, zortzi irizpide hauek garatzen zituenak. Nahiz eta Jarrera Komuna Jarrera Kodearen oinordekoa izan, biek ia eduki bera azaltzen dute. Aldaketa nabarigarrienak bigarren irizpidearen b) atala lirateke, nazioarteko zuzenbide humanitarioaren bortxaketa larriak gertatzeko arrisku nabarmena baloratzeari dagokiona, eta zazpigarren irizpidearen d) eta f) atalak, berresportazioak eta legez aurkako transferentzien ingurukoak. Horrekin batera, garrantzia gutxiago daukaten beste aldaketak eman ziren, hala nola, 6. artikuluan erregulatutako erabilera finalaren kontrola, 8.3 artikulua ezarritako urteroko txostena aurkeztearen beharra, eta 12. artikulua ezarritako Europar Batasunaren Zerrenda Komunaren kontrolak aplikatzearen beharra, hau kontutan izan behar baita zortzi irizpideekin batera⁴⁹.

Testuaren atarian adierazten den bezala, honen bidez, teknologia eta ekipamendu militarren esportazioekiko daukaten ardura berezia aitortzen dute Estatu kideek. Teknologia eta ekipamendu militarren transferentzia kudeatzeko eta horiek mugatzeko gutxienekotzat hartuko diren estandar komun orokorrak ezartzeko, eta, gardentasunez, informazio garrantzitsuaren trukea eta eskaintzea indartzeko.

Armen Merkataritzaren Inguruko Itunaren 5.2º artikulua adierazten duena gogoan izanda, Jarrera Bateratuaren lehen artikuluan barne legedia garatzearen beharrari buruz adierazten dela ikusiko dugu:

1. Cada Estado miembro evaluará una por una, con arreglo a los criterios expuestos en el artículo 2, las solicitudes de licencia de exportación, incluidas las relativas a transferencias de gobierno a gobierno, recibidas con respecto a artículos que figuran en la Lista Común Militar de la UE mencionada en el artículo 12.

Hirugarren artikulua, honekin bat eginez, barne-legediak nazioarteko zuzenbideak edo zuzenbide europarrak ezarritakoa baino testu gogorrakoak garatu dezaten bultzatzen du:

La presente Posición Común no afectará al derecho de los Estados miembros a aplicar normas nacionales más estrictas.

⁴⁹ MELERO ALONSO, E. “La Posición Común 2008/944/PESC sobre control de las exportaciones tecnológicas y equipos militares: análisis crítico”. *Revista española de derecho europeo aldizkarian*, 34. znb., 2010, 239-242 orr.

Segidan, 2. artikuluan, Europar Batasuneko kideek jarraitu behar dituzten irizpideak arautzen dira. Zortzi puntu aurkitzen ditugu, non esportazio-lizentzia eskaerak ebaluatzeko orduan zein jarraibide bete behar dituzten azaltzen den. Artikuluak azaldutako irizpideek arazo bat dakarte, ez daukate inperatibotasun-maila bera, aplikazioaren eraginkortasuna hunkitzen duena, neurrigabeak ez diren baremoak azaltzen baitira. Berez, ezjakintasun eta amonizazio falta honek, emaitzaren aurreikusgarritasuna eta segurtasun juridikoan eragin negatiboa eraten du. Giza-eskubideen urraketari era esplizituan egiten zaie erreferentzia Jarrera Komunean, horrela, kontutan hartu beharko da hau gertatzeak edo gertatzeko probabilitatea lizentzia-administratiboak eskuratzeko momentuan, orain ikusiko dugun moduan⁵⁰.

Lehenengo irizpideak argi erakusten du inperatibotasun maila, baina, hurrengo irizpideek progresiboki inperatibotasuna alde batera uzten dute, lizentzien eskuratzeko barne-legedien eta interpretazioen ardurapean geratuz, hau da, Estatuaren barne-interes edo interes ekonomikoen eskuetan uzten dira erabakiak⁵¹.

Alegia, esportatzaileen interesen, merkataritzako interesen, harreman diplomatikoen eta aliantza estrategikoen ondoan edo horiekin batera hazta daitezke giza eskubideak edo horien urratzeak –betiere urratzeok ezin badira barne-errepresiotzat jo– edo tratatuko beste Estatu batzuek segurtasunaren eta defentsaren arloan dituzten interesak, beste gauza batzuen artean.

Testuak jasotzen duen lehen irizpidea Estatu kideen nazioarteko konpromezuak eta betebeharrak errespetatzeari dagokio, bereziki Nazio Batuen Segurtasun Kontseiluak zein Europar Batasunak hartutako berrespenak, ez-ugaritzeko akordioak, eta beste batzuk, nazioarteko betebeharrak eta konpromezuekin batera. Esportazio-lizentzia eskuratzeari ukapenarekin jarraitzen du. Onespena bateragarria ez bada aipatutako nazioarteko konpromezuekin, hau ezinen da baietsi. Adierazi dugunez, testuaren 2019ko aldaketan, erreferentzia zuzena egiten da artikulua b. *ter* atalean Armen Inguruko Merkataritzarako Itunari:

⁵⁰ JANER TORRENS, J. D. “Política europea de control de las exportaciones de armas convencionales y seguridad humana: mecanismos para fomentar el respeto de los derechos humanos”, *op. cit.*, 54 orr.

⁵¹ ÁLVAREZ RUBIO, J. J.; IRIARTE ÁNGEL, J. L.; SANTAOLLA MONTOYA, C; BELINTXON MARTÍN, U. “Armen merkataritza eta esportazioa Euskadin. EAEko erakundearen eginkizuna gardentasuna hobetzeko, esportazioak kontrolatzeko eta aplikatu behar den esparru juridikoa betetzeko”. *Giza eskubide, Bizikidetzak eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren txostena*. Gobernantza Demokratikoaren Institutua, 2019, azaroa, 27.orr.

Se denegará la licencia de exportación si su concesión no es compatible, entre otras cosas, con: [...] las obligaciones internacionales de los Estados miembros en virtud del Tratado sobre el Comercio de Armas; [...]

Irizpide hau inperatibotasun maila handia aurkezten du Estatu kideentzako honetan azaltzen diren nazioarteko konpromezuak ez badira betetzen, lizentzia debekatzera behartuta daude.

Bigarren irizpideak, helmugako herrialdeen giza eskubideen errespetuaren beharra ezartzen du. Estatu kideek erregela zehatz batzuk jarraitu behar dituzte bigarren irizpidearen eskubideak errespetatzen direla ziurtatzeko, giza eskubideen nazioarteko tresna-legalen aurreko Estatu inportatzailearen jarreraren inguruko ebaluazioa egin ondoren, zenbait erabaki hartu beharko dituzte balioztatzearen emaitzaren arabera. Printzipioak errespetatzen ez badira, hau da, arrisku nabaria ikusten bada, Estatu kide esportatzaileek nahitaez ukatuko dute esportazio-lizentzia. Beraz, barne segurtasun helburuetarako tortura, tratu zein zigor anker eta umiliagarriak, exekuzio laburrak zein arbitrarioak, desagertzeak, atxiloketa arbitrarioak edo giza urraketa larriak egiteko arriskua badago ukatu egingo da. Nazioarteko testuetan jasotzen diren eskubide eta oinarritzko askatasunei egiten dute erreferentzia ere. Erabaki hauek hartzeko arreta eta zaintza hori kasuan-kasu eta teknologia edo ekipamendu militarren izaeraren arabera izan beharko da. Azken finean, esportatu beharreko materiala nazioarteko zuzenbide humanitarioaren urraketa larriak egiteko erabiltzeko arrisku nabaria ikusten denean, lizentzia ukatzea eskatzen die Estatu kide esportatzaileei⁵².

Estatu esportatzaileak horrela nahi badu, eskubideen urraketak ez badira helmuga Estatuaren barne ematen, baina bai hirugarren batean, lizentzia eskuratu dezake. Baina, honek ez du esan nahi Atzerriko Politika eta Segurtasun Erkidea honi buruz aipatu ahal izatea, edota Europar Kontseiluak egoeraren inguruko iritzia eman behar izatea⁵³.

Hirugarren irizpideari dagokionez, helmugako herrialdearen barne-egoerari buruz aritzen da, tentsio giroaren edo gatazka armatuen existentziaren inguruan hain zuzen ere. Ebaluazioa egitean, zera aurreikusten badute, Estatu kide esportatzaileek, helmugako herrialdean existitzen diren gatazka armatu hauek eragiten edo luzatzen dituzten edo

⁵² ÁLVAREZ RUBIO, J. J.; IRIARTE ÁNGEL, J. L.; SANTAOLLA MONTOYA, C; BELINTXON MARTÍN, U. “Armen merkataritza eta esportazioa Euskadin. EAEko erakundeen eginkizuna gardentasuna hobetzeko, esportazioak kontrolatzeko eta aplikatu behar den esparru juridikoa betetzeko”. *op. cit.*, 28. orr.

⁵³ JANER TORRENS, J. D. “Política europea de control de las exportaciones de armas convencionales y seguridad humana: mecanismos para fomentar el respeto de los derechos humanos”, *op. cit.*, 56. orr.

dauden tentsioak zein gatazkak areagotzen dituzten teknologia edo ekipamendu militarrek esportatzeko lizentziak ukatzearen beharra adierazten da.

Irizpide honen eta lehenengoaren arteko erlazioa ikus dezakegu, hortaz, honen ondorio zuzena inperatibotasun maila berdina eskaintzen duela da. Hau da, Estatu kideek lizentzia eskuratzea debekatuta daukate helmugako Estatuak honetan azaltzen diren inguru-giroan aurkitzen badira.

Laugarren irizpidea Nazio Batuen Erakundearen xede nagusiarekin bat egiten du, bakea, segurtasuna eta eskualde-egonkortasuna mantentzea eskatuz, bigarren irizpidearekin lotuta dagoela ikus dezakegu, baina berezitasunak aurkitzen ditugu, zeinek inperatibotasuna eta leuntzeak nahasten hasten dituztenak. Beste herrialde bat erasotzeko edo lurralde baten jabetza indarrez aldarrikatzeko arriskurik badagoen ebaluatzeko, Estatu kide esportatzaileek jarraibide jakin batzuk kontuan hartzea eskatzen du irizpide honek, baina, hauetan neurri-hartzen leunketak aurkitzen ditugu, hala nola, helmugako herrialdearen eta beste baten arteko gatazka armatua badago edo hau gerta litekeen; Estatu inportatzaileak herrialde bizilagun baten lurraldea aldarrikatzean, edo indarraren bidez jadanik egoera horren aurrean bagaude; teknologia edo ekipamendu militarrek helmugako herrialdearen segurtasun nazionalaren defentsarako ez diren beste helburu ez-legitimoetara bideratzea edo hau emateko probabilitatea badago; azkenik, eskualdeko egonkortasuna era nabargarrian kaltetzea gertatzeko beharra.

Irizpide honen bigarren atalean zenbait egoera biltzen ditu, zeinek inperatibotasun maila leuntzen duten, hala nola d atalean aurkitzen dugun, “the need not to affect adversely regional stability in any significant way” esaldia, Estatu esportatzaileendako inolako marko edo gidarik gabe ezarri dena. Irizpideak Estatu kideen esku uzten du estabilitateari eraginkortasun handirik ez egitearen interpretazioa.

Testuak jasotako bostgarren irizpidea, Estatu kideen eta Estatu kide batek erantzunkizuna duenean lurralde batean non kanpo-harremanak dituztenen segurtasun nazionalari dagokio, baita herrialde lagun edo aliatuena. Estatu kideek bi jarraibide izanen dituzte segurtasun nazionala errespetatua izan dadin: a atalean adierazten den moduan, esportatuko den teknologia edo ekipamendu militarren eragina defentsa eta segurtasun interesetan, eta, aldi berean, faktore horrek giza eskubideen errespetuari eta eskualdeetako bakeari, segurtasunari eta egonkortasunari buruzko irizpideengan sorraraziko duena; b atalaren aldetik, kontutan izanen dute esportatutako materialen erabilpenaren arriskua

helmugako Estatu beraren indarren, beste Estatu kideen indarren, zein herrialde lagun edo aliatuen indarren aurka erabiliak izateko.

Irizpide hau ihes-klausula bezala ulertu daiteke, Estatuak kontuan hartu eta haztatu beharko dute beren segurtasunean eta defentsan izan dezaketen eragina esportazioak. Arau murriztailetzat ulertu dezakego Estatu kide batek Estatu esportatzailearen aliatu den Estatu batek aliatu ez duen bati zuzentzen bada esportazioa, bestalde, esportazioak zurrizteko aukera erakusten du segurtasun eta defentsa inguruko arazoak direla eta, nahiz eta Estatuak giza eskubideak urratu, ikusi dugunez, urraketa barne-errepresioaren ondorioz ematen ez bada.

Seigarren irizpidea, helmugako Estatuaren jarreraren inguruan aritzen da. Bere jokaera nazioarteko komunitatearen aurrean garrantzia handia izanen du ebaluazioa egiteko orduan, batez ere terrorismoarekiko. Testuak dioenez, Estatu esportatzaileak, Estatu inportatzailearen aurrekariak kontan izan beharko ditu hiru jarraibide:

- a) su apoyo o fomento del terrorismo y de la delincuencia organizada internacional;
- b) el respeto de sus compromisos internacionales, en especial sobre la no utilización de la fuerza, y del Derecho internacional humanitario;
- c) su compromiso en la no proliferación y en otros ámbitos del control de armamento y el desarme, en particular la firma, ratificación y aplicación de los correspondientes convenios de control de armamento y de desarme a los que se refiere la letra b) del Criterio 1.

Zazpigarren irizpideak Armen inguruko Merkataritzarako Itunaren 5.2º artikularekin bat egiten du, desbideraketaren arriskuaz hitz egiten baitu. Bi egoera azaltzen dira atal honetan, alde batetik, merkantzia helmugako Estatuan bertan desbideratzea, bestetik, hauek nahigabeko egoeratan esportatuak izatea. Beraz, esportatu beharreko teknologia edo ekipamendu militarrek herrialde inportatzailearengan izango duen eragina eta horiek nahi ez den azken erabiltzaile batera edo nahi ez den azken erabilera baterako desbideratzeko arriskua ebaluatzeko, honako egoera hauek hartuko dira kontuan: Estatu kide horren interesak eta bakea mantentzeko aktibitatea; materialak erabiltzeko gaitasun teknikoak; kontrol eraginkorrak ezartzeko gaitasuna; desiragarriak ez diren lurraldetara desbideratzeko arriskua eta Estatuak zein neurri hartu dituen urtetan zehar hau errespetatua izan dadin; merkantzia helburu terroristen eskuetara iristeko

arriskua; eta alderantzizko ingeniari-tza edo desiragarria ez den teknologia transferitzeko arriskua izatea⁵⁴.

Testuak, berriz ere, Estatu esportatzaileari interpretazioa egiteko eskumena ematen zaio. Gainera, kasu hauetan, Armen inguruko Merkataritzarako Itunak, larritasuna eta arreta bereziaren beharra adierazten du, baina irizpide honek subjektibotasuna uzten du helmugako Estatuaren aurrekariaren inguruko interpretazioan.

Zortzigarren eta azken irizpideari dagokionez, merkantzien esportazioen bateragarritasuna herrialde hartzailearen gaitasun tekniko eta ekonomikoari buruz hitz egiten du. Estatu kideek informazio iturri ezberdinak izanen dituzte kontutan, herrialde hartzailearen gastu militar eta sozialen mailak, baita Europar Batasuneko edo aldebiko laguntzekin batera:

Los Estados miembros ponderarán, a la luz de la información procedente de fuentes pertinentes tales como el Programa de las Naciones Unidas para el Desarrollo, el Banco Mundial, el Fondo Monetario Internacional y los informes de la Organización de Cooperación y Desarrollo Económicos, si la exportación propuesta obstaculizaría de forma importante el desarrollo sostenible del país receptor. En este contexto tendrán particularmente en cuenta los niveles relativos de gasto militar y social y tendrán en cuenta también cualquier ayuda bilateral o de la UE.

Azken irizpidean berriro ikusten dugu testuak onartzen duen subjektibitatea, inperatibotasuna leunduz, hala nola, bigarren paragrafo horretan adierazten den kontutan hartu beharreko informazioa. Irizpideak Estatu kideen esku uzten du bateragarritasuna egotea ala ez egitearen interpretazioa.

Bestalde, irizpide hauek betearazteko erraztasuna bermatzeko Erabiltzailearen Gida onartu zuen Kontseiluak hurrengo urtean. Honetan, Jarrera Kodean giza-eskubideen inguruan adierazitakoa barnebiltzen zen. Lizentziak eskuratzeko momentuan, helmugako-Estatuaren hainbat adierazle kontutan izan beharko dituzte, hala nola, giza-eskubideen eta giza zuzenbidearen inguruko hitzarmen multilateralen berrespena, hauen urrapena saihesteko barne-lege-dien eta mekanismoen adopzioa, eta Estatu honen esku hartzea hauen urraketan, auzitegi bereziekin edo Nazioarteko Zigor Auzitegiarekin kooperatzea edo indar-armatuen heziketa giza-eskubideen inguruan. 13. artikulua hain

⁵⁴ ÁLVAREZ RUBIO, J. J.; IRIARTE ÁNGEL, J. L.; SANTAOLLA MONTOYA, C; BELINTXON MARTÍN, U. “Armen merkataritza eta esportazioa Euskadin. EAEko erakundearen eginkizuna gardentasuna hobetzeko, esportazioak kontrolatzeko eta aplikatu behar den esparru juridikoa betetzeko”. *op. cit.* 30. orr.

zuzen ere Erabiltzailearen Gida orientazio moduan erabili behar dela adierazten du, kontutan izan beharko dena zortzi irizpideak interpretatzeko momentuan, argibide iturriak biltzen baiditu. Baina, bere balore juridikoa limitatua da, arazoa zera da, nahiz eta gida bezala aurkezten den, informazio txosten bat dirudi, Estatu kideek haien interpretazioak aplikatzeko eskubidea baidaukate honen bidez:

[...] los criterios establecidos en el artículo 2 [...] y el procedimiento de consulta establecido en el artículo 4 se aplicarán asimismo a los Estados miembros en relación con los productos y tecnologías de doble uso especificados en el anexo I del Reglamento (CE) n.o 428/2009, cuando haya motivos fundados para creer que las fuerzas armadas o los cuerpos de seguridad interna u organismos similares del país receptor serán el destinatario final de dichos productos y tecnologías. [...]

Lau arazo nagusi ikus ditzakegu irizpideetan. Hasteko, Jarrera Komuna interpretazio ezberdinak ondorioztagarria da, bestalde, kontraesaten diren xedek aurkezten ditu, gainera, agindu maila ezberdinarekin aurkezten dira honen irizpideak eta, azkenik, kontzeptu normatibo zehaztugabeak aurkezten ditu. Hau ikusita, haztapen-judizio bat gertatzearen beharra azaltzen dela ondorioztatu dezakegu edozein irizpiderekin, lehengoa baztertuz bere inperatibotasun maila dela eta. Alde batetik, kontrol politika, esportazioen murrizketa, giza-eskubideen errespetua, bakearen mantentzea eta gatazken prebentzioa aurkitzen ditugu, bestetik, industria militarren mantentzea eta honen sendotzea maila europarrean, Estatu esportatzaileen ekonomia, giza, merkataritza eta industria interesak, eta Estatu erosleen segurtasun beharra eta defentsa dauzkagu. Baina, metodo honek sortzen dituen arazo garrantzitsuenetakoa emaitza aurretik ezin jakitea edo ondorioztatzea da. Betiere, inoiz ez erabili ahalko da emaitza hori edozein erabaki arrazoitzeko, ezin da baliatu zurigarri bezala edozein salmenta egiteko, Jarrera Komunak erregulatutako debekuak beti kontutan izan beharko dira eta. Interpretatzeko momentuan arazo gehiago sortzen dituzten egoerek hiru dira⁵⁵.

Hasteko, 2.2.b) artikulua edukia aurkitzen dugu, honetan, ez da espreski ezta erabateko moduan jadanik giza-eskubideen urraketa larriak egin dituzten Estatuak esportatzea debekatzen. Honen ondorio juridikoa ikusi dugu haztapen-judizioa da, posiblea egiten duena esportazio hori gertatzea baimentzea. Erabiltzailearen Gidak, bere aldetik, zein momentutan urraketa larri baten aurrean aurkitzen garen zehazteko irizpideak ezartzen ditu. Hauek, sistematikoak izan beharko dira, baina, nahiz eta

⁵⁵ MELERO ALONSO, E. "La Posición Común 2008/944/PESC sobre control de las exportaciones tecnológicas y equipos militares: análisis crítico", *op. cit.*, 245-252 orr.

sistematikoak ez izan, larriak bezala ulertu daitezke Nazio Batuen Erakundearen, Europar Batasunaren eta Europako Kontseiluaren zenbait organo horrela bezala kalifikatzen badituzte. Baina, organo horiek, nahiz eta urraketa hori eman dela ebatzi duten, larria bezala ez badute ulertu, erabakia Estatu esportatzailearen eskuetan jarraitzen du⁵⁶.

Hurrengo arazo nagusia 10. artikuluan aurkitzen dugu, honetan ezartzen den bezala, Estatu kideen esku uzten da esportazioek hauen interes ekonomiko, sozial, merkataritzazko eta industrialetan izan dezaketen ondorioak haztatzea, baina, hauek ezinen dituzte irizpideak urratu. Bederatzigarren irizpidearen aurrean aurkitzen gara, zeinek, era argian beste zortziekin gatazkan sartzen dena, eta Jarrera Kodean aurkitu genezakeena. Beraz, arazoak bi alderdi dauzka. Alde batetik, zein egoeratan kontutan hartu ahal izango dituzte Estatu esportatzaileek haien interesak bakea, segurtasuna eta giza-eskubideen gaintetik. Bestetik, nola interpretatu daiteke interes hauek ez direla kontraesanetan sartzen irizpideekin. Dietmar Pietch-en ustez, interes hauek ezin dira irizpide horien gaintetik ezarri, baizik eta atzerriko politika eta segurtasunaren irizpideak eta neurriak osatzeko, baina, ikuspegi hau oso baikorra da, gehiegi, Estatu kideek Jarrera Komuna aplikatzeko joerarekin ez du bat egiten, muina Estatu kideek zortzi irizpideak Troiako Zaldia bezala ez erabiltzea da⁵⁷. Irizpideak nagusitzen dira Estatu kideen interesen gaintetik, nolana, ikusi dugunez, artikulutik ondorio hau inkongruentea da adierazitako irizpideen edukiarekiko, baina askatasun gehiegi daukate interpretazio hori egiteko, era berekoian egin daitekeena⁵⁸.

Hirugarren eta azken arazo nagusia xede humanitarioarengatik egindako esportazioei dagokie. Hau ez da espreski irizpideen artean aurkitzen, Erabiltzailearen Gidaren ondorioz interpretatu egin da. Esportazio hauek, irizpideekiko kontrakoak dira, baina, ezaugarri humanitarioa dela eta baimentzen dira. Egoera hau gertatu ahal izateak, Estatu kideek Jarrera Bateratuak aplikatzeko eta interpretatzeko elastikotasuna xedatzen du⁵⁹.

⁵⁶ MELERO ALONSO, E. “La Posición Común 2008/944/PESC sobre control de las exportaciones tecnológicas y equipos militares: análisis crítico”, *op. cit.*, 253-254 orr.

⁵⁷ MELERO ALONSO, E. “La Posición Común 2008/944/PESC sobre control de las exportaciones tecnológicas y equipos militares: análisis crítico”, *op. cit.*, 254-256 orr.

⁵⁸ JANER TORRENS, J. D. “Política europea de control de las exportaciones de armas convencionales y seguridad humana: mecanismos para fomentar el respeto de los derechos humanos”, *op. cit.*, 56. orr.

⁵⁹ MELERO ALONSO, E. “La Posición Común 2008/944/PESC sobre control de las exportaciones tecnológicas y equipos militares: análisis crítico”, *op. cit.*, 256-257 orr.

Argi dago Jarrera Bateratuak, nahiz eta nazioarteko testuen araudiak garatzen dituen, geroago Estatu kideek hauen barne-legedia eratzeko momentuan ezarri beharko dituzten muga eta debekuen zehaztasunak garatuz, Estatu hauei haien interesak bermatzeko interpretazioak egiteko baimena ematen die. Azken finean, inperatibotasun-maila nahikoa ez izateaz gain, honen leuntzen duten xedapenak biltzen dira. Bestalde, esan beharra dago, Europar Batasuneko Funtzionamendu Hitzarmenaren 275. artikulua⁶⁰ harira, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak ez daukala eskuduntzarik nazioarteko segurtasunean eta atzerriko politika edo hauei buruz aritzen diren testuen inguruan epairik emateko.

2.2 2018/101 Erabakia

Kontseiluak 2018/101 Erabakia⁶¹ hartu egin zuen armen esportazioen kontrol eraginkorrak sustatzeko xedez. Gaur egun jadanik ez dago indarrean, bi urte ondoren 2020/794 Erabakia⁶² hartu zen eta, jatorrizko bertsioa ordezkatu egin zuena.

Lehen artikulua erabakiaren helburuak ezartzen ditu, hauek betetzeko aurrera eramango diren ekintzek Jarrera Bateratuarekin eta Armen inguruko Merkataritzarako Itunarekin bat egin beharko dituzte.

- a) fomentar controles eficaces de las exportaciones de armas por terceros países con arreglo a los principios establecidos en la Posición Común 2008/944/PESC y en el Tratado sobre el Comercio de Armas y, cuando proceda, tratar de conseguir complementariedad y sinergias con los proyectos de asistencia de la Unión en el ámbito de los controles de las exportaciones de productos de doble uso;
- b) apoyar los esfuerzos de los terceros países a escala nacional y regional para lograr que el comercio de armas convencionales sea más responsable y transparente y para mitigar el riesgo de desvío de las armas a usuarios no autorizados.

Artikuluak adierazitako kontrolak eraginkorrak izateko eta entzunbeharra eta gardentasuna bultzatzeko helburu hauek beteak izan daitezen, artikulua⁶⁰ren bigarren atalean jarraitu beharko diren egitamuak zerrendatzen dira, geroago, testuaren bukaeran, eranskinean garatzen direnak:

- a) seguir fomentando entre terceros países los criterios y principios establecidos en la Posición Común 2008/944/PESC y el Tratado sobre el Comercio de Armas, basándose en los logros alcanzados mediante la aplicación de la Decisiones

⁶⁰ El Tribunal de Justicia de la Unión Europea no será competente para pronunciarse sobre las disposiciones relativas a la política exterior y de seguridad común ni sobre los actos adoptados sobre la base de éstas.

⁶¹ DOUE L. 17/40, 23/01/2018.

⁶² DOUE L.193/13, 17/06/2020.

(PESC) 2015/2309⁶³, 2012/711/PESC⁶⁴ y 2009/1012/PESC⁶⁵ y la Acción Común 2008/230/PESC⁶⁶; b) asistir a terceros países en la elaboración, actualización y aplicación, según proceda, de las medidas legislativas y administrativas pertinentes destinadas a garantizar un sistema eficaz de controles de las exportaciones de armas convencionales;

Hemendik zera ondorioztatu dezakegu, armen eta erabilera bikoitzeko teknologia edo produktuen kontrolik gabeko ugaritzea eta hauen erabilpenak giza eskubideen eta zuzenbide humanitarioaren aurka egiten diren urratzeak gutxitzea dauka helburua. Baina, armen industriaren beste sektore batzuetarako - arma kimikoak, biologikoak eta nuklearrak besteak beste - nazioarteko kontrol juridikoa askoz zorrotzago eta sakonagoa da, suntsipen handiko armen esportazioak kontrolatzeko indarrean dauden nazioarteko tresnek halakoak eskualdatzea, edukitzea eta salerostea debekatzen baitiete munduko Estatu gehienei, Tlatelolco-ko Itunarekin ikusi dugun moduan adibidez.

2.3. 428/2009 Erreglamendua

Kontseiluaren Erregelamendu⁶⁷ honek, erabilera bikoitzeko⁶⁸ gaien esportazioak, eskualdatzeak, bitartekaritzak eta igarotzea kontrolatzeko erregimen komunitarioa kontrolatzeko jarraibideak ezartzea du helburu.

Beste nazioarteko mailako testuetan ikusi dugun bezala, kontrola Estatu Kideen eskuetan egoen da, barne-legedien bidez garatuko dena. 9. artikulua harira, Estatu Kideek eskumena izanen dute autorizazioak eskudutzeko, Bigarren Eranskinaren a-tarteetan agertzen diren materialak ezin, hemen “Union General Export Authorisation”⁶⁹ delakoa behar baita, Europar Batasunak kontrolatzen dituena.

⁶³ DOUE L 326/56, 11/12/2015.

⁶⁴ DOUE L 321/62, 20/11/2012.

⁶⁵ DOUE L 348/16, 29/12/2009.

⁶⁶ DOUE L 75/81, 18/03/2008.

⁶⁷ DOUE L 326/26, 08/12/2011.

⁶⁸ 2.1: [...] "productos de doble uso": los productos, incluido el soporte lógico (software) y la tecnología que puedan destinarse a usos tanto civiles como militares y que incluyen todos los productos que puedan ser utilizados tanto para usos no explosivos como para ayudar a la fabricación de armas nucleares u otros dispositivos nucleares explosivos; [...]

⁶⁹ Europar Batasunak aukera ematen du erabilera bikoitzeko zenbait produktu Ipar Irlandatik Europar Batasunetik kanpoko helmuga batzuetara esportatzeko. Lizentzia Orokor Irekien Sistema Nazionalaren Europako baliokidea dira, eta esportazioak kontrolatzeko legeriaren arabera ematen dira. Erabilera bikoitzeko esportazioak baimentzeko diseinututa daude. Erabilera bikoitzeko artikulua helburu zibil edo militarretarako erabil daitezkeen produktuak, softwarea edo teknologia dira. Europar Batasunak arduratzen da lurralde osoan aplika daitezkeen legeria sustatzeaz.

<https://www.gov.uk/guidance/european-union-general-export-authorisations#:~:text=GEAs%20> (Azken bisita (2022/05/04)).

Testuak behin eta berriz erreferentzia egiten du Lehen Eranskinean agertzen den zerrendari. Honetan, erabilera bikoitzeko zenbait elementu zerrendatuak aurkitzen ditugu. Erreglamenduaren 15. artikulua zerrenda hau eguneratzearen beharra aipatzen du, ezinbestekoa baita desbideratze-mehatxuen inguruko kontrol eraginkorra mantentzeko eta sektorearen aldaketei egokitzeko. Beraz, 3. artikulua dioenez, zerrendan aurki ditzazkegun elementuak esportatu ahal izateko, beti autorizazioa eskuratu beharko da. Ondoren, 4. artikulua, *catch-all* klausula⁷⁰ biltzen duena, zenbait egoera azaltzen ditu non, nahiz eta erabilera bikoitzeko elementuak zerrendan ez aurkitu, autorizazioa eskuratu beharko da testuingurua dela eta, honi emanen zaion erabilera kontutan izanda, hala nola, helmuga Estatuak, Europar Batasunak horrela erabakita, armen bahiketa jasaten ari badu, baita, Atzerriko Politika eta Segurtasun Erkideak edo Nazio Batuen Erakundearen Segurtasun Kontseiluak horrela erabakitzen badute. Baina, Estatu Kideek autorizazioak debekatu beharko dituzte 4.1 artikuluaaren egoera baten aurrean aurkitzen badira, 6. artikuluaaren harira⁷¹.

Nazioarteko Armen Inguruko Merkataritza itunaren 15. artikuluan ikusi dugunez, Estatuaren arteko kooperazioa garrantzia handia dauka lizentziak eskuratzeko momentuan informazio zirkulazioa erraztatzeko. Erreglamenduaren 13. artikuluan honi buruz aritzen da ere lizentzia hauek ukatzen badituzte, esportatzaileak lizentzia berriz eskatzeko asmoa badauka, zer aldatu edo hobetu dezakeen jakiteko, hau da, aurretiko ukatzea eta arrazoiak informatu beharko dira.

Azken finean, ikus daitekeenez, Jarrera Bateratuarekin gertatzen den bezala, inperatibotasun-maila falta edo honen leunketak aurki ditzazkegu xedapenetan, Estatu kideen barne-legedian eta interpretazioan utzi egiten da zama. 12. artikuluan zera adierazten da, “Member States shall take into account all relevant considerations including:”. Argi dago ez dagoela inolazko zehaztasunik kontutan hartu beharreko

⁷⁰ Estatu Kideek erabil dezaketen mekanismoa da. Esportatzeko intentzia duten estatuei, dagokion lizentzia eskatzera behartzeko.

<https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/tramites-y-gestiones/documentos-certificados-especificos/industria-tecnologia/material-defensa-productos-tecnologias-doble-uso-otro-material-policia-caza-deportivo/EST2014346093.html?sectores=119-137>

(Azken bisita (2022/05/04))

⁷¹ ÁLVAREZ RUBIO, J. J.; IRIARTE ÁNGEL, J. L.; SANTAOLLA MONTOYA, C; BELINTXON MARTÍN, U. “Armen merkataritza eta esportazioa Euskadin. EAEko erakundearen eginkizuna gardentasuna hobetzeko, esportazioak kontrolatzeko eta aplikatu behar den esparru juridikoa betetzeko”. *op. cit.*, 31-32 orr.

irizpideekin, bakarrik, hurrengo ataletan gogoan izan beharreko informazio iturrien zerrenda, informazio hauek ebaluatzeko jarraibiderik gabe.

3. Estatu maila

Defentsa eta erabilera bikoitzeko materialen kanpo-merkataritzako eragiketa guztiak 53/2007 Legea eta 679/2014 Errege Dekretuaren bidez arautzen dira Estatu Espainiarrean. Ikusi dugunez, nazioarteko mailan eta Europar Batasuneko dokumentuak maiz aipatzen dute Estatu kideek barne-legediaren bidezko kontrola garatu behar dela, hala nola, Armen Merkataritzaren Inguruko Itunaren 5.2º artikulua isladatzen da Jarrera Bateratuaren lehen artikuluan bertan.

3. 1. 53/2007 Legea

Atarikoan aipamena egiten da Armen inguruko Merkataritzarako Itunari, Estatu Espainiarrak honekiko duen konpromezuaz eta legez kanpoko salerosketak kontrolatzeko beharrari buruz. Barne-legedia garatzearen premiaren harira, defentsa eta erabilera bikoitzeko materialaren kanpo-merkataritzaren kontrola erregulatzen duen 53/2007 Legea⁷² idatzi egin zen. Hau, lehen artikulua dioenez, berariazko testu bat sortzeko xedez, legez kanpoko desbideraketak saihestuz, nazioarteko konpromezuak betez eta Estatuaren defentsaren eta kanpo-politiken interes orokorrak bermatuz.

Bigarren kapituluaren transferentziak egin ahal izateko autorizazio erregimena erregulatzen da. 4. artikulua adierazten duen bezala, hauek gertatu ahal izateko, aurretiko autorizazio-administratiboa eskuratu beharko da, kontrol dokumentu eta berresporazioaren aurkako klausulekin batera aurkeztu beharko dena. Baina, Indar Armatuaren edo Estatu Espainiarraren Indar- eta Segurtasun-Gorputzek atzerrian burutu behar dituzten maniobra eta misioetan, betiere, arrazoi humanitarioak, bakeari laguntzeko ekintzak edo beste nazioarteko konpromezuak betetzeko, edo beste herrialdeko armadak lagundu edo erabiliko badute. Baita, beste Estatu batek Estatu Espainiarraren Indar Armatuekin batera lurralde nazionalean egindako maniobretan, aipatutako eragiketak burutzean, materialak aldi baterako lagatzea edo material suntsigarria erabiltzean. Salbuespen hau Legearen 5. artikuluan azaltzen da, geroago Erreglamenduaren 3. artikuluekin bat egiten duena. Berez, kasu hauetan, herrialde esportatzailearen lurraldetik kanpo aurkitzen direnean, dagokion administrazio-baimena eskatu beharko da,

⁷² «BOE» 312. znb., 2007ko abenduaren 29a, 53670 - 53676 orrialdeak.

orduan, elementu horiek entregatu ahalko dira. Ez bada salbuespen kasu hau, baina Estatuko eta nazioarteko interesen eta printzipioen aurka egiten duelako autorizazioa ukatzen bada, edo behin eskuratuta eten edo ezeztatu nahi bada, 8.1 artikulua hau bideratzeko argudioak zerrendatzen ditu:

- a) Cuando existan indicios racionales de que el material [...] puedan ser empleados en acciones que perturben la paz, la estabilidad o la seguridad en un ámbito mundial o regional, [...]
- b) Cuando se contravengan los intereses generales de la defensa nacional y de la política exterior del Estado.
- c) Cuando vulneren las directrices acordadas en el seno de la Unión Europea, [...]
- d) Cuando se contravengan las limitaciones que se derivan del Derecho internacional, [...]

Baita, 2. eta 3. ataletan adierazten den bezala, beste zenbait arrazoi baliagarriak izanen dira baimena behin eskuratuta hau eteteko edo ezeztatzeke, hala nola, kontratuaren baldintzak ez betetzea edo beharrezko informazioaren omisioa edo faltsutzea eman delako. Erabaki hau hartzekotan, administrazio-txostena izapidetzea eskatzen da prozedura aurrera eramateko.

Testuaren 8. Artikuluan, autorizatutako esportazio-lizentziak kentzeko edo bertan behera uzteko kontutan hartu beharreko irizpideak azaltzen dira, egoera ezberdinak biltzen dituen.

Hasteko, Esportatuko diren materialak eta teknologiak munduko edo eskualdeko bakea, egonkortasuna zein segurtasuna aztoratu dezaketeela, tentsio eta gatazkak biziagotzea, barne-errepresio zein giza-eskubideak urratuko edo duintasunaren aurka egin dezaketeela eta nahi ez diren desbideraketak gertatzeari buruzko arrazoizko zantzuak daudenean. Arrazoizko zantzurik badagoen erabakitzeko, kontuan hartu beharko dira Estatu Espainiarrak parte den nazioarteko erakundeek transferentziei eta hauen azken xedeari buruz egiten dituzten txostenak, NBEren giza eskubideen arloko organoen eta beste erakunde batzuen txostenak, garapenaren, armagabetzearen eta giza eskubideen arloetan itzal handia duten erakunde eta ikerketa-zentroek emandako informazioa, eta armen esportazioari buruz Europar Batasunaren Jokabide Kodearen Erabiltzailearen Gidak azaldutako jardunbideak. Bigarrenik, defentsa nazionalaren eta Estatuko atzerri-politikaren interes orokorrak urratzen diren kasuetan. Ondoren, Europar Batasunaren baitan adostutako gidalerroak urratzen direnean, hala nola, 1998ko ekainaren 8ko Jokabide Kodean armen esportazioari buruz jasotako irizpideak, zeinak aplikatzeko

Erabiltzailearen Gidan deskribatutako jardunbide eguneratuak jarraituko dira, eta ESLEK arma txiki eta arinei buruzko 2000ko azaroaren 24ko agirian ezarritako irizpideak. Azkenik, nazioarteko zuzenbidetik eratortzen diren beste edozein mugak, Nazio Batuen Erakundeak eta Europar Batasunak agindutako enbargoak errespetatzearen beharra urratzen direnean.

Berriz ere zehatzak ez diren kontzeptuak edo egoerak aurkitzen ditugu, Jarrera Bateratuan ezarritakoa errepikatzen baitu, zeinek ezjakintasun egoera sortzen duen Estatu kideen esku pisua utziz, baina, Estatu Espainiarrak eratutako lege honetan, berriz ere ziurgabetasuna ikus daiteke debekatzeko interpretazioari dagokionez. Baina, Legearen 16.1. artikulua eta Erreglamenduaren 19. artikulua kontrol eta gardentasun neurriak ezartzen dituzte. Horrela, Gobernu Zentralak, sei hileko bakoitzean Diputatuen Kongresuan aurkeztu behar du gai honen inguruko denbora-tarte horretan gertatutako edozein informazio deigarria, gutxienez, akabo eraman diren esportazioen balioa helmuga-herrialdearen eta produktuaren ezaugarriak baldintzatuta, asistentzia teknikoak, produktuaren azken erabilera edo funtsa, azken erabiltzailea izaera publikoa edo pribatua duen, eta ezetsitako eskaerak. Baita, urtean behin Turismo eta Merkataritzako Estatu-idazkariak Diputatuen Kongresuko Defentsa Batzordearen aurrean aurkeztuko du defentsa-materialaren edo teknologien eta erabilera bikoitzeko produktuen azken erreferentzia-aldiko esportazioari buruzko estatistiken berri emateko, legearen bigarren atalean eta erreglamenduaren bigarren atalean eskatzen den bezala. Honen aurrean, Defentsa Batzordeak bere iritzia azalduko du jasotako informazioaren inguruan, eta hurrengo urtean aintzat hartzeko gomendioak erantsiko ditu, legearen hirugarren atalean eta erreglamenduaren hirugarren atalean agertzen den bezala.

Beraz, kontrol parlamentarioaren mekanismo hau behin esportazio-lizentzia eskuratuta eta materialak helmuga-Estatura bidali eta iritsi direnean ematen da, bakarrik informazioa aurkezten da, lizentzian aldaketarik egiteko edo debekatzeko denbora-tarterik gabe. Hortaz, mekanismoaren eraginkortasun eta gardentasun gabezia argia da.

3.2. 679/2014 Errege Dekretua.

53/2007 Legearen Lehen-azken Xedapenak Gobernu Zentralak, Errege Dekretu baten bitartez, Legea oinarri hartuz, 2014ko Gobernuak defentsa-materialaren, bestelako materialen eta erabilera bikoitzeko produktuen eta teknologien kanpo-merkataritza

kontrolatzeko Erregelamendua onartzen duen 679/2014 Errege Dekretua⁷³ onartu egin zen, zeinaren bitartez, esportazioen kontrola erregulatzen den.

Testuaren bigarren artikuluan autorizazioak zein kasutan eskatuko den zerrendatzen da. Klasifikazioa materialaren arabera izanen da. Hasteko, defentsa-materialentzako lau kasutan eskatuko da: Lehen Eranskinean zerrendatutako edozein material izanda; transferentzia lizentziapeko produkzio-hitzarmen batengan eratorria badauka, Legearen 3.16^o artikulua⁷⁴ definitzen duenaren arabera; III.1 Eranskinean zerrendatutako gerrarako armak; azkenik, nahiz eta zerrendatuak ez agertu, badaude hainbat egoeratan zeinetan autorizazioa eskuratu beharko den, hala nola, arma biologikoekin, kimikoekin eta nuklearrekin zerikusirik izatea edo izan ahal izatea, edo helmugako Estatuak bahiketa baten pean aurkitzen bada. Baina, ez da bankako-baimenik eskatuko merkantzia Europar Batasuneko Estatu Kide batetik etortzen bada, hau I.1 Eranskinaren zerrendan aurkitzen bada. Azkenik, Armen bitartekaritzaren kontrolari buruzko 2003/468 Jarrera Bateratua⁷⁵ ezarritakoaren arabera, edozein artekaritza jarduerarentzat eskatuko da.

Ondoren, artikulua bigarren atalean, “beste materialak” bezala kalifikatutako ondasunak erregulatzen dira, hauek, autorizazioa beharko dute hurrengo kasutan:

- 1.º Las exportaciones definitivas y temporales del material indicado en el anexo II.
- 2.º [...] apartado 2 del anexo II.1 y en el anexo II.2.
- 3.º [...] anexo III.2.
- 4.º [...] apartados 2 y 3 del anexo III.2.

Baina, ez da beharrezkoa izanen II.1 eta III.2 Eranskinetan zerrendatutako materialak erabilera zibilerako edo hauen piezak eta munizioak badira, ezta, jarduera ekonomiko edo komertzial batetik eratorririk ez dutenak, hauek ehizarako edo kirol-tirorako bideratzen badira.

⁷³ «BOE» 207. znb., 2014ko abuztuaren 26a, 68148 - 68300 orrialdeak.

⁷⁴ 16. «Producción bajo licencia»: [...] son los procesos mediante los cuales una empresa de un país autoriza a una empresa de otro país a fabricar sus productos en el extranjero; suelen incluir la transferencia de componentes, tecnología y técnicas de producción.

⁷⁵ DOUE L 156/79. 25/06/2003

1. Conviene que las actividades de corretaje, estén sometidas a la obtención de un permiso o una autorización por escrito de las autoridades competentes del Estado miembro donde tengan lugar dichas actividades y, cuando lo requiera la legislación nacional, donde el corredor resida o esté establecido.

Artikuluaren hirugarren eta azken atalean, autorizazioa beharko duten erabilera bikoitzeko materialak ezartzen dira. Hasteko, 428/2009 Erreglamenduaren Lehen Eranskinean agertzen den zerrendan aurkitzen direnak; emanen zaion erabileraren arabera, Kontseiluaren 2000/0401 Akzio Bateratuaren⁷⁶ 3. artikuluan⁷⁷ adierazitakoaren harira; III.3 Eranskinean zerrendatutako material nuklearrak, Material Nuklearren Babes Fisikoari Buruzko Hitzarmenaren⁷⁸ 4.2º artikulua⁷⁹ kontutan hartuz; xede etsaitasunekin edo gatazka armatuetan erabiliko diren agente biologiko zein toxikoak transmitituko badira, Arma Bakteriologikoak (biologikoak) eta Toxikoak Garatzea, Sortzea eta Biltegiatzearen Debekatzea eta haiek suntsitzearen buruzko Hitzarmenaren⁸⁰ 3. artikulua⁸¹ adierazten duenaren harira.

Hortaz, bigarren artikuluan adierazitako edozein zerrendan edo egoeran aurkitzen diren operazioak, salbuespenak kontutan hartuz, autorizazioa edo baimena eskuratuko dute. Era ezberdinetako lizentziak aurkitzen ditugu, bost hain zuzen ere, hauekin batera, bi autorizazio eta aurretiko akordio bat.

Behin autorizazioa edo baimena eskuratuta, titularrek kontrol-neurrien menpe mantenduko dira, operadoreak bihurtuz. Bederatzigarren artikuluan harira, hauek instituzioen eta departamentuek ezarritako inspeksioen menpe geratuko dira, gainera,

⁷⁶ DOUE L 159/216. 30/06/20000.

⁷⁷ [...] casos en que la asistencia técnica esté relacionada con usos finales militares distintos a los que se refiere el artículo 2 y suministro en países de destino sobre los que pese un embargo de armas [...].

⁷⁸ «BOE» . 256. znb., 1991ko urriaren 25a, 34558 – 34562 orr.

⁷⁹ 2. Each State Party shall not import or authorize the import of nuclear material from a State not party to this Convention unless the State Party has received assurances that such material will during the international nuclear transport be protected at the levels described in Annex I.

⁸⁰ «BOE» 165. znb., 1979ko uztailaren 11, 5900 – 15902 orr.

⁸¹ Each State Party to this Convention undertakes not to transfer to any recipient whatsoever, directly or indirectly, and not in any way to assist, encourage, or induce any State, group of States or international organisations to manufacture or otherwise acquire any of the agents, toxins, weapons, equipment or means of delivery specified in Article I of the Convention.

erabilera bikoitzeko materialen kasuan, 428/2009 Erreklamenduaren 20⁸² eta 21⁸³ artikulua ezarritakoa errespetatu beharko dute baita.

9.1 Los titulares de las correspondientes autorizaciones quedarán sujetos a la inspección de la Secretaría de Estado de Comercio del Ministerio de Economía y Competitividad y del Departamento de Aduanas e Impuestos Especiales, del Ministerio de Hacienda y Administraciones Públicas.

Arma-esportazioa Europar Batasunak arlo honetan duen Jokabide Kodeari egokitzen saiatu behar du. Armen esportazioan ere opakutasuna dago, organoaren aktak sekretuak baitira. Babes hori segurtasun estrategikoaren argudioarekin justifikatzen da. Dena den, idazkaritza hori demokraziarekin gatazkan dago, gardentasuna eskatzen baitu. Organoaren aktetan jasota daude erakunde horrek herrialde jakin bati esportazio-lizentzia emateko edo ez emateko dituen datu/informazio guztiak, baina, izaera konfidentziala duenez, oso zaila da jakitea irizpide humanitarioa erabili ote duen lizentzia emateko irizpide bezala⁸⁴.

Autorizazioak eskuratzeko prozedimendua hiru fasetan banatu dezakegu: (1) Erregistroan inskripzioa, aurretiazko baldintza dena, (2) eskakizunak jaso behar dituen kontrol dokumentuen aurkezpena eta (3) beharrezko organoak eskuratzea, orokorrean Defentsarako eta Erabilera Bikoitzeko materialen kanpo-merkataritza arautzen duen Ministerio-Arteko Batzordeak onartuko dituenak.

Legearen eta Erreklamenduaren pean aurkitzen diren operadoreek, hauen datuak eta operazioen informazioak gordetuak mantendu daitezten, Defentsa Materialaren eta Erabilera Bikoitzaren Kanpo Merkataritzako Operadoreen Erregistro Berezia eratu zen. Operadoreek inskribatuak egonen beharko dira Legearen 12 artikulua harira, ondoren Erreklamenduaren 13. artikulua garatu egin zuena. Erreklamenduaren 12. artikuluan adierazten denez, testu hauetan bildutako edozein operazio aurrera eramaten duten

⁸² 1. [...] shall keep detailed registers or records of their exports, in accordance with the national law or practice in force in the respective Member States [...] documents such as invoices, manifests and transport and other dispatch documents containing sufficient information [...]; 2. In accordance with national law or practice in force in the respective Member States, brokers shall keep registers or records for brokering services [...] to be able to prove, on request, the description of the dual-use items that were the subject of brokering services, the period during which the items were the subject of such services and their destination, and the countries concerned by those brokering services; 3. The registers [...] shall be kept for at least three years from the end of the calendar year in which the export took place or the brokering services were provided [...].

⁸³ [...] each Member State shall take whatever measures are needed to permit its competent authorities: (a) to gather information on any order or transaction involving dual-use items; (b) to establish that the export control measures are being properly applied [...].

⁸⁴ MONTESINOS GARCÍA, D. (2017). *Desarmar la codicia: una propuesta ética ante el armamentismo*. [Tesia, Universitat Jaume I]. Dialnet. 188-189 orriak.

subjektu fisiko zein juridikoen datu pertsonalak inskribatu beharko dira. Baina, Legearen 12.1. artikulua eta Erreklamenduaren 13.2 artikuluek adierazten dutenez, paradisu fiskaletan egoitza daukaten enpresek debekatuta izanen dute inskribatzea. Dударik gabe, Legearen 12.2 eta 3. eta Erreklamenduaren 13.5 eta 6. artikuluek Erreklamendu Berezian inskribatzeko beharrari bi salbuespen onartzen dituzte: Indar-Armatuen administrazio organoek, Autonomi Erkidegoen Polizia-Gorputzek eta Tokikoek alde batetik, eta pertsona fisikoek jarduera ekonomiko edo komertzial batetik ez datozen armen transferentzia egitean.

Behin erregistratuta, baimena eskuratzeko eskaera egin beharko da, kontrol dokumentuekin aurkeztu beharko direnak, berresporazioaren aurkako klausulekin batera aurkeztu beharko dena, lehenago Legearen 4. artikuluaekin adierazi dugun bezala. Dokumentu hauen xedea merkantzien helmuga eta azken-erabilpena administrazioaren mugak errespetatzen dituztela bermatzea da, horregatik, Legearen 4.2 eta Erreklamenduaren 4.2 artikuluek azaltzen dutenez, helmugako herrialdeetara iristeko igaro behar diren beste igarotze-herrialdeei buruzko eta garraio-metodoaren inguruko informazioa gehitu beharko da.

Bestalde, Batzordeak horrela erabakitzen duenean, materialak helmugako herrialdera iritsi dela egiaztatzen duen dokumentazioa eskatu dezake Entrega Ziurtagiri baten bidez, edo aduanako dokumentu baliokide batekin, Erreklamenduaren 23.3 artikulua adierazten duen moduan. Gainera, Batzordean zenbait kasutan dokumentu hauek ez aurkeztearen beharra ezartzeko eskuduntza dauka, legez ezarritako irizpideak urratzen ez badira erabaki horren ondorioz, Legearen 14.3 eta Erreklamenduaren 18.6 artikuluek azaltzen duten bezala. Betiere, Gobernuak txostena jaso beharko du Parlamentura hau bera igortzeko, non zein operazioek jasoko duen salbuespena eta zein irizpide erabili egin diren erabaki hau hartzeko erakutsiko diren. Salbuespenak bederatziz dira, Erreklamenduaren 18.6 artikuluan⁸⁵ zerrendatzen direnak.

⁸⁵ a) [...] programas de cooperación en el ámbito de la defensa [...] b) [...] solicitadas por organismos del Ministerio de Defensa y por las empresas del sector en cumplimiento de contratos de mantenimiento o reparación con las Fuerzas Armadas [...]. c) [...] para reparaciones, revisiones, pruebas, homologaciones, ferias y exhibiciones [...] e) [...] destino a los países miembros de los regímenes internacionales de no proliferación y control de las exportaciones por los que está sometido a control el producto que se desea exportar [...] f) [...] eliminados o no estén recogidos en las correspondientes listas internacionales. g) Las introducciones desde otro país de la Unión Europea, y las importaciones procedentes de países miembros del Grupo Australia de las sustancias químicas [...] h) Las rectificaciones de las autorizaciones referidas al plazo de validez y al valor monetario. i) Las expediciones de componentes, subsistemas y recambios de material de defensa [...], derivadas del uso de una Licencia Global de Transferencia de Componentes de

Legearen 14.3 artikulua adierazitako salbuespena bermatzeko eskuduntzak lege ezarritako irizpideak errespetatzeko beharra ez da ulergarria bere osotasunean. Aurretiazko- txostena eta beharrezkoak diren dokumentuak ez aurkeztean, Batzordeak ezin du zehaztasunez kasua ikertu, beharrezkoa dena irizpideak urratzen ez direla deliberatzeko. Horren ondorioz, ez dago Batzordearen erabakien gaineko kontrol mekanismorik, kasuak Erreglamenduaren 18.6 artikuluan zerrendatutako zein operazio motarekin bat-etortzen den eta zein irizpide erabili diren inguruan informatzen diote Gobernuari. Hau da, informazioak ez du adierazten konkretuki zein den operazioa, orokortasunez aritzen dira kasuaren inguruan, kontrol erreal bat eragozten duena⁸⁶.

Eskaera egitekotan, bost lizentzia, Aurretiko-Hitzarmen bat eta bi autorizazio aurkitzen ditugu, kasuan-kasu egokitzen dena eskatu beharko dute.

Hasteko, Defentsarako Materialen Transferentziarako Banakako Lizentzia erreglamenduaren 22. artikulua erregulatzen du sankonki. Honen bidez titularrak bidalketa bat edo gehiago egin ditzazke hartzaile jakin batera eta zehaztutako herrialde batera, betiere urtebeteko epean. Esportatzaileak arrazoitutako alde aurretiko eskaera egin beharko du.

Defentsarako Materialen Transferentziarako Lizentzia Globala 23. artikuluan erregulatzen da. Titularrari baimena ematen zaio lizentzian jasotako materialen bidalketa-kopuru mugagabea egiteko, hartzaile bati edo gehiagori eta zehaztutako helmuga-herrialde batera edo batzuei, hala badagokio, baimendutako gehienezko balioraino eta hiru urteko indarraldiaren barruan. Lizentzia hau eskatzeko, esportatzailearen eta hartzailearen arteko hurrengo harremanen bat eman beharko da: sozietate nagusiaren eta bere menpeko baten artean edo sozietate bereko filialen artean; fabrikatzaile eta banatzaile eskusiboaren artean; eta, esportatzailearen eta bidali beharreko materialaren azken erabiltzailearen arteko merkataritza-fluxu erregularra bada.

Defentsarako Materialen Transferentziarako Proiektuaren Lizentzia Globala 24. artikuluan aurkitzen da. Titularrari baimena ematen dio autorizatzen diren materialen bidalketa-kopuru mugagabea egiteko, hartzaile bati edo gehiagori eta helmugako

Material de Defensa o de una Licencia General para Transferencias Intracomunitarias de Material de Defensa [...].

⁸⁶ MELERO ALONSO, E. "La Administración y el comercio exterior del material de defensa y los productos y tecnologías de doble uso", MUÑOZ MACHADO, S. *Derecho de la regulación económica liburuan*. Iustel, Madril, 2009, 25. znb., 810 orr.

herrialde bati edo gehiagori, zehaztuak egon beharko direnak, baimendutako gehienezko balioraino eta hiru urteko balio-epean. Lizentzia hau bakarrik 2000ko uztailaren 27ko Esparru-hitzarmenean aurreikusten den arma kooperatiboen programan jasotako operazioetarako erabili daiteke, helburua defentsa-industriaren berregituraketa eta integrazioa errazteko edo Estatu Espainiarrak nazioarte mailan onartutako beste edozein arma kooperatibo-programa izatekotan. Era berean, "defentsa-enpresa transnazional" batek edo gehiagok gobernuz kanpoko programetan, defentsa-materiala garatzeko edo ekoizteko parte hartzen duten programetarako erabili daiteke. Halaber, industria-lankidetzaren lehen fasean erabiltzeko baimena ematen da, fase honetan parte hartzen duten beste enpresek parte hartzen badute esportazioak eta bidalketak edo inportazioak eta ekipamendu eta osagaien sarrerak egiten direnean.

Defentsarako Materialen Transferentzia Intakomunitarioentzako Lizentzia Orokorra 28. artikuluan azaltzen da. Baimena ematen du bidalketa-kopuru mugagabea hartzaile bati edo gehiagori eta Europar Batasuneko edo Europako Gune Ekonomikoko herrialde batera edo gehiagori denbora-mugarik gabe egiteko. Defentsa arloan bitartekaritza-zerbitzuak emateari dagozkion eragiketak ez dira barnebiduko. Beraz, bost modalitate aurkitzen ditugu: hartzailea Europar Batasuneko edo Europako Gune Ekonomikoko edozein herrialdetako Indar Armatuak parte hartzen dutenean edo defentsa inguruko kontratazio-organoa denean, eskuraketak egiten dituen Estatu Kide baten Indar Armaturen erabilera eskusiborako; hartzailea Europar Batasuneko edozein herrialdetako agintariak egiaztatutako enpresa bada; transferentzia aldi baterakoa denean eta erakustaldi, ebaluazio eta erakusketa helburuetarako egiten denean; mantentze eta konponketa helburuetarako egiten denean; azkenik, transferentzia Estatu Espainiarraren Defentsa-Ministerioak eta enpresek NATOren jardueretan eta operazioetan parte hartuko dutenean.

Azkenik, Defentsa Materialen Osagaien Transferentziarako Lizentzia Globala 29. artikuluan aurkitzen da. Baimena ematen du defentsa-materialaren osagai, azpisistema eta ordeko piezen bidalketa-kopuru mugagabea egitea, hartzaile bati edo gehiagori eta herrialde bati edo gehiagori, zehaztuak agertu beharko direnak, baimendutako gehienezko balioarekin eta hiru urteko balio epean. Erabiltzaileak 2000ko uztailaren 27ko Esparru-hitzarmena sinatu duten Estatuetakoa Indar Armatuak izan beharko dira, bai eta alderdi diren Estatuetan aurkitzen diren pertsona juridikoak, betiere dagokion Estatuak hura aitortu beharko du onuradun gisa.

Bere aldetik, Aurretiko Hitzarmena 27. artikuluan aurkitzen dugu. Orokorrean, exekuzio epe luzea eskatzen duen bolumen jakin bateko kontratua negoziatu edo sinatu behar denean eskatzen da, hasieratik Administrazioaren aldetik onespena behar duena, gehienez hiru urteko indarraldiaren barnean. Betiere, ebazpenari egokitzen zaion transferentzia lizentzia lortu beharko da. Gainera, hau ezinen da erabili merkantziak aduanatik ateratzeko.

Autorizazioekin jarraituz, Europar Batasunerako Erabilera Bikoitzeko produktuen eta teknologien Esportazioendako Autorizazio Orokorrak 25. artikuluan azaltzen dira. Hauek bat egiten dute 428/2009 Erreglamenduko 9.1 artikuluekin, zeinek erreferentzia zuzena egiten duen II.a eta II.f arteko Eranskinetan aurkitzen diren material zerrendatuei.

Artekaritzarako Autorizazioak 26. artikuluan aurkitzen dugu, Erreglamenduaren 2.1.c) artikuluekin lotuta dagoena. Egoera hauen aurrean egonda, Merkataritzarako Estatu Idazkaritzaren idatzizko baimena beharko da, behin Defentsarako eta Erabilera Bikoitzeko materialen kanpo-merkataritza arautzen duen Ministerio-Arteko Batzordearen txostenaren eskuratuta.

Behin baimena eskatuta, azken fasea geratzen da, eskakizuna onartzea eta autorizazioa eskuratzea. Orokorrean Industria, Turismoa eta Merkataritza Ministerioa izanen da autorizazioak eskuratzeko eskuduntza duena, Atzerriko Merkataritzaren Idazkaritza Orokorrean hain zuzen ere izanen da administrazio-organoa, Erreglamenduaren 5. eta 30.3 artikuluek adierazten duten bezala. Baina, Legearen 14.1 eta Erreglamenduaren 18.1 artikuluen harira, eskuduntza hau berez formala da, Defentsarako eta Erabilera Bikoitzeko materialen kanpo-merkataritza arautzen duen Ministerio-Arteko Batzordeak txostena igorri beharko du, loteslea izanen dena.

Hortaz, esportazioek esku-hartze administratiboaren menpe daude, hau gertatzeko autorizazio-administratiboa behar baita. Defentsarako eta Erabilera Bikoitzeko materialen kanpo merkataritza arautzen duen Ministerio-Arteko Batzordeak, Industria, Turismo eta Merkataritza Ministeriora funtzionalki erantsita dagoena, defentsa eta erabilera bikoitzeko materialaren kanpo-merkataritzari lotutako eragiketak ebaluatzen dituen Estatuko organo goren da, autorizazioak baimentzen dituena. Legearen 13. artikulua bere osarari buruz aritzen da, eta 14. artikuluan hauen funtzioen inguruan, baina, oinarrizko informazioa ematen du, geroago, Erreglamenduan, 17. eta 18. artikuluetan aurkitzen dugu honen garapena. Bigarren honetan Organoaren funtzio ugari

aurkitzen ditugu, jadanik ikusi egin ditugunak: administrazio-baimenei eta aurreko-hitzarmenei buruzko txostenari buruz informatzea, bai eta horiek zuzentzea, etetea edo baliogabetzea, baita Erregistro Berezian inskribatzeko eskaerei buruz ere; araudian beharrezkoak iruditzen zaizkion aldaketei buruz informatzea; Erreglamenduaren 7.1 artikulua⁸⁷ kontutan hartuta txostenak eskuratzea; Erregistro Berezian inguruko inskripzioen txostenak ebaluatuko ditu; Merkataritzarako Estatu idazkariak autorizazioa eskuratu baino lehen, informazio gehiago eskatu dezake; eta Erreglamenduaren 18.6. artikuluan zerrendatutako kasutan, aurretiko-txostena eta kontrol-dokumentuak salbuetsi dezake.

Orain, dagoeneko azaldutako kontrol salbuespenak eratzen duen arazoaz gain, Batzordearen osieran problemak ikus ditzazkegu. Mahaiburua Ekonomia eta Lehiakortasun Ministerioiko Merkataritzako Estatu-Idazkaria da eta mahaiburu-ordea Atzerriko Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioiko Estatu-Idazkaria. Ondoren zortzi kide dauzkagu: Atzerriko Politikako eta Alde Anitzeko Gaietako, Gai Globaletako eta Segurtasuneko Zuzendari- Nagusia (Kanpo Arazoetarako eta Lankidetzarako Ministerioa), Armamentu eta Materialen Zuzendari-Nagusia (Defentsa-Ministerioa), Zerga Administrazioiko Estatu Agentziako Aduanen eta Zerga Berezien Departamentuko Zuzendaria (Ogasun eta Administrazio Publikoen Ministerioa), Guardia Zibilaren Zuzendari-Nagusia (Barne-Ministerioa), Poliziaren Zuzendari-Nagusia (Barne-Ministerioa), Idazkari Tekniko Nagusia (Industria, Energia eta Turismoko Ministerioa), Inteligentzia Zentro Nazionaleko Inteligentzia-Zuzendaria (Presidentziaren-Ministerioa) eta Nazioarteko Merkataritza eta Inbertsioen Zuzendari-Nagusia (Ekonomia eta Lehiakortasun Minsiterioa). Azkenik, Organoaren Idazkari bezala jardungo duena, Defentsa eta Erabilera Bikoitzeko Materialen Nazioarteko Merkataritzako Zuzendariorde-Nagusia (Ekonomia eta Lehiakortasun Minsiterioa), ahotsa izanen duenak bileretan, baina ez bozkatzeko eskubidea.

⁸⁷ 1. Las autorizaciones [...] podrán ser suspendidas, denegadas o revocadas, por resolución dictada por el titular de la Secretaría de Estado de Comercio, en los supuestos siguientes: a) Cuando existan indicios racionales de que el material de defensa [...] puedan ser empleados en acciones que perturben la paz [...]. b) Cuando se contravengan los intereses generales de seguridad, de la defensa nacional y de la política exterior del Estado. c) En aquellos casos contemplados en el artículo 6 o en [...] 7 del Tratado sobre el Comercio de Armas [...] d) Cuando vulneren las directrices acordadas en el seno de la Unión Europea, en particular los criterios de la Posición Común 2008/944/PESC del Consejo [...] e) Cuando se contravengan las limitaciones que se derivan del Derecho Internacional y del Derecho de la Unión Europea, como la necesidad de respetar los embargos decretados por Naciones Unidas y la Unión Europea, entre otras. f) Cuando existan razones de protección de los intereses esenciales de seguridad nacional o de orden público se podrán revocar [...].

Behin osaera ikusita, argi ikus daiteke merkantzia-interesen nagusitasuna eta lehentasuna, nazioko defentsa- eta barne segurtasuneko-interesen agerpen urriarekin. Aipagarria da armagabetze, giza-eskubideen eta nazioarteko kooperazioaren inguruko eskuduntza daukaten administrazio-organoen gabezia, hala nola, Nazio Batuen Erakundearen, giza-eskubideen edo organismo multilateralen Zuzendari-Nagusiak, Terrorismo Ez-Ugaritze eta Armagabetze Nazioarteko Arazoen Zuzendaritza-Nagusiak, edo Nazioarteko Kooperazioaren Estatu-Idazkaritza. Beraz, ez dira interes hauek bermatzen, ez badaude material adituak diren norbanakorik gai hauetan eskumena daukaten organorik ordezkatzeko. Azken finean, Batzordea defentsa eta erabilera bikoitzeko, erabilpen polizialaren edo segurtasunezkoen esportazioa faboratu nahi dute⁸⁸.

Estatu Espainiarraren esportazio araudia, gerraren-industria sustatzeko gobernu-politikaren mekanismo bat da, enpresa esportatzaileen interesei lehentasuna ematen diena. Guzti hau, gainera, sekretismoak bermatzen du, esportazio eta salmenta operazioak sekretu gisa sailkatzen baitira, baita Batzordearen akten edukia ere, orain ikusiko dugun bezala⁸⁹.

3.3. 9/1968 Legea. Sekretu Ofizialei Buruzko Legea.

1968ko apirilaren 6an jarri zen 9/1968 Legea⁹⁰ indarrean, informazio sentikorra arautzea du helburu, horren ezagutza publikoa Estatuaren segurtasun eta defentsarako arriskutsua izan baitaiteke. Hamar urte ondoren, 1978ko urriaren 11an erreformatu egin zuten. Erreforma honen aurretik, sailkatutako gai bezala izendatu zitezkeen kasuak askoz zabalagoak ziren, aukera ematen baitzen “comprometa los intereses fundamentales de la Nación en materia referente a la defensa nacional, la paz exterior o el orden constitucional” bezalako gaiak sailkatu zezakeen erregimenak, hau da, aukera zeukaten gustukoa ez zen edozein informazio zentsuratzeko. Erreformarekin sailkatu daitezkeen gaien zerrenda laburtu zuten, gaur egun, 2. artikulua dioenez, sailkatutako gai bezala izendatu ahalko dira, baimendu gabeko pertsonen eskuetan Estatuaren segurtasunari edo defentsari kalte egin diezaioketen edo hura arriskuan jar dezaketan asuntoak, egintzak, agiriak, informazioak, datuak eta objektuak.

⁸⁸ MELERO ALONSO, E. “La Administración y el comercio exterior del material de defensa y los productos y tecnologías de doble uso”, MUÑOZ MACHADO, S. *Derecho de la regulación económica* liburuan. Iustel, Madril, 2009, 25. znb., 807-808 orrialdeak.

⁸⁹ MELERO ALONSO, E. “La Administración y el comercio exterior del material de defensa y los productos y tecnologías de doble uso”. op. cit, 823. orrialdea.

⁹⁰ «BOE» 84. znb., 1968ko apirilaren 6a.

Ikusiko dugunez, kritika asko jaso duen legea izan da, batez ere arma eta erabilera bikoitzeko produktuen esportazioari dagokionez, Lege honen ziurgabetasunak eta inkongruentziak direla eta. Berak adierazten duen bezala, nahiz eta Estatu Espainiarrean sekretuen inguruko kontrol juridikoa egon, egun honen intentsitatea eztabaidatzen da. Auzitegi Gorenaren 1997ko apirilaren 4ko epaiak⁹¹ kontrol honen puntu gorenak ezartzen ditu, “CESID-ren paperak” bezala ezagutzen den kasua⁹². Deskalifikatu nahi den dokumentazioa, legearen eta Konstituzioaren arabera, Estatuaren segurtasunari eta defentsari eragiten dion dokumentazioaren parte da, eta, horregatik, sekretu izaera zeukaten, Dena dela, deskalifikatu behar zen, bestela, prozesu penaletan babes judicial eraginkorra izateko eskubidea urratuko zen.

Gaiak sailkatzeko, isilpekotzat edo sailkatutzat jotzeko eskumenari dagokionez, 4. artikulua Ministro Kontseiluak eta Estatu Nagusiko Buruen Batzordeak eskumena daukatela adierazten du. Ministro Kontseiluaren 1986ko azaroaren 28ko Erabakiaren bigarren puntuan⁹³, isilpekotzat sailkatzen dira armamentuaren, munizioaren eta gerrako materialaren ekoizpena, erosketa, hornidura eta garraioa. Honek, argi uzten du armen eta erabilera bikoitzeko produktuen esportazioak sustatzea interesatzen zaiela, Estatu Espainiarrean diru-sarrera handiak eskuratzea ahalbidetzen duena.

Baina, 10. artikulua salbuespen bat jasotzen du bigarren atalean, horrela, sailkatutako gaien izendapenak ez du eraginik izango Diputatuen Kongresuarentzako edo Senatuarentzako, hauek eskatzen duten informazio guztiaren inguruan beti izanen dute hau eskuratzeko aukera eta. Beraz, ganberen jarrera aktibo eta interesatu bat kontrol mekanismo baliagarria izan daiteke, betiere, erreglamenduetan adierazitakoarekin bat

⁹¹ Auzitegi Gorenaren (Hirugarren Gela, Administrazioekiko Auziarena) 1997ko apirilaren 4eko Epaiak. RJ 1997\4515 [ARANZADI DIGITAL].

https://insignis.aranzadidigital.es/maf/app/document?srguid=i0ad82d9b0000018090214746e521237d&marginale=RJ\1997\4515&docguid=Iaaa3c1b0f5c611db9ce501000000000&ds=ARZ_LEGIS_CS&infotyp e=arz_juris:&spos=1&epos=1&td=5&predefinedRelationshipsType=documentRetrieval&fromTemplate=&suggestScreen=&&selectedNodeName=&selec_mod=false&displayName= (Azken bisita (2022/05/04)).

⁹² MELERO ALONSO, E. “El control judicial de los secretos de Estado en España. A propósito de las exportaciones de armamento”. *Medellin-go unibertsitatea*, 7, 14. znb., 2008, 17.orr.

⁹³ Segundo [...] clasificación de RESERVADO : a) Los destinos de personal de carácter especial. b) Los planes de seguridad de Instituciones y organismos públicos [...] Fuerzas Armadas y de los Centros de Producción de material de guerra. c) Los planes de protección de todas aquellas personas sometidas a [...] las Fuerzas Armadas. d) Las investigaciones y desarrollos científicos o técnicos de carácter militar [...] e) La producción, adquisición, suministros y transportes de armamento, munición y material bélico. f) Las concepciones, informes individuales y sanciones del personal militar. g) Las plantillas de personal y de medios y de equipo de las Unidades.

http://www.madrid.org/archivos/images/AREA_PROFESIONAL/Legislacion_archivistica/EST_Acuerdo_Consejo_Ministros_SSOO_28-11-1986.pdf (Azken bisita (2022/05/04)).

egiten badu, eta bilera sekretuan ospatzen bada. Baina ganbera horietan erabakitzen denaren mende egongo da beti, eta babes parlamentario nahikoa edo gutxienekoa beharko du.

Legearen 9. artikulua sailkatutako gai batek bide ematen duenean uste izateko gerta litekeela hedabideek haren berri jakitea, gai sekretu edo isilpekotzat sailkatuta dagoela jakinaraziko zaiel hedabideei adierazten da honen bigarren atalean. Artikulu hau 13. artikuluekin batera interpretatu behar dugu, sailkatutako gaiak jakinaraztea, hedatzea edo argitaratzea debekatzen duena, bestela, ondorioz, zigorrak edo zehapenak eragin ditzazkete eta.

Behin sailkatuta, jurisdikzioaren kontrolpean egonen dira, administrazioarekiko-auzi ordenaren kontrolpean hain zuzen ere. Hiru maila ezberdintzen dira: defentsa nazionalari eta Estatuaren segurtasunaren ingurukoa izatea; hiritarrek informazio hau ezagutzeak Estatuaren segurtasunak eta defentsak hondatzearen edo arriskuan jartzearen inguruko probabilitate-judizioa; eta gatazkan dauden ondasun juridikoen eta interesen inguruko haztapen-judizioa⁹⁴.

Lehendabiziko mailari dagokionez, defentsa nazionalari eta Estatuaren segurtasunaren ingurukoa izateak, bat egiten du Legearen 2. artikulua azaldutako egoera. Auzitegi Gorenaren 1997ko apirilaren 4ko epaiak, kontzeptu hau “judizialki eskuragarria den kontzeptua” bezala zehaztu zuen, hau da, auzitegiek izanen dira egoera honen aurrean aurkitzen ez garela erabakiko dutenek. Beraz, auzitegiak, defentsa nazionalari eta Estatuaren segurtasunaren inguruan aritzen dela ulertzen badu, sailkapena legez-aurakoa deklaratu du, beraz, ez da beharrezkoa izanen hurrengo maila edo mailak aztertzea⁹⁵.

Bigarren mailan, hiritarrek informazio hau ezagutzeak Estatuaren segurtasunak eta defentsak hondatzeak edo arriskuan jartzeari dagokionez, auzitegiek bakarrik kontutan izanen dute informazioak eraginak duela. Probabilitate-judizio bat gertatu behar da, lehenengo kasuan gertatzen den bezala, “judizialki eskuragarria den kontzeptua” izan behar zena. Judizioaren osagai nagusi bat sailkapenaren zergaitiaren kontrola lirateke, Auzitegi Gorenak, 1998ko urtarrilaren 30ko epaian, zera espreski arakatu egin zuen. Judizio honen emaitzak hiru izan daitezke: hiritarrek informazio hau Estatuaren

⁹⁴ MELERO ALONSO, E. “El control judicial de los secretos de Estado en España. A propósito de las exportaciones de armamento”, *op. cit.*, 21. orr.

⁹⁵ MELERO ALONSO, E. “El control judicial de los secretos de Estado en España. A propósito de las exportaciones de armamento”, *op. cit.*, 21.orr.

segurtasuna eta defentsa hondatzen edo arriskuan jartzea; ezagutzak Estatuaren segurtasuna eta defentsak ez hondatzea edo arriskuan ez jartzea; edo posiblea dela hau hondatzea edo arriskuan jartzea. Posibilitatearen emaitzak 2. artikulua bermatzen du legez-aldeko sailkapentzat ulertzeko “pueda dañar o poner en riesgo”, informazio eskubidearen aurka egiten duena ulertu daitekeena⁹⁶.

Azkenik, hirugarren mailan, ponderaketa-judizioaren bidez aurkituko da erantzuna. Ponderaketa zera da, eskubide, printzipio eta ondasunen arteko gatazkak konpontzeko hiru fase biltzen dituen metodoa⁹⁷. Lehendabizi, gatazkan aurkitzen dena identifikatu behar da, ondoren, bakoitzari garrantzia maila ezberdin bat erantsiko zaio eta, azkenik, nagusitasuna zeinek daukan ezarriko da. Atzera egiten duen printzipioaren kalte-maila zenbat eta handiagoa izan, orduan eta handiagoa izan behar du kasu jakin horretan nagusitzen denaren garrantzia. Auzitegi Gorenaren 1997ko apirilaren 4ko epaian, Estatuaren segurtasun eta defentsaren, eta delituarengatik kaltetuak atera ziren pertsonen babes judizial eraginkorraren eskubidearen arteko ponderaketa egin zen. Estatuaren segurtasuna tartean ez zeuden dokumentuak, eta epaile-instruktorearen ikerketarekin bat zetorrenak, desklasifikatu egin ziren⁹⁸.

Behin kontrol judiziala ikusita, armen esportazioen inguruko datuen sailkapenak ikertuko ditugu, zergatik legez-aurkakoak diren hain zuzen ere.

Defentsaren Berrikuspen Estrategikoan⁹⁹ Estatuaren segurtasun interesak, defentsa esfortzua behar duten interesak bezala zehazten ditu, ezinbestekoak, estrategikoak edo bestelakoak izan daitezkeenak. Ezinbestekoak diren interesak, oinarritzkoak dira Estatu Espainiarra nazio bezala bizirauteko, hala nola, subiranotasuna, Estatu Espainiarraren eta honen ordenamendu juridikoaren independentzia eta lurralde integritatea eta hiritarren askatasuna, bizitza eta oparotasuna. Interes estrategikoei dagokionez, ezinbestekoak bermatzen laguntzen dute, esaterako, egonkortasuna

⁹⁶ MELERO ALONSO, E. “El control judicial de los secretos de Estado en España. A propósito de las exportaciones de armamento”, *op. cit.*, 22.orr.

⁹⁷ MELERO ALONSO, E. “El control judicial de los secretos de Estado en España. A propósito de las exportaciones de armamento”, *op. cit.*, 23. orr.

⁹⁸ RODÍGUEZ, J. M. *La ponderación de bienes e intereses en el Derecho Administrativo*. Marcial Pons, Madril, 2000.

⁹⁹ Testu honetan bertan adierazi dutenez, Estatu Espainiarreko Defentsa politika gidatzen du. Nazioarteko egoeraren arabera, neurri handi batean nazioaren aurrean irekitzen diren eta, honen ingurunearen bilakaeraren mende dauden aukera estrategikoak zehaztuko dituzten baldintzak hausnartu eta aztertzen duen dokumentua da. <https://www.defensa.gob.es/Galerias/defensadocs/revision-estrategica.pdf> (Azken bisita (2022/05/04)).

mantentzea NATOren eta Europar Batasunaren eskutik, Mediterraneoaren bakea eta oreka mantentzea, harreman eta komunikazioen askatasuna, oinarrizko-errekurtsoen horniketa aseguratzea, terrorismoaren akatzea, eta Gibraltarren gaineko subiranotasuna berreskuratzea. Azkenik, segurtasunarekin lotura daukaten bestelako interesak, ez daukate lotura zuzena, indarraren erabilera behar izan dezakete kasuan-kasu, baina ez dira lehentasunezkoak. Hauen adibide argiak, beste Estatuaren egoerarekiko solidaritatea eta giza-eskubideen errespetua dira.

Beraz, ikus dezakegunez, armen nazioarteko merkataritza ez da espreski Estatuaren segurtasun interesetan barnebiltzen. Baina, honek ez du esan nahi lotura handia ez izateak, defentsa industria eta nazioarteko merkataritza kontutan hartzen baditugu. Berez, sailkapenek, esportazioen sustapenarentzako tresna-politikoak bezala ulertu ditzazkegu. Defentsaren Berrikuspen Estrategikoak, armen nazioarteko merkataritza, arma-merkatuaren ezaugarriek zehazten dute sailkatu beharra, ez Estatuaren defentsaren eta segurtasunaren babes-beharrek. Azken ezaugarri hau oso kritikagarria da, ez baditu kontutan izaten armagintzak lehen adierazi ditugun bake eta segurtasunari eragin diezaioken ondorioak. Hortaz, azken finean, sekretuaren xede nagusia, administrazio-lizentzien edo baimenen gaineko kontrol eraginkorra eragozte da. Honen inguruan, konklusio moduan, zera adierazten du, urruneko konexioa dago armen merkataritzaren eta estatuko segurtasun interesen artean. Bere ustez, informazioaren ezagutza publikoak ezin du estatuaren segurtasuna eta defentsa kaltetu edo arriskuan jarri, hau da, printzipioz, sailkapena legez-aurkakoa lirateke¹⁰⁰.

Sailkapenaren aurka egiten duen beste adibide bat berriak dira. 9 eta 13.artikuluak kontutan izanda, Administrazioak berak arriskua antzemango balu, 9.2 artikuluak eskuratzen dion tutela erabili beharko luke hedabideek informazio hau ez hedatzeko. Gainera, askotan Defentsa Ministerioak izaten da informazio hau hedatzen duena, beraz, berriz ere, honen inguruko jakintasunak ez du ondoriorik eragiten Estatuaren segurtasunean edo defentsan.

¹⁰⁰ MELERO ALONSO, E. “El control judicial de los secretos de Estado en España. A propósito de las exportaciones de armamento”, *op. cit.*, 24-25 orr.

Hortaz, zera ulertu daiteke guzti hau ikusita, sekretuek hiritarren aurka egiten duela lirateke, ez hauen interesak babesteko. Bermatzen eta babesten diren interes bakarrak guda-industriarenak baitira¹⁰¹.

3. 4. 5/2005 Lege Organikoa. Defentsa Nazionalaren Lege Organikoa

5/2005 Lege Organikoa¹⁰², indarretan dagoenetik aldaketak jaso ez dituenak, defentsa nazionala arautzen du eta erakunde militarren oinarriak ezartzen ditu, Konstituzioan ezarritako printzipioen arabera, horrela adierazten du legeak 1. artikuluan honen xede bezala. 2008. urtean, Defentsarako Komisioak zera adierazi zuen lege honen inguruan, espainiar soldaduek, nazioarteko legezketasun-abalik eta Legebiltzarraren babesik gabe Estatu Espainiarreko mugatik ez ateratzea dela helburua. Doktrinaren aldetik legearen aplikazioa eta arriskuen kritika sakona egiten da, legeak itzal-eremu zabal bat jasotzen du eta, non bidezko-defentsa zabaltzen, interes nazionalekin lotura daukaten eraso ekimenak onartzen eta gizaldeko esku-hartzea bermatzen diren¹⁰³.

5. artikulua arabera, Gobernuak eskumena dauka indar armatuek espainiar lurraldearen aldetik parte-hartzeko. Baina, 17.1 artikulua harira, aurretik Parlamentuaren onespena behar izanen du, bakarrik operazioak ez badaude nazioaren interesekin edo Estatuaren defentsarekin zuzenean lotuta. Hauek, 19. artikulua dioenez, baldintza jakin batzuk bete beharko dituzte, hala nola, Segurtasun Kontseiluaren erabakiek mugimendu hori onartuta, edo Estatu Espainiarrak alderdi den nazioarteko erakunde batek horrela erabaki duelako - NATO eta Europar Batasuna -, bestalde, Nazio Batuen Fundazio Gutuna errespetatu beharko dute, eta ezinen dituzte nazioarteko zuzenbidearen printzipioak urratu. Baina, kontutan izan behar dugu 16. artikulua adierazitakoa, esku-hartze hauek bakarrik defentsarako izan daiteke eta, horrela ezartzen baitu Konstituzioaren 8.1 artikulua¹⁰⁴.

Beraz, gobernuak ez dauka askatasun osoa parte-hartzeak erabakitzeko, limite prozedimentalarekin - Ministroen Kontseiluaren aurretiko onarpena behar du - eta limite materialarekin - operazioak autorizatuak egon beharko dira nazioarteko erakunde baten

¹⁰¹ MELERO ALONSO, E. "El control judicial de los secretos de Estado en España. A propósito de las exportaciones de armamento", *op. cit.*, 29-39. orr.

¹⁰² «BOE» 276. znb., 2005ko azaroaren 18a.

¹⁰³ MELERO ALONSO, E. "¿Se han legalizado las `guerras de agresión´ en España?". *Herri-Ardularitzarako Euskal Aldizkaria*, ISSN 0211-9560, 83. znb., 2009, 92. orr.

¹⁰⁴ 1. Las Fuerzas Armadas, constituidas por el Ejército de Tierra, la Armada y el Ejército del Aire, tienen como misión garantizar la soberanía e independencia de España, defender su integridad territorial y el ordenamiento constitucional.

eskutik eta ezin dute nazioarteko zuzenbidearen aurka egin - topatuko dira eta. Baina, bakarrik nazioaren interesari edo defentsari lotutak ez dauden esku-hartzeaz ari gara, beraz, kanpoan uzten dira lotutak dauden horiek. Hauetarako ez da eskatzen aurretiko Parlamentuaren onespena ez 19. artikuluko baldintzak betetzea eskatzen¹⁰⁵.

Kontutan izan behar dugu lotutak dauden operazioek Nazio Batuen Fundazio Gutunaren eta Estatu Espainiarraren Konstituziora errespetatu behar dituztela, baina, hau ez da legean espreski adierazten. Gutunak espreski debekatzen du mehatxua edo indarraren erabilera nazioarteko erlazioetan erabiltzea 2.4 artikuluan¹⁰⁶. Izan ere, 51. artikuluko¹⁰⁷ salbuespenak aurkitzen ditugu. Alde batetik, banakako edo taldeko bidezko-defentsa - prebentiboa izan ez daitekeena - eta, bestetik, Segurtasun Kontseiluak neurriak hartzeak. Bidezko-defentsa bakarrik eraso armatu bati aurre egiteko arrazoitu daiteke, eta hiru ezaugarri bete beharko ditu. Hateko, erantzuna berehalakoa izan beharko da, hau da, une horretan gertatzen ari den eraso bati aurre egin behar dio. Bestalde, proportzionaltasunarekin egiten da, erasoaren eta erantzunaren artekoa izan behar dena. Azkenik, behin-behinekoa izan behar du, Segurtasun Kontseiluak nazioarteko segurtasuna eta bakea mantentzeko neurriak hartzen ez dituen bitartean erabili daiteke. Hortaz, ezinen da arrazoi prebentiboengatik erabili, alegia, Estatuak ezin dezakete sufrimendua gertatzeko aukeraren aurrean bidezko-defentsa argudiatu¹⁰⁸.

Honekin lotuta, Defentsaren Berrikuspen Estrategikoan adierazten dena azpimarratu behar da: “Para impedir cualquier tipo de agresión, las FAS deberán realizar acciones de prevención, disuasión y todas aquellas que contribuyan al control de una crisis, evitando que ésta desemboque en un conflicto armado. Asimismo, aquí debe considerarse cualquier acción armada preventiva dirigida, como último recurso, a evitar la agresión.” Hortaz, deklarazio honek legearen interpretazio zabalari gehituta, Estatu

¹⁰⁵ MELERO ALONSO, E. “¿Se han legalizado las `guerras de agresión´ en España?”, *op. cit.*, 94. orr.

¹⁰⁶ The Organization and its Members [...] shall act in accordance with the following Principles: 4. All Members shall refrain in their international relations from the threat or use of force against the territorial integrity or political independence of any state, or in any other manner inconsistent with the Purposes of the United Nations.

¹⁰⁷ Nothing in the present Charter shall impair the inherent right of individual or collective self-defence if an armed attack occurs against a Member of the United Nations, until the Security Council has taken measures necessary to maintain international peace and security. [...] shall be immediately reported to the Security Council and shall not in any way affect the authority and responsibility of the Security Council [...] to take at any time such action as it deems necessary in order to maintain or restore international peace and security.

¹⁰⁸ MELERO ALONSO, E. “¿Se han legalizado las `guerras de agresión´ en España?”, *op. cit.*, 98-99. orr.

Espainiarrak, legez, bidezko-defentsa prebentiboa erabili dezake, Gutunean erregulatutakoa guztiz eraldatzen duena¹⁰⁹.

Lege Organiko honek guda legezkorra bihurtzen du, interes politikoak, ekonomikoak, merkataritzakoak edo industrialak bermatzeko. Baina, kontutan hartzen badugu guda hauen biktimak zibilak direla, lege honek gerra eta hauen inguruko merkataritzak - armena batez ere - giza-eskubideen gaintik legitimatzen du¹¹⁰.

III. NAZIOARTEKO ZEHAPENAK.

Nazioarteko zehapenei buruz hitz egiten dugunean, legezko neurriei buruz ari gara, Nazio Batuen Erakundeak, integrazio ekonomikorako prozesuetako erakundeek edo beren kabuz zenbait herrialdek erabakitzen dituztenak erabakia hartzen dute atzerriko Estatu, gizarte-talde eta talde politiko edo pertsona fisiko zein juridikoen aurka, bai partikularrekiko bai erakunde publikoekiko harreman ekonomikoetan eragiten dutenean. Orokorrean lortu nahi den xedea politikoa da, dena dela, ekonomikoak izan daitezke zenbait kasutan.

Zehapen mota ezberdinak aurkitzen ditugu: Armamentuarekin eta errepresioarekin zerikusia dutenak, Zerrenda Militar Bateratuan edo Erabilera Bikoitzeke Zerrendan zerrendatutako ondasunak esportatzea, baita errepresiorako tresnak eta telekomunikazioak interzeptatzeko bitartekoak ere debekatzen dute; ondasunen esportazioarekin zerikusia dutenak (industria-metalak, metal preziatuak, garraioibideak, petrolioia erauzteko makineria, etab.), batzuetan, murriztapenak ustegabeko ondasunetara iristen dira, xaloak bezala ulertu dezakegunak eguneroko bizitzan (zura, luxuzko ondasunak, etab.), bestetan, zigortutako herrialdetik datozen inportazioak ere murrizten dira (petrolioia, gasa, etab); baliabide informatikoen eta softwarearen esportazioarekin zerikusia dutenak; bidaiatzeko murrizketak, Europar Batasunean sartzeko debekua adibidez; finantza-zehapenak (funtsak eta baliabideak ibilgetzea, finantzazioa jasotzeko debekuak, etab.); azkenik, neurri murriztaileek eragindako kontratuen inguruko eskaerak eta erreklamazioak errefusatzearekin batera, badira beste zehapen ezohikoago batzuk ere (ontzi jakin batzuk atrakatzeko mugak, karga-ikuskapen bereziak egitea, etab.).

¹⁰⁹ MELERO ALONSO, E. “¿Se han legalizado las ‘guerras de agresión’ en España?”, *op. cit.*, 102-103 orr..

¹¹⁰ MELERO ALONSO, E. “¿Se han legalizado las ‘guerras de agresión’ en España?”, *op. cit.*, 112. orr.

Herrialde jakin bati murrizketak ezartzen zaizkionean, horrek ez du esan nahi pertsona edo enpresa guztiak edo haien sektore ekonomiko guztiak zigortuta daudenik. Subjektu eta esparru ekonomiko jakin batzuei bakarrik ezarriko zaie zigorra, nahiz eta kasu batzuetan zehatutako pertsona fisiko eta juridikoen kopurua handia izan daitekeen, bai eta kaltetuak aterako diren esparru ekonomiko asko ere. Pertsona fisikoei dagokionez, orokorrean - gogoatu behar da kasuan kasuko inguruabarrak hartu behar direla kontutan- botere exekutiboa, legislatiboa eta juridikoak, Administrazioaren kideak, buru-militarrak eta -polizialak edo enpresariak. Esaterako, errepresioan edo legez-aurkako ekintzan parte hartu duen edozeinek. Pertsona juridikoei dagokionez, erakunde publikoak izanen dira zehatuak, baita zehatutako herrialdearen ekonomiarentzat ezinbestekoak diren sektorearen enpresak. Izan ere, nazioarteko zehapenek zuzenean eragiten ez dieten sektore ekonomikoei eragin diezaieke zenbait kasutan. Besteak beste, finantzazioa lortzeko, funtsak transferitzeko, ordezeko piezak eta piezak lortzeko zailtasunen ondorioz, zehatutako Estatuan inbertsio bat edo edozein jarduera ekonomiko egiteko edo mantentzeko zailtasunak agertu daitezke, nahiz eta zuzenean zehatuta ez dagoen sektore batean egon, hau da, zeharkako zehapenak lirateke¹¹¹.

Nazioarteko zehapenek era ezberdinetan eragin dezakete enpresaburuen jardueran, besteak beste, esportatzean, inportatzean, atzerrian inbertitzean, esportazio bat kobratu nahi dutenean. Hau da, aktiboak izoztuta dituen atzerriko enpresa bati ondasunak saltzen bazaizkio, esportazioa erabat legezkoa izan arren, esportatutako ondasunengatik kobratzea ia ezinezkoa izango da. Gainera, murrizketek edozein sektoreri eragin diezaioke, ez bakarrik armei edo erabilera bikoitzeko produktuei. Bestalde, zehapenen bat duen herrialde batetik edo herrialde batera mugatutako ondasunak inportatzea edo esportatzea kontrabando-delitua izan daiteke, kontrabandoaren errepresioari buruzko abenduaren 12ko 12/1995 Lege Organikoaren 2. artikuluan tipifikatzen den moduan¹¹².

Guzti honi *Secondary Sanctions*-ak gehitu behar dira, Amerikako Estatu Batuak ezarritakoak. Zigor ekonomikoen erabilera justifikatzeko elementu horiek beste interes nazional, ekonomiko eta estrategiko batzuekin konbinatzen dira, baita barne-politikako dinamikekin ere, batez ere lobbyek sustatuak. Zuzeneko zehapenek - edo primarioak -

¹¹¹ IRIARTE ÁNGEL, J. L. "Las sanciones internacionales y su incidencia en las operaciones transnacionales de comercio e inversión. Especial referencia a las restricciones impuestas por la Unión Europea". ÁLVAREZ RUBIO, J. J.; IRIARTE ÁNGEL, J. L.; BELINTXON MARTIN, U. *Representación aduanera y comercio internacional en el siglo XII liburuan*. Thomson Civitas, Nafarroa, 2022, 145-147 orr.

¹¹² IRIARTE ÁNGEL, J. L. Sanciones Internacionales - Negocios en Navarra. *LUCIPINO International Law Firm*, 2019.

portaera aldatzeko edo zigortutako gobernuak kentzeko balio ez dutenean, sarritan bigarren mailako zigorretara jotzen dute. Kanpo-politika ekonomikorako tresnak dira. Hirugarren herrialdeek, zigortutako erakunde edo Estatuarekin merkataritza- edo finantza-harremanik ez izatea bideratuta daude¹¹³.

Europar Batasunak Estatu Batuetako *Secondary Sanctions* delakoei erantzun die, eta blokeo-estatutu bat eratu egin zuen, Europar Batasuneko operadoreak babesteko xedez, baina, mekanismo honek eskaintzen duen babesa nahiko mugatua da: Europar Batasuneko lurraldean dauden ondasunak babesten ditu, baina inoiz ez Estatu Batuetakoak eta, hirugarren Estatuetan daudenei dagokienez, kasuan kasuko herrialdeko legeriak xedatzen duena bete beharko da. Era berean, Europar Batasuneko operadoreei *Secondary Sanctions*-ak jasateagatik kalteak eragiten dizkietenei demanda jartzeko aukera biltzen da, baina, demandatuak Europan ondasunak dituen zaila izanen da ezartzea, nazioarteko eskumen judizialeko gainerako foroak ez baidira oso eraginkorrak¹¹⁴.

Beraz, aktore bezala Nazio Batuen Erakundea, Europar Batasuna bezalako integrazio ekonomikorako prozesuetako erakundeak eta zeinbait Estatu dauzkagu. Oro har, Nazio Batuen Erakundeak ezarritako zehapenak errepikatuko dira Europar Batasunaren eta honetik kanpo aurkitzen diren beste Estatu batzuen bakarkako ekimenaren bidez.

Nazioarteko zehapenak kanpo-politikan asko erabiltzen diren tresna bihurtu dira azken hamarkadetan. Lehen kasu gutxi batzuetara mugatzen ziren, orain agintaldi zabala dute. Printzipioz, giza eskubideen urraketa larriei aurre egiteko, gatazka armatuetan alderdiei arma-salmenta geldiarazteko eta bake-negoiazioei laguntzeko erabiltzen dira. Dударik gabe, zigorrak gehiegi erabiltzea bigarren mailako ondorio negatiboak ekarri dituzte ere¹¹⁵.

¹¹³ LÓPEZ-LEVY, A. “Sanciones secundarias en el triángulo Estados Unidos-Unión Europea-Cuba”. *CIDOB d’Afers Internacionals Aldizkaria*, n.º 125, 2020, 89-91 orr.

¹¹⁴ IRIARTE ÁNGEL, J. L. “La Ley Helms-Burton y la respuesta europea a sus efectos extraterritoriales”. *Cuadernos Europeos De Deusto*, (63), 81-112, 2020. 109-110 orr.

¹¹⁵ IRIARTE ÁNGEL, J. L. “Sanciones Internacionales - Negocios en Navarra”. *LUCIPINO International Law Firm*, 2019.

1. Nazio Batuen Erakundeak ezarritako zehapenak.

Segurtasun Kontseiluak neurriak har ditzazke nazioarteko bakea eta segurtasuna mantendu edo berrezartzeko, Nazio Batuen Gutunaren VII. kapituluak horrela legitimatzen du eta. 41. artikulua hain zuzen ere indar armatua erabiltzea barneratzen ez duten behartze-aukera ugari biltzen ditu, ebazpenen bidez. 1966az geroztik, Segurtasun Kontseiluak 30 zehapen-erregimen ezarri egin ditu Hegoaldeko Rhodesia, Hego Afrika, Jugoslavia (2), Haiti, Irak (2), Angola, Rwanda, Sierra Leona, Somalia eta Eritrea, Eritrea eta Etiopia, Liberia (3), DRC, Yemen, Mali eta Hegoaldeko Sudan Estatuetan, baita ISIS, Al-Qaeda eta Taliban taldeen aurkakoak¹¹⁶.

Segurtasun Kontseiluaren zehapenek moldatzen joan dira, lortu nahi izan diren helburuen arabera. Zigor ekonomiko eta komertzialak bezalako zehapenetatik, arma-bahiturak, bidaiatzeko debekuak eta finantza-murrizketak edo ondasun jakin batzuen debekuetara eraldatu dira. Hau da, zehapen orokorretatik, azterketa ondoren erabakitakoak izatera pasatu dira, biztanleriarentzan hain bortitzak ez diren neurriak. Nazio Batuen Erakundeak azaltzen duenez, zigorrak ez dira aplikatzen, baizik eta arrakasta dute edo huts egiten dute. Erabateko eraginkortasuna dute nazioarteko bakea eta segurtasuna mantendu edo berrezartzeko, bakea mantentzea, sendotzea eta ezartzea barne hartzen dituen estrategia globalaren esparruan aplikatzen direnean. Oro har, lortu nahi diren helburuak Estatu baten edo estatala ez den entitate baten portaera jakin bat aldatzea - *coercing* -, honen maniobratzeko gaitasuna gutxitu edo jarrera ahuldu, beren porrot militarra lortzeko, irtenbide negoziatua emateko edo bake-akordio baten amaiera behartzeko - *constraining* - eta nazioarteko bakerako eta segurtasunerako mehatxua diren Estatuak edo estatalak ez diren entitateek publikoki salatzea - *signalling* - izaten dira¹¹⁷.

Prozedimendua zera da, Segurtasun Kontseiluak ebazpen bat eman behar du, zeinetan bederatzi kide gutxienez baiezko botoa eman behar duten, non kide-iraunkorretatik batek ere ezezko botorik eman ezin duen. Zehapen jakin bat onartzen duten Segurtasun Kontseiluaren ebazpenek, aldi berean, *ad hoc* batzorde bat sortzen dute, zigorra behar bezala betetzen dela kontrolatzeko. Aldi berean, aditu-talde bat edo taldeak sortzen dira, zeregin nagusi bezala Batzordeari bere misioa edo xedea betetzen laguntzea izanen duena. Aditu-taldeak txosten bat aurkeztu beharko dio dagokion Zehapen

¹¹⁶ United Nations Security Council “ Security Council Consolidated List”.

<https://www.un.org/securitycouncil/content/un-sc-consolidated-list> (Azken bisita (2022/05/04)).

¹¹⁷ Ministerio de asuntos económicos y transformación digital “2022, febrero, Boletín sobre novedades de sanciones financieras”. (2022).

Batzordeari, hiru edo lau hilean behin, eta, era berean, Segurtasun Kontseiluari aldian-aldian txostena igorriko dio.

Segurtasun Kontseiluak onartutako nahitaezko neurriak erabat aplikatzeko betebeharra Estatu kideei dagokie, hau da, zehapenen ezarpena Estaturen eta beste erakunde batzuen ekintza legegile, administratibo eta judizialaren bidez emanen dira. Zehapenen arrakasta, neurri batean, Estatu askok haien barne-legeriara ekartzen badituzte eta beren aplikazioan parte hartzen badute izango da; Europar Batasunean eta Estatu Batuetan transposizioak garrantzi handia izanen dute benetako eraginkortasuna bermatzeko¹¹⁸.

Zehapen zerrendetatik ateratzeko aukerari dagokionez, edozein subjektu edo entitate eskatu dezakete. Hain zuzen ere, orokorrean ez da bat baino gehiagotan berdinak diren edo antzekotasun handia daukaten eskaerak egitea uzten, dena den, aipagarria den informazio berria gehitzen bada, onartuko da. Geroago ikusiko dugun moduan, NBEko zerrendatik ateratzeak, erraztuko du beste erakundeetako zerrendetatik ateratzea, honek nazioarteko mailan daukan eragina dela eta.

Hau gertatu ahal izateko, beharrezko prozedimendua eraman beharko da aurrera, hau da, Foku-Puntura jo edo Ombudsperson Bulegoaren aurrean aurkeztu beharko da. Lehengo bideari dagokionez, 1730 (2006) erabakian ezarri zen. Interesatuak foku-puntuan kentze-eskaera aurkeztu beharko du, zeinak eskaera bera jadanik ezeztatu ez dela egiaztatu beharko duen, horrela bada eta ez badu informazio gehigarririk bere edukian, atzera egingen du eskaera. Horrela ez bada, berria bada eta informazio berria edukitzen badu, residentea edo nazionala den Estatuaren gobernuari igorriko dio, informazio moduan, bere iritzia adierazi ahal izateko¹¹⁹.

Ombudsperson Bulegoaren bideari dagokionez, interesatuak alegazioak eta frogak aurkeztu beharko ditu, non zehatutako jardueretan parte hartzen ez duela argi uzteko. Hala nola, edozein modutan, zehatutako erakundeen edo haien laguntza-taldeen

¹¹⁸ IRIARTE ÁNGEL, J. L.; VIÑALS CAMALLONGA, J. M.; ESPARZA GUTIERREZ, T. “Prontuario de sanciones, 49 respuestas sobre el funcionamiento de las sanciones internacionales”. *Lucipino international law firm*. 2018, 37-38 orr.

¹¹⁹ United Nations Security Council. “Focal Point for De-Listing”
<https://www.un.org/securitycouncil/es/sanctions/delisting> (Azken bisita (2022/05/04)).

jardueretan laguntzea, armak edo trepetxoak ematea, haien aldeko errekrutatzea eta erakundeek gauzatutako bestelako ekintza edo jarduerak babestea¹²⁰.

Egun, 14 zehapen-erregimen daude indarrean erakunde honen eskutik: Somalia eta Eritrea, Irakeko eta Sortaldeko Estatu Islamikoa (Daesh), Al-Qaeda eta harekin elkartutako pertsona, talde, enpresa eta erakundeak, Irak, Kongoko Errepublika Demokratikoa, Sudan, Libano, Koreako Errepublika Demokratikoa, Libia, talibanak, Ginea-Bissau, Afrika Erdiko Errepublika, Yemen, Hego Sudan eta Iran.

1.1. Yemen

Udaberri-arabiarrarekin hasitako gatazkaren ondoren ezarri ziren zehapenak. Presidentea zen Saleh aurkako altxamendu batek boteretik kendu zuen, Hadi presidenteordearen esku uztera behartuz, Al-Qaedaren erasoei eta hegoaldean mugimendu separatistari aurre egin behar zionak. Egoera ikusita, hutiei yemeniar askok lagundu zieten. Errebeldeek Saná hiriburua hartu zuten, Hadi Saudi Arabiara ihesi eginez. 2015ean, Saudi Arabiak eta beste herrialde arabiar batzuek, Estatu Batuek, Frantziak eta Erresuma Batuak lagunduta, aireko erasoak bota zituzten hutien aurka, Hadiren gobernu berrezartzeko. Saudi Arabia NATOtik kanpoko aurkitzen den armamentu gehien saldu zitzaion bigarren herrialdea izan zen 2020ean, 32 milioi euroko fakturarekin, Estatu Espainiarraren armamentu-erosle nagusietako bat izanda.

Egoera ikusita, NBERen Segurtasun Kontseiluak zehapenak ezartzea erabaki egin zuen zenbait irizpideetan oinarrituta, Yemengo bakea, segurtasuna edo egonkortasuna mehatxatzen duten edo laguntza ematen dieten ekitaldietan parte hartzen duten pertsona edo entitateen aurka. Ekitaldi hauek anitz izan daitezke: trantsizio politikoko prozesua arrakastaz amaitzeak oztopatzea; Elkarrizketa Nazionalaren Biltzarraren azken txostenean agertzen diren emaitzak aplikatzen ez uztea, indarkeriara edo funtsezko azpiegituren aurkako erasoetara joz; giza eskubideen nazioarteko zuzenbidearen edo nazioarteko zuzenbide humanitarioaren xedapen aplikagarriak hausten dituzten edo Yemenen giza eskubideen urratuko dituzten egintzak planifikatu, zuzendu edo egitea; Armen bahitura selektiboa urratzea; Yemengo laguntza humanitarioaren hornidura edo

¹²⁰ IRIARTE ÁNGEL, J. L.; VIÑALS CAMALLONGA, J. M.; ESPARZA GUTIERREZ, T. “Prontuario de sanciones, 49 respuestas sobre el funcionamiento de las sanciones internacionales”. *Lucipino international law firm*. 40-44 orr.

laguntza horretarako sarbidea edo Yemengo banaketa oztopatzea; gatazka armatuan sexu-indarkeriako ekintzak egitea, edo honetarako haurrak errekrutatu edo erabiltzea.

Zehapenak hiru izan dira. Hasteko aktiboen izoztea, 2140 (2014) ebazpenaren¹²¹ 12. paragrafotik 14.era bitartekoetan eta 2511 (2020) ebazpenaren¹²² 3. paragrafoan ezarritakoa. Batzordeak izendatutako pertsona edo erakundeen, edo haien izenean edo haien jarraibideen arabera diharduten pertsona edo erakundeen, edo pertsona edo entitate horien jabetza diren edo haien kontrolpean dauden funts, finantza-aktibo eta baliabide ekonomiko guztiak izozteko betebeharra ezarriz. Ezin dira pertsona edo erakunde horien esku jarriko funts, finantza-aktibo edo baliabide ekonomikoak, eta ez dira haien onurarako erabiliko.

Bestalde, bidaiatzeko debekua, 2140 (2014) ebazpenaren 16. paragrafoan eta 2511 (2020) ebazpenaren 3. paragrafoan ezarritakoa. Batzordeak izendatutako pertsonak Estatuon lurraldeetan sartzea edo haietatik igarotzea debekatuz.

Azkenik, armen bahitura selektiboa 2511 (2020) Ebazpenaren 3. paragrafoan ezarritakoa. Estatu kide guztiek berehala hartu beharko dituzte beharrezko neurriak, zuzenean edo zeharka, pertsona eta erakunde izendatuei eta beren izenean edo beren zuzendaritzapean Yemenen diharduten pertsonen edo horietako baten alde beren lurraldeetatik edo haien nazionalen bidez horni, saldu edo transferi ez diezaieten, edo beren pabiloiko ontzi edo aireontziak, armak, armak eta ekipo erlazionatuak, edozein motatako ibilgailuak eta ekipo, baita beste edozein motatakoak ere, trebakuntza, laguntza finantzarioa edo bestelakoa, jarduera militarrei edo edozein armamentu eta material lotetsuen hornidura, mantentze-lanak edo erabilerari dagokienez, barne dela mertzenario armatuaren hornidura, bere lurraldekoak izan ala ez.

Dudarik gabe, nahiz eta zehapenen gaineko kontrola ezarri 2140 Batzordearen bidez, errealitatea beste bat izan da. 2022ko otsailean Arabiar Emirerri Batuak Segurtasun Kontseiluaren aurrean ebazpen bat aurkeztu egin zuten, errebeldeek Saudi Arabiaren eta hauen aurka egindako erasoak direla eta, 2624 Ebazpena¹²³ onartuz. Yemendik kanpo

¹²¹UN Security Council, *Security Council resolution 2140 (2014) [on the Middle East]*, 26 February 2014, S/RES/2140 (2014).

¹²²UN Security Council, *Security Council resolution 2511 (2020) [on the Middle East]*, 25 February 2020, S/RES/2511 (2020).

¹²³UN Security Council, *Security Council resolution 2624 (2022) [on the Middle East]*, 28 February 2022, S/RES/2624 (2022).

hutiei armak eta arma-osagaiak etengabe ematea gaitzesten du, 2216 (2015) Ebazpenak¹²⁴ ezarritako arma-enbargoaren urraketa dela eta. NBEko kide diren Estatu guztiei eskatzen die ahalegin handiagoa egin dezatela “combat the smuggling of arms and components through land and sea routes, to ensure the implementation of the specific arms embargo” xedez¹²⁵.

1.2. Libia.

Udaberri-arabiarrarekin hasitako gatazkaren ondoren ezarri ziren zehapenak ere. Muamar al Gdafiaren aurkako matxinadak gertatu ziren, boterean 42 urte zeramanak, eta hiritarren aurkako errepresio bortitza egin zuen. Ondorioz, Armadaren zati bat altxatu egin zen haren kontra. NATOren sarrera garrantzitsua izan zen, honi esker Tripoli, hiriburua, erori zen eta, ondorioz, diktadorea Sirte-ra joan zen, azken lurralde gadafistara zena, non erregimenaren erorketa eta Gadafiren hilketa eman ziren bataila baten ondorioz. Baina haren heriotzak ez zuen gatazkaren amaiera ekarri, botere-hutsune izugarria baizik. Trantsizioko Gobernuak ez zen gai izan egoerari aurre egiteko, eta militar liberalek talde islamistekin zeuzkan gatazkak mantendu ziren, gero eta botere handiagoa baitzuten, Estatu islamiarra eta Al-Qaeda bezalako aktoreak agertuz.

Denborarekin, Libiako gatazka nazioarteratu egin zen, eta atzerriko potentziak alderdiak babesten hasi ziren. Haftar indartsu mantendu zen, eta haren armadak Estatu Islamikoa Sirte-tik atera zuen, eta Tripoli hartzeko prest zegoen. Baina ez zen hala izan, Turkiak esku hartu zuen eta Haftar tropek atzera egin zuten. Gerraren higadura nabaria zen eta 2020ko urriaren 23an bi taldeek su-eten iraunkorra sinatu eta atzerriko tropak herrialdetik ateratzea erabaki zuten. Horren ondoren, trantsizioko Gobernu bat sortu zen, 2022ko urtarrilerako hauteskundeetarako deia egiteko helburua zuena, baina desadostasunek data atzeratu egin dute¹²⁶.

Testuinguruaren ondorioz, Nazio Batuen Erakundeak zenbait irizpideetan oinarritutako zehapenak ezartzea erabaki zuen pertsona zein talde edo entitate jakin

¹²⁴ UN Security Council, Security Council resolution 2216 (2015) [on the Middle East], 14 April 2015, S/RES/2216 (2015).

¹²⁵ Atalayar: “El Consejo de Seguridad de la ONU cataloga como terrorista a la milicia hutí y extiende el embargo de armas a todos sus miembros” (2022) <https://atalayar.com/content/el-consejo-de-seguridad-de-la-onu-cataloga-como-terrorista-la-milicia-hut%C3%AD-y-extiende-el> (Azken bisita (2022/05/04)).

¹²⁶ France24: “Libia, un país marcado por la guerra que ahora busca salir del conflicto”. (2022). <https://www.france24.com/es/programas/historia/20220221-historia-libia-haftar-gadafi-guerra> (Azken bisita (2022/05/04)).

batzuei: Libian pertsonen aurka giza eskubideak modu larrian hausteko agindua ematen, kontrolatzen edo zuzentzen duten pertsonak eta erakundeak, edo haien batzordearekin konplizeak direnak, bereziki, nazioarteko zuzenbidea urratzeko, herritarren eta instalazio zibilen aurkako erasoak planifikatu, komandatu, ordenatu edo gauzatu badituzte, aireko bonbardaketak barne, edo ekintza horiek burutzeko konplizeak izan badira, eta hauen izenean edo zuzendaritzapean ordezkatzuz jarduten duten pertsonak; 1970 (2011) Ebazpeneko¹²⁷ xedapenak hausten edo saihesten lagundu duten pertsona edo entitateak, bereziki armen enbargoa, edo hirugarrenei horretan lagundu dietenak; Legez kanpoko esportazioen edo Libiako legez kanpoko esportazio-saiakeren testuinguruan, Batzordeak, kasuan-kasuan, 2146 (2014) ebazpenaren¹²⁸ 10. paragrafoan aurreikusitako neurriak aplikatuko zaizkien ontziak izendatu ahal izango ditu 90 egunez; Libian giza eskubideen nazioarteko zuzenbidean edo nazioarteko zuzenbide humanitarioan aplikatzekoak diren xedapenen aurkako egintzak edo giza eskubideen aurkako urrapenak diren egintzak planifikatu, zuzendu edo egitea; Libiako edozein aireportu edo lehorreko nahiz itsasoko porturen aurka, Estatu libiarreko erakunde edo instalazio baten aurka edo honen edozein atzerriko misioaren aurka erasotzea; Talde armatuei edo delituzko sareei laguntza ematea, Libiako petrolio gordina legez kanpo ustiatuz edo beste edozein baliabide natural erabiliz; Estatu libiarreko eta Libia de Petrolio Konpainia Nazionaleko finantza-erakundeak mehatxatzea edo hertsatzea, edo Estatu libiarraren funtsak bidegabeki eskuratzea eragin dezakeen edozein ekintza gauzatzea; Nazio Batuetako langileen aurkako erasoak planifikatu, zuzendu, babestu edo horietan parte hartzea, Aditu Taldeko kideak barne; eta Sexu-indarkeriaren arloko ekintzak eta genero-arrazoia planifikatu, zuzendu edo gauzatzea.

Zehapenak lau dira. Hasteko, bidaiatzeko debekua, 1970 (2011) Ebazpenaren 16. paragrafoan ezarritakoa. Estatu kideek ezinen diete zerrendan dauden pertsonen haien lurraldean sartzea edo bertatik igarotzea, ekintza hau galarazi beharko dute.

Bestalde, aktiboen izoztea eta murrizketa komertzialak, 1970 (2011) Ebazpenaren 19. paragrafoan bildutak. Estatu kideek izoztu egin behar dituzte funts guztiak, zein finantza-aktibo eta baliabide ekonomiko batzuk, jabetzakoak badira edo zerrendan sartutako pertsona edo erakundeen zuzeneko edo zeharkako kontrolpean badaude. Ez dira

¹²⁷ UN Security Council, Security Council resolution 1970 (2011) [on the Middle East], 26 February 2011, S/RES/1970 (2011).

¹²⁸ UN Security Council, Security Council resolution 2146 (2014) [on the Middle East], 19 March 2014, S/RES/2146 (2014).

pertsona edo erakunde horien esku jarriko funtsak, finantza-aktiboak edo baliabide ekonomikoak, eta ez dira haien onurarako erabiliko. Estatu guztiek erne egon behar dira erakunde libiekiko merkataritza-harremanetan, baldin eta enplegu inguruko arrazoiak ematen dituen informazioa badute transakzio horiek egin daitezkeela uste izateko xedez

Gainera, petrolioaren esportatzeko legez kanpo saiakerei buruzko neurriak ezarri dira, 2146 (2014) Ebazpenaren 12. paragrafoan adierazitakoak eta 2362 (2017) Ebazpenaren¹²⁹ 2. paragrafoan eguneratuak. Estatu kideek beharrezko neurriak hartu beharko dituzte ontziak ez dezan Libiako petrolioaren kargatu, garraiatu edo deskargatu. Galarazi beharko dute Batzordeak izendatutako ontziak beren portuetan sartzea, eta debekatuko dute hauek hornikuntza-zerbitzuak jasotzea, hala nola erregai- edo hornidura-zerbitzuak edo bestelako zerbitzuak. Haurreko zehapenarekin lotuz, Libiako petrolio horrekiko finantza-transakzioak galarazi beharko dituzte Estatu kideek.

Azkenik, armen bahitura, inportazioari eta esportazioari aplikatzen zaiona. Estatu kide guztiek Libiari armak eta hauei lotutako era guztietako materiala saldu edo hornitzea eragotzi behar dute, besteak beste, armak eta munizioak, ibilgailu eta traje militarrik, ekipo paramilitarra eta ordezko piezak aipatutako material guztirako. Libiako Gobernuaren gaineko salbuespena jasotzen da, hilgarria ez den talde militarrentzat, laguntza teknikoa, trebakuntza edo laguntza finantzarioaren inguruko ekintzei dagokionez. Arma-enbargoaren aplikazioa indartu egin zen 2011ko martxotik irailera bitartean, Kontseiluak ikuskapena baimendu zuen momentuan. Arma-enbargoaren irismena murriztu zuen, eta, hala, mota guztietako armamentuak eta materiala transferitu ahal izan zituen, baina, segurtasunaren arloan edo agintari libiarrei armak kentzeko laguntza emateko, betiere alde aurretik organoari jakinarazita eta Batzordearen erabaki negatiborik izan ezean. Gauza bera aplikatzen da arma txikiak, arinak eta Libiari lotutako materiala aldi baterako esportazioetan, Nazio Batuetako langileek, komunikabideen ordezkariek eta laguntza humanitarioko langileek eta garapenerako eta elkartutako langileek bakarrik erabiltzeko. 2095 (2013)¹³⁰ ebazpenean, Kontseiluak berriro murriztu

¹²⁹ UN Security Council, Security Council resolution 2362 (2017) [on the Middle East], 29 June 2017, S/RES/2362 (2017).

¹³⁰ UN Security Council, Security Council resolution 2095 (2013) [on the Middle East], 14 March 2013, S/RES/2095 (2013).

zuen talde militar ez-hilgarriaren arma-enbargoaren irismena¹³¹. 2144 (2014)¹³² ebazpenean, arma-horniduraren modalitateak betetzea nabarmendu zuen Kontseiluak, baita transferentziak iritsi zirela eta izendatutako azken erabiltzailearekin geratu zirela bermatzea ere. 2174 (2014)¹³³ ebazpenean, Kontseiluak armen bahitura indartu zuen¹³⁴.

Indarkeriak gora egin du 2019tik, 100.000 zibil haien etxetik ihes egitera behartu egin duena. Egunero hornidura elektrikoa eten egiten ari da, eta horrek eragina du laguntza medikoan eta hiriko hainbat tokitako oinarrizko zerbitzuetan. Suzirikin eta artilleriarekin egindako erasoak sarritan eremu zibiletara iristen dira. NBEren arma-bahiketaren helburua Libiako biztanleria zibila babestea den arren, Jordaniak, Arabiar Emirerri Batuek eta Turkiak, besteak beste, gainbehera egin dute, ibilgailu blindatuak, dronak, misil gidatuak eta beste arma batzuk hornituz¹³⁵.

2. Europar Batasunak ezarritako zehapenak.

Kontseiluaren Atzerri- eta Segurtasun-Politika Erkidearen arloko erabakien bitartez ezartzen dira. Maastrichteko Ituna indarrean sartu zenetik, 1993ko azaroan, nabarmen handitu da Erakundeak ezarritako zehapenen kopurua.

Prozesua zera da, Europar Batasunaren Atzerri eta Segurtasun Politika Erkideko goi-ordezkariek proposamena egin beharko du, hiru prestatze-organo hura aztertzen eta eztabaidatzen dute: (1) zehapena jarri nahi zaion herrialdea zein eremu geografikotan dagoen, hango talde arduraduna; Kanpo Harremanetako Kontseilarien Taldea (RELEX);

¹³¹ 9. Decides that supplies of non-lethal military equipment intended solely for humanitarian or protective use, and related technical assistance or training, shall no longer require the approval of the Committee, as previously provided for in paragraph 9 (a) of resolution 1970 (2011); 10. Decides that supplies of non-lethal military equipment, and the provision of any technical assistance, training or financial assistance, when intended solely for security or disarmament assistance to the Libyan government, shall no longer require notification to, or the absence of a negative decision by, the Committee, as previously provided for in paragraph 13 (a) of resolution 2009 (2011);

¹³² UN Security Council, Security Council resolution 2144 (2014) [on the Middle East], 14 March 2014, S/RES/2144 (2014).

¹³³ UN Security Council, Security Council resolution 2174 (2014) [on the Middle East], 27 August 2014, S/RES/2174 (2014).

¹³⁴ 9. Calls upon all States, in particular States neighbouring Libya, to inspect in their territory, including seaports and airports, in accordance with their national authorities and legislation and consistent with international law, in particular the law of the sea and relevant international civil aviation agreements, all cargo to and from Libya, if the State concerned has information that provides reasonable grounds to believe the cargo contains items the supply, sale, transfer, or export of which is prohibited by paragraphs 9 or 10 of resolution 1970 (2011), as modified by paragraph 13 of 2009 (2011) and paragraphs 9 and 10 of 2095 (2013), for the purpose of ensuring strict implementation of those provisions;

¹³⁵ Amnistía internacional: “Libia: Las violaciones del embargo de armas de la ONU ponen en grave peligro a los 1,2 millones de civiles de Trípoli” (2019)

<https://www.es.amnesty.org/en-que-estamos/noticias/noticia/articulo/libia-las-violaciones-del-embargo-de-armas-de-la-onu-ponen-en-grave-peligro-a-los-1-2-millones-de-ci/> (Azken bisita (2022/05/04)).

(2) beharrezkoa bada, Politika eta Segurtasun Komitea (PSL); eta (3) Ordezkarri Iraunkorren Lantaldea (Coreper II). Azkenik, Kontseiluak erabakia onartzen du unanimitatez.

Europar Batasunaren Hitzarmenaren 21. artikulua¹³⁶ neurri murriztaileak aurreikusten ditu zenbait egoeratan, esate baterako, balio komunak eta funtsezko interesak, segurtasuna, independentzia eta osotasuna defendatzeko, eta demokrazia, zuzenbide-Estatua, giza eskubideak eta nazioarteko zuzenbidearen printzipioak finkatu eta babesteko. Badira erabakiak non bakarrik ezartzen diren murrizketak, hala nola arma-enbargoak edo mugikortasun murrizketak; baina zehapen-neurri gehienak, zehazki zehapen ekonomiko edo finantzarioak dakartenak, Kontseiluaren erregelamendu baten bidez aplikatu behar dira Europar Batasunaren Funtzionamenduari buruzko Hitzarmenaren 215. artikulua¹³⁷ harira. Honen xedea neurriak zehaztea eta xehetasunez azaltzea izanen da. Oinarrizko hiru dokumentu onartu dira zehapen arloan eskualde mailan: “*Basic Principles on the Use of Restrictive Measures*” 2004koa, “*Guidelines on Implementation and Evaluation of Restrictive Measures in the framework of the EU CFSP*” 2003an onartuta eta 2012an eguneratutakoa, eta “*The EU Best Practices for the Effective Implementation of Restrictive Measures*”, 2008an onartutakoa eta 2018an eguneratutakoa¹³⁸.

Kasu gehienetan Estatu bati bideratzen dira, baina badira subjektu edo talde jakinei bakarrik eragiten dietenak, hala nola, talde terroristekin gertatzen den moduan.

¹³⁶ 1. The Union's action on the international scene shall be guided by the principles which have inspired its own creation, development and enlargement, and which it seeks to advance in the wider world [...] 2. The Union shall define and pursue common policies and actions, and shall work for a high degree of cooperation in all fields of international relations, in order to: (a) safeguard its values, fundamental interests, security, independence and integrity; (b) consolidate and support democracy, the rule of law, human rights and the principles of international law; (c) preserve peace, prevent conflicts and strengthen international security, [...] (d) foster the sustainable economic, social and environmental development of developing countries, with the primary aim of eradicating poverty; (e) encourage the integration of all countries into the world economy, including through the progressive abolition of restrictions on international trade; (f) help develop international measures to preserve and improve the quality of the environment and the sustainable management of global natural resources, [...] (g) assist populations, countries and regions confronting natural or man-made disasters; and (h) promote an international system based on stronger multilateral cooperation. [...]

¹³⁷ 1. Where a decision [...] provides for the interruption or reduction, in part or completely, of economic and financial relations with one or more third countries, the Council [...] shall adopt the necessary measures. [...]

¹³⁸ Ministerio de asuntos económicos y transformación digital “2022, febrero, Boletín sobre novedades de sanciones financieras” (2022) 2-3 orr.

Ezinbestekoa da kasu eta egoera guztiei banan heltzea adierazi den bezala, gai jakin baten inguruan hunkitzen duten materialak murriztuz edo zehatuz.

Orokorrean, Europar Batasunak debekatu egiten du Zerrenda Militar Bateratuan aipatzen diren armak herrialde zehatura edo herrialde horretan edo harekin zerikusia duten pertsona jakin batzuetara saltzea. Hau gertatzen denean, debekatu egiten da ondasun eta teknologia horiekin zerikusia duen laguntza teknikoa zuzenean edo zeharka eskaintzea, baita debekatuko da eragiketak finantziatzea, bai eta horri buruzko edozein zerbitzu ematea ere.

Ohikotasunez, erabilera bikoitzeko ondasunen inguruan gertatzen dira zehapenak, 428/2009 Erreklamenduaren 4. artikulua adierazitakoa gogoan izanda, hauek esportatzeko autorizazioak eskuratzea debekatuta egonen da. Baita, barne errepresioa aurrera eramateko erabilitako ekipoak edo materialak esportatzea debekatuko da kasua horrela eskatzen badu, horrela, Europar Batasunak eranskin bat eratuko du xede horrekin erabili daitezken ekipo eta materialak zerrendatuz. Beste eskuan, orokortasunez gertatzen ez dena, Europar Batasuneko Estatu kideek zehatutako herrialdeetatik inportatzea da, Errusia eta Siriarekin gertatu den bezala¹³⁹.

Europar Batasunak etengabe berrikusten ditu ezartzen dituen murrizketak, eta edozein unetan aldatu, luzatu, aldi baterako eten edo kendu ditzazke, baina, bi modutan aztertu daitezke segun eta ekarritakoak, mistoak edo autonomoak diren. Hortaz, Segurtasun Kontseiluaren ebazpenetatik zuzenean ekarritako zehapenak direnean, EBko zehapenak NBEko ebazpenekiko aldatu edo kenduko dira. Bestalde, zehapen mistoen kasuan, Europar Batasunak NBEren murrizketak hedatzen dituztenean, xedapenak gutxienez 12 hilabete behin berrikusi beharko dira. Zehapen autonomoen kasuan, Europar Batasunak bere kabuz adosten dituztenean, ASPEn erabakiek 12 hilabeteko indarraldia izan ohi dute, batzuetan luzatzen direnak, hain zuzen ere, hau gertatu ahal izateko, Kontseiluak zehapenak berrikusi beharko ditu, baita kaltetutako subjektuak edo entitateak entzun hauen zerrendatik ateratzeko interesa dela eta. Berrikuspenak murriztapenak aldatu edo kentzera ekarri dezake ere¹⁴⁰.

¹³⁹ IRIARTE ÁNGEL, J. L. “Las sanciones internacionales y su incidencia en las operaciones transnacionales de comercio e inversión. Especial referencia a las restricciones impuestas por la Unión Europea”. ÁLVAREZ RUBIO, J. J.; IRIARTE ÁNGEL, J. L.; BELINTXON MARTIN, U. *Representación aduanera y comercio internacional en el siglo XII liburuan*. Thomson Civitas, Nafarroa, 2022, 152-155 orr.

¹⁴⁰ IRIARTE ÁNGEL, J. L.; VIÑALS CAMALLONGA, J. M.; ESPARZA GUTIERREZ, T. “Prontuario de sanciones, 49 respuestas sobre el funcionamiento de las sanciones internacionales”. *op. cit.*, 58.orr.

Kaltetutako subjektuen edo entitateen mantentzearen berhausnarketari dagokionez, praktikan, bakarrik arazo materialak zirela aurrera egin dute eskaerek. Maila europarrean bi bideren bidez eskatu dezakete subjektu edo entitateek, bide administratiboaren bidez, eta bide judizialaren bidez. Maila honetan errekursoak edo ekintzak ezartzea ez du maila estatalean beste ekintza bat ezartzeko aukera baztertzen, Estatu batek europar zehapenak aplikatzeko ezarritako neurri edo adostutako erabakiekin desadostasuna ikusten bada¹⁴¹.

Lehendabiziko aukerari dagokionez, bide administratiboan, Kontseiluaren aurrean aurkeztu dezakete zehapena ezartzen denetik edozein momentutan, horrela gogorarazten du Kontseiluak Europar Batasunaren Egunkari Ofizialean murrizketan promulgatzean. Eskaeran, interesdunak justifikatu beharko du zergatik utzi behar den zehatuen zerrendatik kanpo, hau frogatzen duten proba guztiekin batera. Izan ere, nabariak diren akats materialen kasuan egiten dute aurrera eskaera hauek¹⁴².

Bestalde, bide juridikoari dagokionez, deuseztatze errekurtoa ezarri beharko da. Europar Batasunaren Funtzionamendurako Itunaren 263.¹⁴³ eta 275. artikuluen harira, Europar Batasunaren Justizia Auzitegiaren aurrean planteatu daiteke egintzak edo legez xedapenak legez aurkakoak direnean, eskuduntzaren ezagatik edo boterearen desbideraketarengatik, funtsezko forma akatsengatik, Hitzarmenen urrapenengatik, edo betearazpenari buruzko edozein arau juridiko hausteagatik¹⁴⁴.

Europar Batasunak ezarritako zehapenak ez betetzekotan, ondorioak enpresak urraketak egin diren Estatuaren barne-legediak ezarriko ditu. Estatu Espainiarraren kasuan, 12/1995 Lege Organikoak - Kontrabandoaren Errepresioari buruzkoa - ezartzen ditu. 2. artikulua hain zuzen ere, 1º d. eta 2º c. eta d. ataletan¹⁴⁵, zehapenak jasaten

¹⁴¹ IRIARTE ÁNGEL, J. L.; VIÑALS CAMALLONGA, J. M.; ESPARZA GUTIERREZ, T. “Prontuario de sanciones, 49 respuestas sobre el funcionamiento de las sanciones internacionales”. *op. cit.*, 63.orr.

¹⁴² IRIARTE ÁNGEL, J. L.; VIÑALS CAMALLONGA, J. M.; ESPARZA GUTIERREZ, T. “Prontuario de sanciones, 49 respuestas sobre el funcionamiento de las sanciones internacionales”. *op. cit.*, 64-65 orr.

¹⁴³ The Court of Justice of the European Union shall review the legality of legislative acts, of acts of the Council, of the Commission and of the European Central Bank, other than recommendations and opinions, and of acts of the European Parliament and of the European Council intended to produce legal effects vis-à-vis third parties. It shall also review the legality of acts of bodies, offices or agencies of the Union intended to produce legal effects vis-à-vis third parties.

¹⁴⁴ IRIARTE ÁNGEL, J. L.; VIÑALS CAMALLONGA, J. M.; ESPARZA GUTIERREZ, T. “Prontuario de sanciones, 49 respuestas sobre el funcionamiento de las sanciones internacionales”. *op. cit.*, 65.orr.

¹⁴⁵ 1. Cometen delito de contrabando, siempre que el valor de los bienes, mercancías, géneros o efectos sea igual o superior a 150.000 euros, los que realicen alguno de los siguientes hechos: d) Importen o exporten, mercancías sujetas a medida de política comercial sin cumplir las disposiciones vigentes aplicables; o

dituzten Estatuetikiko esportazioak eta inportazioak egitea kontrabando delitu bat bezala antzeman daiteke¹⁴⁶.

IV. ESTATU ESPAINIARREKO ENPRESEN JOKABIDE-KODEAK.

Estatu Espainiarrean 509 enpresa aurkitzen ditugu Defentsa Materialaren eta Erabilera Bikoitzaren Kanpo Merkataritzako Operadoreen Erregistro Berezian inskribatuta (azken datuak 2020ren amaieran argitaratu ziren) eta, hauetatik, 354k defentsa materia inguruko produktu edo zerbitzuak hornitzen dituzte. Esportazioak 5.575 milioi euroko mozkina ekartzen du, salmenten %84,65a, gainontzeko portzentaia Defentsa Ministerioa erosten du, 1.079 milioi euroko etekinarekin. Urtero zifra etengabe handitzen ari da - 2011n esportatutako 2.349 milioi eurotik 5.033 milioi eurora igaro zen 2018an, eta 5.575 milioira 2019an. - gaur egun, maila globalean esportatzaileak diren Estatuaren artean zazpigarren postua lortuz. Estatuaren erosle nagusien artean NATOren Estatu kideak aurkitzen ditugu, baina, nabarigarria da Arabia Saudi-ri iristen zaion produktuen kantitatea¹⁴⁷.

Erregistro Berezian inskribatutako enpresa horien artean, Airbus, Navantia, Indra, Santa Bárbara Sistemas, ITP Aero eta Maxam-ek Estatuko industriaren %83a kontrolatzen dute¹⁴⁸.

cuando la operación estuviera sujeta a una previa autorización administrativa y ésta fuese obtenida bien mediante su solicitud con datos o documentos falsos [...]

2. [...] igual o superior a 50.000 euros, los que realicen alguno de los siguientes hechos: c) Importen, exporten, introduzcan, expidan o realicen cualquier otra operación sujeta al control previsto en la normativa correspondiente referido a las mercancías sometidas al mismo por alguna de las disposiciones siguientes: 1.º La normativa reguladora del comercio exterior de material de defensa, de otro material o de productos y tecnologías de doble uso sin la autorización a la que hace referencia el capítulo II de la Ley 53/2007, o habiéndola obtenido bien mediante su solicitud con datos o documentos falsos [...]. 2.º El Reglamento (CE) n.º 1236/2005 del Consejo, de 27 de junio de 2005, sobre el comercio de determinados productos que pueden utilizarse para aplicar la pena de muerte o infligir tortura u otros tratos o penas crueles, inhumanos o degradantes con productos incluidos en el anexo III del citado Reglamento, sin la autorización a la que hace referencia el capítulo II de la Ley 53/2007 [...].

d) Obtengan, o pretendan obtener, mediante alegación de causa falsa o de cualquier otro modo ilícito, el levante definido de conformidad con lo establecido en el artículo 123 del Reglamento (CE) n.º 450/2008, del Parlamento Europeo y del Consejo, de 23 de abril de 2008, por el que se establece el Código Aduanero Comunitario (Código Aduanero Modernizado), y sus disposiciones de aplicación.

¹⁴⁶ IRIARTE ÁNGEL, J. L.; VIÑALS CAMALLONGA, J. M.; ESPARZA GUTIERREZ, T. “Prontuario de sanciones, 49 respuestas sobre el funcionamiento de las sanciones internacionales”. *op. cit.*, 72.orr.

¹⁴⁷ Infodefensa: “El anuario 'Spain 2022' incluye el primer Top 20 de la industria de defensa española” (2022). <https://www.infodefensa.com/texto-diario/mostrar/3455743/anuario-spain-2022-incluye-primer-top-20-industria-defensa-espanola> (Azken bisita (2022/05/05)).

¹⁴⁸ Mercados e investigación: “Principales empresas de armas en España”. (2022). <https://mercadosinvestigacion.com/principales-empresas-de-armas-en-espana/#:~:text=El%20Ministerio%20de%20Defensa%20espa%C3%B1ol,Espa%C3%B1ola%20de%20Defensa%202021%20E2%80%932022> (Azken bisita (2022/05/05)).

Hiru lehen enpresa hauen jokabide-kodeak aztertuko dira Euskadiko enpresa nagusiarekin batera eta Maxam-ren egoera bereziarekin batera, azaldutako marko juridikoaren legedia errespetatzen duten miatu ahal izateko. Jokabide kodea zera da, enpresa arautzen duten printzipio, balio eta estandar etikoen adierazpen formala. Erakundearen enpresa-etika jasotzen duen dokumentua esaterako. Enpresa batentzako jokabide-kodeak, orokorrean, gutxienez oinarrizko eskubideak, lanekoak, ingurumenekoak eta ustelkeriaren eta eroskeriaren aurkako praktikak aipatuko ditu. Baita langileen eta konpainiaren arteko harremani buruzko jarraibideak eta kode horren aurka ekitearen ondorioz sor daitezkeen zigorrak ere¹⁴⁹.

Azterketak hiru puntu nagusitan izanen du ardatza: nazioarteko eta lekuko legediaren betearazpena, giza-eskubideen errespetua eta jokabide-kodeko printzipioak ez betetzekotan zein ondorio gertatuko diren. Ikusiko denez, kode guztiek ez dituzte hiru ardatz nagusi hauek betetzen. Baian, giza-eskubideen kasuan, nazioarteko eta barnelegediak betetzearen hauekiko errespetua bermatu daitekeela.

1. Airbus Defence and Space-ren jokabide-kodeak.

Estatuan gehien esportatzen duen enpresa da Airbus, sektorearen %72eko salmentekin. Merkataritzako eta borrokarako aireontziak fabrikatzen eta mantentze-lanean aritzen da. Bi jokabide-kode aurki ditzazkegu, enpresarena eta hornitzaileei eta hirugarrenei bideratuta dagoena. Bigarren honen xedea lehenengoak adierazten dituen printzipioak bermatzeko eratu zen, ikusiko dugunez, enpresaren jokabide-kodeak erreferentzia egiten du hirugarrenetik harremani, eta hauek fidagarriak izatearen garrantziari.

Aipagarria da Airbus enpresaren *Compliance* sistemarekiko konpromezua ere. *Corporate Compliance* ingelesezko terminoa da, indarrean dauden arauak betetzetik datorrena, enpresa, erakunde publiko edo entitate batek ezarritako barne zein kanpo arauen betetzea. Honen xedea, erakundearen eta/edo honen langileen ondorioz legea errespetatzen duten jarduerak sustatzen dituzten programak aplikatzea da, pertsona juridikoen erantzukizun penala saihesteko. Enpresan *Compliance* egonkor eta indartsu baten aplikazioa, enpresak gertaera deliktualen aurrean hauen erantzukizunetik

¹⁴⁹ Atico 34: “¿Qué es el Código de conducta de una empresa? ¿Cómo hacerlo?” (2017). https://protecciondatos-lopd.com/empresas/codigo-de-conducta/#Que_es_el_codigo_de_conducta (Azken bisita (2022/05/05)).

salbuesteko, proaktibitatea erakusten badute, nahiz eta ez duen arrisku ororen inguruan hau bermatzen balio dezake¹⁵⁰.

1. 1. Airbus enpresaren jokabide-kodea.

Errespetatu beharreko legediari dagokionez, gobernuek esportazioak kontrolatzeko legeak sortzen dituzte eta zehapenak eta bahiturak ezartzen dituzte, nazioarteko markoa kontutan hartuz. Airbus esportatzaile trebea izatea funtsezkoa dela adierazten dute, legeak ez betetzeak merkataritzako jarduera etetea eta zigor ekonomikoak ekarri dezake eta. Horregatik, lan egin, hirugarrenekin lan egin edo esportazioak, berresportazioak edo erregulazio horiei lotutako artikuluen transferentziak egin aurretik, dagokion jurisdikzioaren esportazioa kontrolatzeko legeria betetzen dela ziurtatu behar dugu¹⁵¹.

Giza-eskubideen inguruan, enpresarekiko lan-harremanak dauzkaten subjektuenak adierazten dira, negozioaren parte, eragiketak egiten dituzten eta hornikuntza-kateen parte diren langileenak hain zuzen ere, baina ezer gutxi esaten da industriaren ondorioz urratu daitezken giza-eskubideekiko errespetua¹⁵².

Hirugarrenekin lan egitearen inguruan, Airbus-ek zera adierazten du, industriaren naturaltasunari dagokionez, ohikotasunez hirugarrenekin lan egitea suposatzen du. Hirugarren hauetaz hitz egiten dutenean, bezero, hornitzaile, banatzaile, birsaltzaile, presio-talde eta aholkularien inguruan ari dira. Hauen erreputazioa egokia dela bermatzeko, ikerketa prozedimendua egiten dute, hauekin kontratatzearen ondorioz ze arrisku agertu daitezken aztertu ahal izateko. Baita, erlazio-kontraktualaren bitartean, aldaketarik gertatu ez direla kontrolatzen dute, hirugarrenaren kalitate eta integritate mailak enpresaren estandarrekin bat egiten duela bermatzeko. Airbus-ek azaltzen duenez, funtsezkoa da esportatzaile fidagarri bat izatea, hirugarren hauekiko harremanak ezin dute Estatu eta nazioarteko zuzenbidearen aurka jo, hau gertatzen bada, haien merkataritza-jarduera geldiarazi beharko dute eta zehapen ekonomikoak jasoko dituzte eta. Hortaz, harreman hauek araudiak errespetatzen dituztela argi izan behar dute¹⁵³.

¹⁵⁰ Atico 34: “Compilance o cumplimiento normativo de empresas”
<https://protecciondatos-lopdp.com/empresas/compliance/> Azken bisita (2022/05/05)).

¹⁵¹ Airbus Ethics Compliance Code of Conduct. 2019, 16. orr.

¹⁵² Airbus Ethics Compliance Code of Conduct. 2019, 10. orr.

¹⁵³ Airbus Ethics Compliance Code of Conduct. 16 eta 21. orrialdeak.

Jokabide-kodeak bildutako printzipioak eta xedapenak ez betetzekotan ez dira zein ondorio edo ardura ezarriko diren.

1.2. Airbus-ren hornitzaileei bideratutako jokabide-kodea.

Hornitzaileentzako jokabide-kode honek, IFBEC¹⁵⁴-ek sortutako ereduan oinarritzen da, eta Airbus enpresaren hornitzaileen eta hirugarrenek bete beharko dituzten oinarritzko baldintzak ezartzen ditu, arau eta nazioarteko hitzarmenek barnebiltzen dituzten balioekin eta printzipioekin bat egin beharko dutenak¹⁵⁵.

Hornitzaileek eta hirugarrenek haien jardueran edo jardueretan aplikagarriak diren araudiak bete beharko dituzte, ez bakarrik haien egoitza aurkitzen den barne-legedia, baizik eta zerbitzu prestaketak eta kudeaketak gertatzen diren lurraldeetako. Inportazioei buruz, beste enpresek araudiak errespetatzen dituztelaren bermea izan beharko dute, ez bakarrik produktu edo piezen inguruan, datuei dagokionez ere. Esportazioen kontrolari buruz, inportazioekiko gertatzen den berdina kontrolatu beharko dute, Amerikako Estatu Batuak, Europar Batasunak eta edozein barne-legediak adierazitakoa, eta batez ere nazioarteko zehapenak errespetatzea. Gainera, kontrol honi buruzko informazio argia eta garbia eskuratu beharko diote Airbus enpresari, beharrezko lizentzia-administratiboak lortzearekin batera¹⁵⁶.

Giza eskubideei dagokionez, hornitzaileek eta hirugarrenek haien jarduerak eta operazioak hauek errespetatuz burutu behar dituzte, hau da, langileak duintasunez tratatzea eta bidezko lan-praktikak sustatuz. Hau da, langileentzako soldata justuak eta lehiakorrek eskaintzea, larderia eta diskriminazioa eta hurren eskulana edo behartutakoa debekatzea, eta pertsonen trafikoan inolako helbururekin parte ez hartzea. Bestalde, beren jarduerekin eta harreman komertzialekin lotutako giza-eskubideen gaineko arrisku eta eragin kaltegarri errealak identifikatzea. Baita arriskua murrizteko eta haien jarduerak urraketarik ez dituztela eragiten eta laguntzen ez dutela bermatzeko neurri egokiak

¹⁵⁴ *The International Forum on Business Ethical Conduct*, Aerospace Industries Association of America eta Aerospace and Defence Industries of Europe konpainiek eratu zuten 2010. urtean. Industria honetan parte hartzen dutenen artean, enpresa-praktika etikoen eta munduko joeren arloko praktika onenei buruzko informazioa trukatzeko aukera ematea dauka helburu bezala. <https://ifbec.info/about/> (Azken bisita (2022/05/05)).

¹⁵⁵ Airbus, código de conducta para proveedores. 2021, 3. orr.

¹⁵⁶ Airbus, código de conducta para proveedores. 2021, 4. eta 11. orr.

hartzea, bai eta zuzenean eragindako edo zeharkako edozein eragin kaltegarri konpontzeko ere¹⁵⁷.

Ikus daitekeenez, enpresaren jokabide-kodearekin konparaketa eginez, hornitzaileei eta hirugarrenei zuzendutakoa erreferentzia egiten du bai langileen giza-eskubideei bai zuzenean edo zeharka urratu daitezken besteen eskubideei, izan ere, lehenengoan erreferentzia orokorra egiten dute giza-eskubideak errespetatzen direlaren inguruan, baina, langileen eskubideetaz ari dira.

Jokabide-kodearen xedapenak ez betetzekotan, adierazten denez, kode honen xedea Airbus-ekin harremana izateko baldintza da, beraz, hau errespetatzen ez bada, ezin izango da merkataritza-harremanarekin hasi edo jarraitu, bukatutzat emanez.

2. Indra-ren jokabide kodea.

Madrilgo enpresa honek, aireko defentsan integratutako irtenbide eta soluzio diseinatzen dituzte, aireko espazioa zaintzeko eta kontrolatzeko, babes zerbitzuen teknologiak eratzen dituzte, mota guztietako mehatxuei aurrea hartzeko eta aurre egiteko, zibersegurtasuna oinarri daukaten soluzio berritzaileen bidez hauek kudeatuz. Bestalde, eragiketa militarrei aplikatutako teknologia espazialen erabilpena prestatzen dute. Azkenik, defentsa-sistemen bizi-zikloaren garapen optimoa bermatzen dute hauen mantentzearen bidez.

Airbus enpresarekin gertatzen ez den bezala, Indrak jokabide-kode bakarra dauka, enpresa, hornitzaile zein hirugarrenentzat zuzenduta dagoena.

Nazioarteko merkataritzari dagokionez, defentsa eta erabilera bikoitzeko materialetan, hauen inportazio eta esportazioen inguruan hain zuzen ere, hau erregulatzen duen araudia betetzen dela bermatu behar da, hau da, legeen betetzea eta baimenen eskuratzean oinarrituko dira ekintzak. Baita, nazioarteko mailan hauen gainean ezarritako zehapenak bete beharko dira, material hauen esportazioa edo inportazioari bidea emateko asmoa badago, lehendabizi *Export Control* organoari ohartaraziko zaio, baita gobernuak ezarritako zehapenak errespetatzen direla¹⁵⁸.

Berdintasunari dagokionez, profesional eta kolaboratzaile guztiek berdinasun, dibertsitate, errespetu eta ez-diskriminatzean oinarritu beharko dituzte lan-harremanak.

¹⁵⁷ Airbus, código de conducta para proveedores. 2021, 4. orr.

¹⁵⁸ Indra. Código ético y cumplimiento legal. 2020, 12. orr.

¹⁵⁹ Baina, ez da ezer adierazten hauen jardueren ondorioz urratu daitezken eskubide edo printzipioak.

Konpromezu sendoa adierazten du enpresa, hornitzaile edo hirugarrenek haiekiko harremanetan irregulartzat har daitezkeen praktikarik ez egiteko edo hauek susmatzen direla iragartzea. Hala nola, kapitalen zuritzearen eta terrorismoaren finantzaketaren aurka borrokatzeko arloan indarra duten arau eta xedapen guztiak betetzek konpromezua hartzen du, bai nazionalak bai nazioartekoak¹⁶⁰.

Jokabide-kodea errespetatzen ez bada, lan-harreman baten bidez zuzenki enpresari lotutak daudenen aurrean disziplina-neurriak hartzen dira, kolaboratzaileei dagokienez, merkataritza-harremana bukatutzat hartuko da¹⁶¹.

3. Navantia-ren jokabide-kodea.

Besteak beste, fragatak, Aireontzi garraioak edo anfibioen, itsaspekoak, patruilariak, ontziogistikoak, defentsa sistemak, energia eolikoak eta hauekiko lotura daukaten zerbitzuak produzitzen ditu Madrilgo enpresa honek.

Indra-rekin gertatzen den bezala, jokabide-kode bakarra dauka baita, enpresari, hornitzaileei eta hirugarrenei zuzenduta dagoena.

Araudien betekizunari dagokionez, besteak adierazitako konpromezu berdina adierazten dute, operatzen duten Estatuen legedia zein aplikagarria den nazioarteko araudiekiko, baina, beste ideia bat bermatzeko asmoa adierazten dute, ahalegin berezia aipatzen da urraketak jarraitzeko eta Justiziarekin lankidetzan aritzeko, Estatu Espainiarreko Zigor Kodearen 31 bis artikuluan¹⁶² xedatutakoaren arabera, enpresarentzat zuzeneko erantzukizun penala ekar dezaketen lege-urraketen aurrean, edo etorkizunean haren ordeztu eta/edo osagarri izan daitekeen beste edozein aurreikuspenetan.

¹⁵⁹ Indra. Código ético y cumplimiento legal. 2020, 12. orr.

¹⁶⁰ Indra. Código ético y cumplimiento legal. 2020, 15. orr.

¹⁶¹ Indra. Código ético y cumplimiento legal. 2020, 17. orr.

¹⁶² 1. En los supuestos previstos en este Código, las personas jurídicas serán penalmente responsables: a) De los delitos cometidos en nombre o por cuenta de las mismas, y en su beneficio directo o indirecto, por sus representantes legales o por aquellos que actuando individualmente o como integrantes de un órgano de la persona jurídica, están autorizados para tomar decisiones en nombre de la persona jurídica u ostentan facultades de organización y control dentro de la misma. b) De los delitos cometidos, en el ejercicio de actividades sociales y por cuenta y en beneficio directo o indirecto de las mismas, por quienes, estando sometidos a la autoridad de las personas físicas mencionadas en el párrafo anterior, han podido realizar los hechos por haberse incumplido gravemente por aquéllos los deberes de supervisión, vigilancia y control de su actividad atendidas las concretas circunstancias del caso.

Honen harira, baimen-administrazio baimenei dagokionez, jokabide-kodearen hartzaileek legeria ezagutu eta bete beharko dute, agintari eskudunei legez eskatzen den informazioa eman beharko diete eta nazioarteko merkataritzako eragiketa egin ahal izateko beharrezkoak diren baimen guztiak eskuratuko dituzte¹⁶³.

Giza-eskubideei dagokionez, hauekiko konpromezu orokorra hartzen duela adierazten du¹⁶⁴. Baina, hauen bermaren kontrola langileekikoa da, hau da, langileen eskubideak zerrendatzen ditu, ez da ezer adierazten jardueren ondorioz urratu daitezken giza-eskubideei buruz.

Jokabide-kodean adierazitako printzipioak ez betetzekotan, legez aurkako ekintzak izatekotan, Navantiak jarraian eskuduntza daukaten autoritateei egoeraren inguruan ohartaraziko die. Bestalde, gertatutako urraketak enpresari horrela legitimatzen badu, bere zuzendari, langile edo langileen aurka diziplina neurriak hartzeko eskumena izanen du, kaleratzea barne, eta enpresak horiek gauzatzeko behar diren izapideak egiten hasiko da. Hain zuzen ere, urraketa Navantiako ordezkariak, agintariak, agenteak eta bitartekariak, hornitzaileak edo bazkideak egin badute, enpresak beren kontratuetan ezarritakoaren arabera jokatu du, lan-harremana bukatutzat emateko xedez¹⁶⁵.

4. Sapa Placenciaren enpresaren ardura falta.

Tankeen propulzioan espezializatuta dagoen Euskal Autonomia Erkidegoko enpresa garrantzitsua, zeinean Jokin Aperribay, Erreala futbol taldearen presidentea dena, akziodun nagusietako bat da.

Enpresa honen kasuan, ezin da bere jokabide-kodea web-orrian aurkitu, ikertutako beste hiru enprekin gertatzen den bezala. Posta elektronikoari dagokionez, bi agertzen dira, Madrilgo sedea eta Euskadiko sede nagusiarena, baina ez dute jokabide-kodearen eskakizunari erantzunik ematen. Azkenik, telefonoz deitzekotan, bi daude, berriz ere Madrilgo sedea eta nagusiarena, lehenengoan jarraian erantzuten dute, baina giza baliabideak Euskadiko sedean dagoela adierazten dute eta honetara bideratzen dute. Bigarren honetan, itxaron behar da, eta telefonoa hartzen duen pertsonak ez daki nola erantzun eskakizunari, beraz beste bigarren batekin jartzen zaituzte kontaktuan, honek, giza-baliabideak dena, erantzun finala ematen du gaiari buruz, “uste dut enpresak ez duela

¹⁶³ Código de conducta empresarial de Navantia. 2019, 9. eta 23. orr.

¹⁶⁴ Código de conducta empresarial de Navantia. 2019, 15. orr..

¹⁶⁵ Código de conducta empresarial de Navantia. 2019, 32. orr.

eta, izatekotan `código de conducta de bienvenida´ lirateke, baina ez da eskatzen duzuna”. Laburbilduz, ez dago jokabide-kode baten existentziaren arrastorik¹⁶⁶.

5. Maxam-ren egoera berezia.

Maxam Estatu Espainiarrean lehergaien esportazioan garrantzia handiena dauka, baita maila globalean bere nagusitasuna antzeman daiteke. Bere jokabide-kodeari dagokionez, ezin da enpresa honena aurkitu, ezta hau lortzeko kontaktatu. Zera gertatu da, Zelenski, Ukrainiako presidentek, Errusiarekin daukan gudaren testuinguruan Maxam, Porcelanosa eta Sercobe enpresei buruz aipatu zen, hauek Errusian aktiboak mantentzen zituztela salatuz. Baina, bakarrik azken biek ezeztatu egin dute Errusian aktibitatea mantentzen dutela. Une horretatik web-orria bertan behera utzi egin zuen Maxamen apirilaren hasieran, isiltasuna mantenduz¹⁶⁷.

Estatu Espainiarreko Gobernuak, Reyes Maroto, industria ministra dena, hiru enpresek Errusia aukako zehapenak errespetatzen ari zituztela adierazi zuen. Maxam kasuari buruz adierazi zen zuzenean, honek eratzen ari duen ziurgabetasuna eta. Zera azaldu egin zuen: Maxam-ren filial errusiarrak oraindik aktiboa badago, Estatu Espainiarreko matxizetik independentea delako da. Maxam eta haren filial errusiarraren artean merkataritza- edo finantza-trukerik gertatzen ez direla argituz. Industriako titularrak esan zuen, halaber, egun arte ez dela Putinen Gobernuak Errusiako inongo enpresatan esku hartu¹⁶⁸.

Enpresak web-orria bertan behera utzi zuenetik ez da enpresari buruz berririk agertu, gainera, aurkitu daiteken informazioaren bidez honekin kontaktatzen saiatzen bada ez da erantzunik jasotzen. Hala nola, agertzen den telefonoak ez du seinalik ematen eta posta elektronikoki mezu bat bidaltzen bada helbidea aurkitzen ez dela erantzuten da¹⁶⁹.

¹⁶⁶ Madrilgo sedearen posta elektronikoa: oficinamadrid@sapa.es; eta telefono zenbakia: 943 30 42 04; Euskadiko sedearen posta elektronikoa: sedecentral@sapa.es; eta telefono zenbakia 914 31 80 80

¹⁶⁷ SER: “Maxam, la empresa de explosivos citada por Zelenski, guarda silencio y mantiene su web caída desde que el presidente de Ucrania la nombró”. (2022, apirila) <https://cadenaser.com/2022/04/06/una-de-las-empresas-citadas-por-zelenski-es-la-vizcaina-maxam-la-dinamita/>. (Azken bisita (2022/05/05)).

¹⁶⁸ La información: “Maxam se atrincheró con 10 millones en activos bajo la vigilancia del Kremlin”. (2022).

<https://www.lainformacion.com/empresas/maxam-rusia-kremlin-amenazas/2864124/>

t (Azken bisita (2022/05/05)).

¹⁶⁹ Telefono zenbakia: 917220100; posta elektronikoa: general@maxamcorp.com.

V. ARMEN MERKATARITZAREN ONDORIOA. GIZA-ESKUBIDEEN URRAKETA SISTEMATIKOA.

Aztertutako nazioarteko armen merkataritzaren marko juridikoak etengabeko erreferentzia egiten da giza-eskubideen urraketari araudietan. Hurrengo orrialdetan era sakonago batean ikertuko dira eskubide hauek babesten eta bermatzeko xedea daukaten araudiak eta mekanismoak.

Jatorri konbentzionala izan arren, giza-eskubideen nazioarteko zuzenbidearen printzipio eta arau batzuk ohiturazko zuzenbidearen osagai bihurtu dira. Honen ondorioz, gaur egun irismen orokorra daukate, hala nola, genozidioa, esklabotza, tortura edo hilketa debekatzen duten arauekin gertatu den bezala. Garrantzitsua zera da, eskubide horiek nazioarteko itunetan edo nazioarteko erakundearen esparruan, unibertsaletan (Nazio Batuen Erakundea) nahiz eskualdekoetan (Afrika, Amerika, Asia, Europa besteak beste), hauek hartutako erakunde-egintzetan eskubideak barnebildu izana. Aniztasuna sortu da, eta, horren arabera, nahiz eta sistema bakoitzak bere berezitasun eta ezaugarri bereziak izan - sistema horretako kide bakoitzak eskubideak bermatzeko koordinazio egokia beharko dutenak -, bat datoz, argi eta garbi, onartzen diren eskubideen zerrendekin, baita, horien babesari dagokienez, hauek urratuz gero, gizabanakoei errekurtsioa jartzeko aukera ematen zaie¹⁷⁰.

1. Babes sistemak.

1.1. Nazio Batuen Erakundearen protekzioa.

Nazio Batuen Erakundearen Fundazio Gutunean, giza-eskubideen babesa 1.3. artikuluan¹⁷¹ aipatzen zen, Estatuaren arteko lankidetzaren berariazko alderdia da, baina, ez zen sortu bere babesa kontrolatzeaz arduratzen zen organo nagusirik, ezta, urraketak egonez gero, gizabanakoen baliabide zuzenik Estatuaren aurrean. Dударik gabe, gerora, indartu egin da hauen protekzioa, erakundearen funtsezko beste helburu batzuekin lotuz. Bere aldetik, Gutunaren 55. artikulua¹⁷², giza-eskubideen babesa nazioarteko

¹⁷⁰ GONZALEZ CAMPOS, J. D.; SÁNCHEZ RODRÍGUEZ, L. I; ANDRÉS SÁENZ DE SANTA MARÍA, P. *Curso de Derecho Internacional Público*. Errebitsatutako laugarren edizioa, Thomson Civitas, 2008, 836-837. orr.

¹⁷¹ [...] achieve international co-operation in solving international problems of an economic, social, cultural, or humanitarian character, and in promoting and encouraging respect for human rights and for fundamental freedoms for all without distinction as to race, sex, language, or religion [...]

¹⁷² With a view to the creation of conditions of stability and well-being which are necessary for peaceful and friendly relations among nations based on respect for the principle of equal rights and self-determination of peoples, the United Nations shall promote [...] universal respect for, and observance of, human rights and fundamental freedoms for all without distinction as to race, sex, language, or religion.

komunitatearen bakea mantentzeko irizpide nagusietako bat bezala antzematen du, hortaz, hauen urraketa Erakundearen xede nagusia arriskuan jarriko luke¹⁷³.

Bilakaera instituzionala gertatu da. Giza-Eskubideen Komisia, ECOSOCen menpekoa zena, urte luzez izan da arlo horretako eskumen garrantzitsuenak izan dituen organoa, baina, Batzar Nagusiaren 48/141 (1994) Ebazpenarekin¹⁷⁴, Goi Mandataria eratu zen eskubideak sustatu eta babesteko, materia honen inguruan botere berririk eskuratu gabe, sistemaren barnean koordinazio eta bultzada handiagoa lortzeko betebherrarekin. 2005. Urtean, Mundu-mailako Goi-Bileran Giza-Eskubideen Komisia bertan behera uztea erabaki zuten Gutunaren aldaketa bat bezala, Giza-Eskubideen Kontseilua eratzeak akordatu. Kontseilua hurrengo urtean Batzar Nagusiaren 60/251 (2006) ebazpenaren bidez eratu egin zuten¹⁷⁵.

Giza-eskubideen Adierazpen Unibertsalari¹⁷⁶ dagokionez, garrantzia handiko testua da, giza-eskubideen arloaren inguruan hitz egitean, hau baita burura etortzen den lehen testua. Baina, bere izena adierazten duen moduan “aitorpen” bat da, hau da, ez dauka indar loteslerik. Izan ere, zenbait auzitegiek kontutan hartu egin dute barnelegediek adierazitakoa kontrastatzeko bere *erga omnes* dela eta, hau da, gizaki guztiak barnebiltzen ditu eta, Estatuaren barne-legedia baino gehiago. Ezaugarri loteslearen gabezia dela eta, 1948. urtetik aurrera Giza-Eskubideen Komisia zera adierazi zuen, nazioarteko hitzarmenek ibilbide aproposenak dira eskubideak garatzeko eta derrigorrezkoak bilakatzeko.

Babesa kontrolatzen duten bi organo daude Nazio Batuen Erakundearen, alde batetik (1) Giza-Eskubideen Komite-a eta, bestetik, (2) Eskubide Ekonomikoen Komite-a. Lehenengoa Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Akordioaren¹⁷⁷ bidez eratu zen, testu honek bildutako materien inguruan interbenitzeko eta bertan adierazitako protokoloak. Bigarrena, ECOSOC-ek eratu egin zuen Eskubide Ekonomiko, Sozial eta Kulturalen Akordioak adierazitako bermatzeko. Organo hauen osaera, 18 jakitun dira,

¹⁷³ GONZALEZ CAMPOS, J. D.; SÁNCHEZ RODRÍGUEZ, L. I.; ANDRÉS SÁENZ DE SANTA MARÍA, P. *Curso de Derecho Internacional Público. op. cit*, 841 orr.

¹⁷⁴ Nazio Batuen Erakundearen Batzar Nagusiaren 48/141 Erabakia. A/RES/48/141 (1994ko urtarrilaren 7a).

¹⁷⁵ GONZALEZ CAMPOS, J. D.; SÁNCHEZ RODRÍGUEZ, L. I.; ANDRÉS SÁENZ DE SANTA MARÍA, P. *Curso de Derecho Internacional Público. op. cit*, 842 orr.

¹⁷⁶ Nazio Batuen Erakundearen Batzordearen Erabakia. Giza-eskubideen Aitorpen Unibertsala (217 [III] A), 1948ko abenduaren 10a.

¹⁷⁷ Nazio Batuen Erakundearen Batzorde Nagusia, Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Akordioa. 2200 A (XXI) Erabakia, 1966ko abenduaren 16a.

haien izenean lan egiten dutenak, hau da, ez dute Gobernu edo Estaturik ordezkatzeko¹⁷⁸. Komite-ek Estatuak aurkezten duten txostenen harira egiten dute lan, hauek aztertzen dituzte eta aldaketak behar badituzte horrela adierazten diete, baita, zenbait kasutan eta organoak horrela beharrezkoa ikusten badu, denboraz kanpoko txosten bat eskatu diezaieke Estatuei kasuan-kasuko egoerak direla eta.

Beste kontrol modu bat, Estatu bat beste Estatu baten inguruko salaketaren ondorioz lirake, askoz zuzenagoa dena, baina, bakarrik Eskubide Zibil eta Politikoen Nazioarteko Akordioaren kasuan eman daiteke egoera hau, horrela biltzen baitu 41. artikulua¹⁷⁹. Kasu honetan, Giza-Eskubideen Komite-ak izanen da eskuduntza duen organoak, Akordioaren urraketa antzematen bada. Hain zuzen ere, artikulua bigarren atalak¹⁸⁰ adierazten duen bezala, bi Estatuak eskuratu beharko diote Nazio Batuen Erakundearen Idazkari Nagusiari kasuaren parte izanen direlaren aitortpena, hau da, prozesua hasteko lehen pausoa onarpena lirake, behin salatutako Estatuaren barne-sistemaren bideak agortuta daudela ikusten badu Komisioak.

Azken kontrol bidea, beste Akordioari dagokio, hirutatik eraginkorra dena, partikularren salaketan oinarritzen dena. Berriz ere Giza-Eskubideen Komite-ari eskuduntza ematen zaio gai horri buruz ezagutzeko. Izan ere, bakarrik biktimen eta salatutako estatuaren txostenak eskatzera mugatuko da, eta, estatu interesdunak oharrak onartzen ez baditu, ezinen da nazioarteko ekintzarik egin, bakarrik txostena argitaratuko da¹⁸¹.

1.2. Protekzioa Europan.

Europar lurraldean hiru mekanismo aurkitzen dira, (1) Europako Kontseiluarena, (2) Europar Batasunarena, eta (3) Europako Segurtasun eta Lankidetzarako Erakundea.

¹⁷⁸ GONZALEZ CAMPOS, J. D.; SÁNCHEZ RODRÍGUEZ, L. I; ANDRÉS SÁENZ DE SANTA MARÍA, P. “Curso de Derecho Internacional Público”. *op. cit.*, 844 orr.

¹⁷⁹ 1. A State Party to the present Covenant may at any time declare under this article that it recognizes the competence of the Committee to receive and consider communications to the effect that a State Party claims that another State Party is not fulfilling its obligations under the present Covenant. [...]

¹⁸⁰ 2. The provisions of this article shall come into force when ten States Parties to the present Covenant have made declarations under paragraph I of this article. Such declarations shall be deposited by the States Parties with the Secretary-General of the United Nations, who shall transmit copies thereof to the other States Parties. A declaration may be withdrawn at any time by notification to the Secretary-General. Such a withdrawal shall not prejudice the consideration of any matter which is the subject of a communication already transmitted under this article; no further communication by any State Party shall be received after the notification of withdrawal of the declaration has been received by the Secretary-General, unless the State Party concerned has made a new declaration.

¹⁸¹ GONZALEZ CAMPOS, J. D.; SÁNCHEZ RODRÍGUEZ, L. I; ANDRÉS SÁENZ DE SANTA MARÍA, P. “Curso de Derecho Internacional Público”. *op. cit.*, 846 orr.

Hauei baita gehitu behar zaie (4) Estatuaren barne-protetzio mekanismoak. Lehenengo biak garrantzia eta indar gehiena daukate, hauen jurisprudentzia eremu ezberdinetan erabiltzen da eta.

a. Europako Kontseiluaren protekzioa. 1950ko Erromako Hitzarmena eta Giza Eskubideen Europako Auzitegia.

Europako Kontseiluak sistema guztietatik nagusia da. Honen Estaturuan¹⁸² giza-eskubideak errespetatzeak “europar nortasun” gisa antzeman zen, gainera, 3. eta 4. artikuluek¹⁸³ honen parte izateko baldintza bezala ezartzen dute. Banakako eskubideei dagokienez, babes sistemaren oinarritzko testuak 1950ko Erromako Hitzarmena¹⁸⁴ eta ondoren onartutako protokoloak dira, zeinen interpretazioa eta aplikazioa Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren eskuetan dago. Eskubide kolektiboek dagokienez, Europako Gutun Soziala¹⁸⁵ dugu, bere kontrol-sistema propioa duena, eta horri erreklamazio kolektiboaren sistema aurreikusten duen protokolo gehigarria gehitu behar zaio. Hauekin batera beste garrantzia handiko testuak onartu ditu Europako Kontseiluak, hala nola, Errepresio eta Terrorismoaren Protokoloa¹⁸⁶ edo Torturari eta zigor edo tratu anker edo iraingarriei aurrea hartzeko Europako Hitzarmena¹⁸⁷.

1950ko Erromako Hitzarmenari dagokionez, honen aplikazioa Estatuaren lurraldetatik harat doa, hau da, Estatu batek, bere lurraldetik kanpo eragindako ondorioengatik erantzunen du, nahiz eta hirugarren hau europarra ez izan. Hau bi eratan gertatu daiteke. Hasteko, modu zuzenean, eskubideak urratzen dituzten egintzak lurraldetik kanpoko Estatu bateko agintariek aurrera eramaten dituztenean, Turkiak Zipre militarki okupatu zuenean, Loizidou kasuarekin¹⁸⁸ gertatu zen bezala. Bestalde,

¹⁸² «BOE» 51. znb., 1978ko maiatzaren 1a, 4840 - 4844 orr.

¹⁸³ Article 3: Every member of the Council of Europe must accept the principles of the rule of law and of the enjoyment by all persons within its jurisdiction of human rights and fundamental freedoms, [...]

Article 4: Any European State which is deemed to be able and willing to fulfill the provisions of Article 3 may be invited to become a member of the Council of Europe by the Committee of Ministers. [...]

¹⁸⁴ «BOE» 243. znb., 1979ko urriaren 10a, 23564 - 23570 orr.

¹⁸⁵ «BOE» 153. znb., 1980ko ekainaren 26a, 14533 - 14540 orr.

¹⁸⁶ «BOE» 242. znb., 1980ko urriaren 8a, 22357 - 22360 orr.

¹⁸⁷ «BOE» 159. znb., 1989ko uztailearen 5a, 21152 - 21154 orr.

¹⁸⁸ Giza Eskubideen Europako Auzitegia (Gela Nagusia), Loizidou Turkiaren arukako kasua. 1996ko abenduaren 18ko Epaia. 1996/3. [ARANZADI DIGITAL].

[Loizidou etxetik kanporatu zuten Zipreko turkiar inbasioan, 1974an, beste 200.000 grecochipriotoekin batera. 20 urte baino gehiago ondoren, Kyreniako etxera itzultzen saiatu zen, baina Turkiako armadak ukatu](https://insignis.aranzadigital.es/maf/app/document?srguid=i0ad6adc600000180d26a5f409d5ed3ca&mar ginal=TEDH\1996\3&docguid=15ce26c20f40811dba7bd010000000000&ds=ARZ_LEGIS_CS&infotype =arz_juris;&spos=3&epos=3&td=5&predefinedRelationshipsType=documentRetrieval&fromTemplate= &suggestScreen=&&selectedNodeName=&selec_mod=false&displayName= (Azken bisita (2022/05/07)).</p></div><div data-bbox=)

zeharkako era dago, Estatuaren lurraldean egindako ekintzak, beste estatu batean, Erromako Hitzarmenean aitortutako eskubide baten urraketa gertatzean, hala nola, estradizioa eskuratzekotan, Soering V. Erresuma Batua kasuarekin¹⁸⁹ gertatu zen bezala.

Bestalde Hitzarmenaren 57. artikulua azpimarratu behar da. Honetan, erreserbak arautzen dira. Estatuari aukera ematen die xedapen partikular bat formulatzeko, beren barne-legeriarekin bat ez datorren neurrian. Estatu Espainiarrak hau erabili egin zuen hitzarmenaren 5. eta 6. artikuluekin indar armatuen diziiplina-araubidearekin bat egiten ez zutelako eta, ondoren, 11. artikuluekin, Konstituzioaren 28. eta 127. artikuluegatik¹⁹⁰. Erromako Hitzarmenaren *sui generis* izaera lehenetsiz Auzitegiak izandako zeregina indartzen du. Nazioarteko lehen auzitegia izan zen erreserbak onartzen. Behin baino gehiagotan, Estrasburgoko Auzitegiak erreserba horietakoren bat baliogabetzat jo du, eta Estatu demandatuak alegatu zuen kasua ebazterakoan, baliogabetzat jo du ere¹⁹¹.

11. Protokoloaren¹⁹² ondorioz, Giza Eskubideen Europar Komisioa bertan behera utzi zen, zeinak, eskarien onargarritasuna egiaztatzen zuen. Ondorioz, Auzitegiak eskuduntza guztiak zeuzkan. Eskubideen babesaren sistema judizial baten aurrean gaude. Eskariak onartu aurretik, demanda Giza Eskubideen Europako Auzitegiko erakunde judizial batera bidaltzen da, kasu-motaren arabera.

Hala, hiru organo daude gaiak kasuaren arabera banatzen dituztenak, eta demanda baten alde aurreko azterketa esleitzen zaie, epaile, batzorde edo sala bat onartzen den ala

egin zion okupatutako Zipreko zatira sartzea. Lehengo etxetara itzuli nahi duten errefuxiatuen eskubideak eta propietateak. Giza Eskubideen Europako Auzitegiak diktaminatu zuen Titina Loizidouk, eta, ondorioz, gainerako errefuxiatu guztiek, beren jabetza zaharretara itzultzeko eskubidea dutela. GEEAk diktaminatu zuen Turkiak Loizidouko giza eskubideak urratu zituela, Giza Eskubideen Europako Hitzarmenaren I. Protokoloaren I. artikuluen arabera. Horri esker, Turkiak etxera itzultzen utzi beharko lioke eta kalte-galerak ordaindu beharko lizkioke.

¹⁸⁹ Giza Eskubideen Europako Auzitegia, Soering Erresuma Batuen aurkako kasua. 1989ko uztailaren 7ko Epaia. 1989/13. [ARANZADI DIGITAL].

https://insignis.aranzadidigital.es/maf/app/document?srguid=i0ad6adc500000180d25e4d867734bd2a&original=TEDH\1989\13&docguid=I0aff1a20fe9e11db8e5f0000846fb0e8&ds=ARZ_LEGIS_CS&infotype=arz_juris;&spos=4&epos=4&td=5&predefinedRelationshipsType=documentRetrieval&fromTemplate=&suggestScreen=&selectedNodeName=&selec_mod=false&displayName= (Azlen bisita (2022/05/07)). Amerikako Estatu Batuetara gazte alemaniar bat hilketa kapitaleko karguei aurre egiteko estradizioak Giza Eskubideei buruzko Europako Hitzarmenaren 3. artikulua urratzen zuela erabaki zen, tratu anker eta iraingarrien aurkako eskubidea bermatuz. Estatu Batuek alemaniar herritarraren aurkako heriotza-zigorrik ez bilatzeko konpromisoa hartu zuen, eta, ondoren, Estatu Batuetara eraman zuten.

¹⁹⁰ GONZALEZ CAMPOS, J. D.; SÁNCHEZ RODRÍGUEZ, L. I.; ANDRÉS SÁENZ DE SANTA MARÍA, P. “Curso de Derecho Internacional Público”. *op. cit.*, 848-851 orr.

¹⁹¹ SAIZ ARNAIZ, A. “El Convenio de Roma y su interpretación por el Tribunal Europeo de Derechos Humanos y la cultura común de los derechos fundamentales en Europa”. *Estudios sobre la Constitución Española: homenaje al profesor Jordi Solé Tura / Jordi Solé Tura*, 2, 2008, ISBN 978-84-7943-358-1, 2046. orr

¹⁹² «BOE» 152. znb., 1998ko ekainaren 26a, 21215 - 21221 orr.

ez erabakitzeke. Demanda onartzen denean, hitzarmenaren ustezko arau-hauslea den Estatu kideari helaraziko zaio, 16 asteko epean, demandatzaileak adierazitako eta alde aurretik onartu diren kexei buruzko alegazioak aurkez ditzan. Dударik gabe, gerta liteke epaimahaiak, onargarritasun-azterketan, demandan aipatzen diren bortxaketetatik kexa batzuk bakarrik onartzea, eta ez guztiak. Epaimahaiak alegazioak jasotzen dituenean, demandatzaileari helaraziko dio alegazioak egin ditzan. Era berean, Estatu arau-hausleari aukera ematen zaio kasuaren ebazpena adiskidetasunezko akordio batera iristea, horretarako, negoziazio-fase bat irekiko da, hasitako prozedurarekiko paraleloa. Alegazioen fasea bukatutakoan, epaimahaiak alderdiei dei diezaieke bista bat egiteko, baina baliteke epaimahaiak egoki ez jotzea eta epaia zuzenean iradokitzea erabakitzea. Lege horretan, Auzitegiak ezar dezake Hitzarmena ez dela urratu; aitzitik, estatu arau-hausleak egindako egintzak Hitzarmena hautsi dezakela uste badu, kalte- eta galera-ordainak emateko erabakia hartu dezake. Hala ere, Giza Eskubideen Europar Auzitegiaren epaiak ez dituzte barne-estatuan hartutako erabaki judizialak baliogabetzen. Epaia eman duenaren arabera erabakitzen da errekurtsua jarri ahal den ala ez. Epaia batzorde batek ematen duenean, behin betikoak dira eta ezin dira errekurritu. Sala batek emandako epaien aurka errekurtsua jar daiteke sala handiaren aurrean, hiru hilabeteko epean. Errekurtsua jarri gabe amaitzen denean, epaia irmoa izango da. Areto Nagusiak emandako epaien aurka ezin da errekurtsorik aurkeztu. Epaiak behin irmoak direnean, txostenarekin batera Europako Kontseiluko Ministroen Batzordera bidaltzen dira, epaia behar bezala bete dadin kontrolatu dezaten. Hain zuzen ere, alde diren Estatuak epaiak bete beharko dituzte beti, barne-legediak adierazitako prozeduren bidez¹⁹³.

b. Europar Batasunaren protekzioa. Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna eta Europar Batasuneko Justizia Auzitegia.

Europar Batasunaren Hitzarmenak, atarikoan¹⁹⁴ jadanik erreferentzia egiten zuen giza-eskubideen inguruan, baina, 6. artikuluan zera adierazten du:

1. La Unión reconoce los derechos, libertades y principios enunciados en la Carta de los Derechos Fundamentales de la Unión Europea de 7 de diciembre de 2000, tal como fue adaptada el 12 de diciembre de 2007 en Estrasburgo, la cual tendrá

¹⁹³ GONZALEZ CAMPOS, J. D.; SÁNCHEZ RODRÍGUEZ, L. I; ANDRÉS SÁENZ DE SANTA MARÍA, P. “Curso de Derecho Internacional Público”. *op. cit.*, 853-854 orr.

¹⁹⁴ INSPIRÁNDOSE en la herencia cultural, religiosa y humanista de Europa, a partir de la cual se han desarrollado los valores universales de los derechos inviolables e inalienables de la persona, así como la libertad, la democracia, la igualdad y el Estado de Derecho, [...] CONFIRMANDO su adhesión a los principios de libertad, democracia y respeto de los derechos humanos y de las libertades fundamentales y del Estado de Derecho,

el mismo valor jurídico que los Tratados [...]. 2 La Unión se adherirá al Convenio Europeo para la Protección de los Derechos Humanos y de las Libertades Fundamentales. Esta adhesión no modificará las competencias de la Unión que se definen en los Tratados [...].

Hasiera batean, lehen testua indarrean jarri zenean, Gutuna ez zen loteslea, baina, 2007ko erreformarekin, orain ikusitako lehen atala gehitu zen, beraz, giza-eskubideak Erakundearen interes eta printzipio nagusien artean aurkitzen da, loteslea bihurtuz. Bi bideren bidez errespetatu behar diren eskubideen zerrenda eransten saiatu da Europar Batasunak. Lehen momentu batean, 1950ko Erromako Hitzarmena atxikitzen saiatu ziren, baina, Europar Batasuneko Justizia Auzitegiak honetarako eskumenik ez zuela adierazi zuen¹⁹⁵. Bigarren bidea, berezko testu bat lantzea zen, eta, hau aurrera eramateko Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna¹⁹⁶ adostu zen. Hau, urrats erabakigarria izan zen Europako integrazioaren konstituzionalizazioan¹⁹⁷.

Sei printzipio juridiko nagusi ezartzen dira Gutunaren ondorioz: giza duintasuna, askatasuna, berdintasuna, elkartasuna, europar herritartasuna eta justizia. Gizabanakoen eskubide guztiak - zibilak, politikoak, ekonomikoak edo sozialak - eta europar herritartasunetik datozenak biltzen ditu. Azken hauek Europar Batasuneko zuzenbidearen pribatiboak dira, baina, gainerakoak, nazioarteko beste testuetan biltzen dira ere, hala nola lehen ikertutako Erromako Hitzarmenean, baita, Estatu kideen konstituzio-tradizioen ondorio dira. Bestalde, Europako herritartasunarekin edo inguruabar pertsonal (adingabeak) edo sozialekin (langileak) lotutako eskubideak izan ezik, gainerako guztiak, pertsona guztiei aitortzen zaizkie, nazionalitatea edo bizilekua edozein delarik. Aipagarria da ere, eskubideen inguruko beste nazioarteko instrumentuekin gertatzen ez den bezala, hauen kontzeptua askoz zehatzagoa da. Hala nola, garapen zientifiko eta teknologikotik eratorritako edukia, materia informatikoaren datu pertsonalen babesarekin gertatzen den bezala, edo erkidegoko administrazioari begira garrantzitsuak diren zehaztapenak, administrazioaren dokumentuak atzitzeko aukera izanez¹⁹⁸.

Gutunaren aplikazio eremua Europar Batasunean oinarritzen da, honen hartzailak Europar Batasuneko organoak eta instituzioak baitira, eta horien egintzak

¹⁹⁵ Europar Batasuneko Justizia Auzitegia, 2/94 irizpena, 1996ko martxoaren 28a.

¹⁹⁶ DOUE C 202/389, 7/6/2016.

¹⁹⁷ GONZALEZ CAMPOS, J. D.; SÁNCHEZ RODRÍGUEZ, L. I.; ANDRÉS SÁENZ DE SANTA MARÍA, P. “Curso de Derecho Internacional Público”. *op. cit.*, 857-858 orr.

¹⁹⁸ GONZALEZ CAMPOS, J. D.; SÁNCHEZ RODRÍGUEZ, L. I.; ANDRÉS SÁENZ DE SANTA MARÍA, P. “Curso de Derecho Internacional Público”. *op. cit.*, 859 orr.

Justizia Auzitegiaren mendre aurkitzen baitira. Gutunaren 51. artikulua¹⁹⁹ xedatzen duenez, Estatu kideek europar zuzenbidea aplikatzen dutenean baino ez da hala izanen, hau da testuaren aplikazioa ordenamendu juridiko honen aplikazioari lotuta dago. Horrek 52.2 artikuluan²⁰⁰ azpimarratzen da, Gutunean barnebidutako eskubideak Europar Batasunaren Itunean eta Europar Batasuneko beste Itunetan oinarritzen baitira. Izan ere, Gutunean aurkitzen diren zenbait eskubideei dagokionez, 1950ko Erromako Itunean agertzen direnekin bat egiten dute. Ondorioz, eskubide hauen babes judizialarekiko bi bide egonen dira, Giza Eskubideen Europako Auzitegia edo Europar Batasunaren Justizia Auzitegia jotzeko aukera azaltzen da. Bi interpretazio ezberdin lortu daitezke. Egoera hau saihesteko xedez, Gutunaren 52.3 artikulua²⁰¹ garatu zen.

Honen harira, arau-konkurrentzia hori gertatzen bada, haren zentzua eta irismena Erromako Itunean adierazten duenaren eta Giza Eskubideen Europako Auzitegiaren jurisprudentiaren, gutxienez, berdinak izango dira. Gainera, honek ez luke eragotziko Europar Batasunak eskubide hauei babes handiago bat ematea. Era berean, eskubideak bi tresnatan izateak ez luke esan nahi nazioarteko beste testu batzuetan edo Estatuko araudian onartutako giza eskubideen interpretazio mugatzailerik dagoenik²⁰².

2. Babestearen ardura. Eskuhartze falta.

2001. urtean, Estatuen Esku-hartze eta Subiranotasun Nazioarteko Batzordeak “babestearen ardura”-ren kontzeptua ezarri zuen, zera saiatu zuten bermatzen, Estatu batek bere biztanleriak jasaten dituen ankerkeriak jasan eta kontrolatu ezin ditunean, nazioarteko komunitateak izango du hau egiteko ardura. Gaur egun, oraindik ere, babesteko erantzukizunaren alderdi eztabaidagarriagoak zehaztu behar dira, eta, hala, etorkizunean Estatu guztiak behingoz behartuko dituen arau bat prestatu. Estatuek gradualki konpromezua hartu behar dute²⁰³.

¹⁹⁹ 1. Las disposiciones de la presente Carta están dirigidas a las instituciones, órganos y organismos de la Unión, [...] así como a los Estados miembros únicamente cuando apliquen el Derecho de la Unión. [...]

²⁰⁰ 2. Los derechos reconocidos por la presente Carta que constituyen disposiciones de los Tratados se ejercerán en las condiciones y dentro de los límites determinados por éstos.

²⁰¹ 3. En la medida en que la presente Carta contenga derechos que correspondan a derechos garantizados por el Convenio Europeo para la Protección de los Derechos Humanos y de las Libertades Fundamentales, su sentido y alcance serán iguales a los que les confiere dicho Convenio. Esta disposición no obstará a que el Derecho de la Unión conceda una protección más extensa.

²⁰² GONZALEZ CAMPOS, J. D.; SÁNCHEZ RODRÍGUEZ, L. I.; ANDRÉS SÁENZ DE SANTA MARÍA, P. “Curso de Derecho Internacional Público”. *op. cit.*, 859-860 orr.

²⁰³ VAZQUEZ RODRÍGUEZ, B. “La responsabilidad de proteger: entre el imperativo moral y norma jurídica”. Oviedo, *Ediciones de la Universidad de Oviedo*, 2017, 361 orr.

2005eko Munduko Goi-bilerako azken dokumentuak²⁰⁴ zera adierazten zuen, Estatu bakoitzak bere biztanleria babesten du genozidiotik, gerra-krimenetatik, arazketa etnikotik eta gizateriaren aurkako krimenetatik. Erantzukizun horrek krimen horiei aurrea hartzea dakar, baita krimen horiek egitera bultzatzea ere, neurri egokiak eta beharrezkoak hartuz. Nazioarteko komunitateak, Estatuari lagundu behar die erantzukizun hori gauzatzeko eta Nazio Batuei alerta-ahalmen goiztiarra azalduz. Hiru zutabe ezarri ziren: (1) Estatu bakoitzak lau krimen anker masiboki babesteko ardura du - genozidioa, gerra-krimenak, gizateriaren aurkako krimenak eta garbiketa etnikoa-; bestalde, (2) nazioarteko komunitateak, oro har, erantzukizun hori betetzen lagundu behar die Estatuari; azkenik, (3) Estatu batek nabarmen babesten ez baditu bere herria eta herritarrak, erkidegoak prest egon behar da ekintza kolektibo egokiak hartzeko, modu egoki eta erabakigarrian, Nazio Batuen Gutuna adierazitakoa errespetatuz. Hau gertatu ahal izateko, beharrezkoa da Estatuak eta beren agintariak argi izatea kontzeptu honen hiru oinarriak edo zutabeak, Nazio Batuen Idazkari Nagusiak 2015. urtean egindako azken txostenean²⁰⁵ horrela adierazi zuen bezala.

Praktikan, baldintzatuena hirugarren oinarria edo zutabea da, Segurtasun Kontseiluko bost kide iraunkorrek jarduteko modua dela eta. Beraz, egungo errealitate geopolitikoak, polarizazioa ezaugarri bezala barnebiltzen duena, ahuldu egin du babesteko erantzukizunaren printzipioaren zilegitasuna, indarraren erabilerari berez menderatuta dago eta.

Kontzeptu hau hedatzeko saiakera egon zen Brasil-en eskutik, BRICS²⁰⁶-ek bultzatuta. Kide batzuk lehenengo eta bigarren zutabeetara irekita bazeuden ere, hirugarren zutabe hertsatzailearekiko zuhurrak ziren. Ikuspegi zuhurrak edo hirugarren pilarearen aplikazioari buruzko haserrealdi irekiak agerian utzi zuen babestearen ardurak nazioarteko ordenari buruz duen edukiari, irismenari eta inplikazioei buruzko aurkakotasun sakonagoa, eta nazioarteko komunitatean, bereziki Hegoalde Globalaren artean, guztien adostasuna ez egotea kanpo-esku-hartzeari eta indarraren erabilerari

²⁰⁴ Nazio Batuen Erakundearen Batzordearen Erabakia (A/RES/60/1). 2005eko Munduko Goi-bilerako azken dokumentua (2005ko irailaren 16a).

²⁰⁵ Erakundearen lanaren inguruko Ordezkarri Nagusiaren Txostena (2015).

<https://www.un.org/es/sg/speeches/reports/68/report-growth.shtml> (Azken bisita (2022/05/06)).

²⁰⁶ Brasil, Errusia, India, Txina eta Hegoafrikako Estatuak, suspertzen ari diren ekonomiak dira, potentzial handikoak. 2008an sortu zen, Brasil, Errusia, India eta Txina nazioarteko ekonomiaren ikuspegi komunak garatzen hasi zirenean, bi urte ondore, 2010ean, Hegoafrika sartu zen.

<https://datosmacro.expansion.com/paises/grupos/brics> (Azken bisita(2022/05/06)).

dagokienez. Inpugnazio horrek kezka pragmatikoak nahiz hirugarren zutabeari buruzko araudiak jasotzen zituen, batez ere Mendebaldeko estatu boteretsuen abusu-arriskuarekin, eskualdeko erakundeek bete lezaketen eginkizunari enfasia ematearekin, indar militarren eraginkortasunari buruzko eszeptizismoarekin eta babes zibil ez-hertsagarriko neurriekin, elkarrizketa barne²⁰⁷.

Europako eta Ipar Amerikako potentzien parte-hartzeak markatutako esperientzia historikoaren ondorioz, Brasilek esku-ez-hartzearen printzipio konstituzionala mantendu eta defendatu egin du, autonomia subiranoaren babesa dela eta. Zehapenekin adierazi denez, 2011 urtean, 1973/2011 Erabakia hartu zuen Segurtasun Kontseiluak, Babestearen ardura kasu libiarrean aplikatzea onartu zuen baita, biztanleria zibila giza-eskubideen urrapen masiboetatik babesteko, udaberri arabiarraren testuinguruan. Alabaina, NATOren eta Frantziaren agintaldia ez zen espero zena egitean mugatu, eta Segurtasun Kontseiluak misioaren kontrola galdu zuen azkenean. Horrela, esku-hartzeak Libiako erregimena aldatzea ekarri zuen, babestearen ardurari dagokionez, hau ez zen gertatu behar²⁰⁸.

Brasil, momentu horretan Segurtasun Kontseiluko kide ez-iraunkorra zena, babestearen ardura horren ezarpenaren inguruan eztabaidatzeko ekimena hartu zuen. Dilma Rousseff-ek, Brasil-eko presidentea zena, zera adierazi zuen, “Asko hitz egin da babesteko erantzukizunari buruz, baina gutxi esan da erantzukizunari buruz, babesa ematen ari den bitartean”²⁰⁹.

Eztabaidak ikuspuntu ezberdinak aurkeztu zituen Estatuaren artean. Lehendabizi, gai polemikoen aurrean argitasun-maila handiagoa ematen duten arauarekin osatzea. Bigarrenik, Idazkari Nagusiaren interpretaziotik bereizten den ikuspegi aurkitzen dugu, zeinaren arabera, zutabe guztiak berdinak ziren, eta horrek, erantzun malgu eta arina ahalbidetzen zuela, kasu bakoitzera egokitua. Libiaren kasuarekin ikusi zen bezala, hori ez zen errealitate, beraz, kritika handia jaso zen. Arazo horri aurre egiteko, sekuentzialki erantzutea zen, ez hirugarren zutabera beste neurriekin batera jotzea, nazioarteko zuzenbidearekin bat ez du egiten eta. Azkenik, Segurtasun Kontseiluak ekintza hauen

²⁰⁷ SERBIN, A.; SERBIN PONT, A. “Brazil’s Responsibility while Protecting: a failed attempt of Global South norm innovation?” *Pensamiento propio*. 41. znb., 2015, 182. orr.

²⁰⁸ URBANO, F. “La responsabilidad al proteger: buenas intenciones que acabaron en olvido”. *Revista Electrónica de Derecho Internacional Contemporáneo* aldizkaria. <https://revistas.unlp.edu.ar/Redic/article/view/12400/11582>, 4(4), 2021, 4. orr.

²⁰⁹ URBANO, F. “La responsabilidad al proteger: buenas intenciones que acabaron en olvido”, *op. cit.*, 6. orr.

aurrean parte hartzen duten Estatuak kontuak emateko ideia da, hau da, ekintzen erantzunkizuna eskatzea. Era berean, babestearen ardura monitorizatzeko eta gertutik jarraitzeko mekanismo bat ezartzea, baina, ekintza hauek normalean aurrera eramaten dituzten aktoreek atzera eraman zuten²¹⁰. Azken batean, Segurtasun Kontseiluaren bost kide-iraunkorrek ezarritako trabak, atzera egin zuten Brasilen proposamena, denborarekin bileretan aipatu gabe utziz, aurrerapenik lortu gabe.

Armen nazioarteko salerosketaren testuinguruan, lehen zutabea ongi aplikatuz, hauek gatazka egoeran dauden Estatuari edo errepresioa eragiten duten haiei salduko ez balira lehen momentutik, herritarren babestuagoak egonen lirateke. Arazoa errotik konpontzeko aukera lirateke. Baina, hirugarren zutabera segituan edo batera jotzen bada, Libiarekin gertatu zen moduan, giza-eskubideen urraketa sistematikora joko da, are gehiago, kontrola eskuetatik joaten bada. Interbenitutako Estatuari armak edo erabilera bikoitzeko produktuak saltzen bazaizkio, zalantzarria da Estatuaren eskubideak babesteko asmoa.

3. Eskubideen eta ekonomiaren arteko gatazka.

Drogak eta prostituzioarekin batera, mundu mailan, armagintzak diru kantitate handienak mugitzen dituen sektorea edo merkatua da. Ikusi dugunez, enpresek salmentak egin ahal izateko nazioarteko eta barne-legediak errespetatu behar dituzte, beharrezko baimen-administratiboak eskuratuz, esportatzeko momentuan, zehapenak errespetatuz berriz ere. Baina, badaude legeak onartzen dituen salmentak, susmagarriak diren Estatuera esportatzeko aukera izanda, milioika euroko kontratuak sinatuz. Hortaz, giza-eskubideen urraketak ez dira bakarrik arazo juridikoak edo politikoak, baizik eta moralak edo etikoak.

Bi jarrera aurki ditzakegu orokorrean gai honen inguruan, eskubideak guztiaren gainetik ezartzen dituen, eta ekonomiaren garrantzia babesten duena. Izan ere, armen merkataritzaren ondorioz lortzen diren diru-sarrerak masiboak dira eta, ulergarria izan daiteke ikuspegi hau defendatzea, sortzen duen onurak eta lanpostuak kontutan izanda. Bestalde, nahiz eta diru sarrera hauek lortuko zituen beste sistema edo merkatu bat

²¹⁰ URBANO, F. “La responsabilidad al proteger: buenas intenciones que acabaron en olvido”, *op. cit.*, 283. orr.

aurkituta, zaila izanen zen honetara pasatzeko trantsizioa, ustekabeko ondorioak ekarri litzakeenak.

Nahiz eta arlo honetan enpresek aurrerapen garrantzitsua egin duten, hala nola jokabide-kodeen aplikazioaren bitartez, oraindik asko dago egiteko. Ikuspuntu ezberdin daude honen inguruan, enpresa gehienek giza-eskubideen konprometitzeko duten ahalegina eta interesa adierazten dute, berriz, badaude arlo honetan dituzten erantzukizunak bere gain hartu behar dituzten erronka ugariak falta direla pentsatzen dutenek²¹¹.

Enpresa-etizistak arazo honi erantzuna ematen duen formula edo erregelaren bat aurkitzen saiatu diren arren, ziurgabetasuna okerrak diren beste irtenbide batzuen bidez ordezkaturia izateko arriskua ere izan dezakete. Alabaina, argi dago, ziurgabetasun-eremu bat izaten jarraituko duela enpresek giza eskubideen arloan dituzten erantzukizun espezifikoak dagokienez²¹². Ez dago algoritmo edo formula sinplerik irizpen-etikoak egiteko. Uste izanak baino ez dira. Zintzotasunez epaitzeko, maiz, azterketa eta arrazoitze arduratsuak erabili behar izaten dira, baita oinarrizko intuizioetan eta printzipioetan konfiantza izatea ere. Zintzo jarduten duen enpresa batek kontuan hartzen ditu ondorioak, eskubideak eta justizia, gatazka-kasuetan ponderatu egiten ditu, eta, azkenik, bere intentzio onenekin jarduten du. Beti dago prest huts egin dezakeela onartzeko eta hobekuntzak egiteko prest²¹³.

Hala ere, eztabaida honen muina enpresen banakako erantzukizunei buruzkoa da. Enpresa-etizistek bete dezaketen eginkizunetako bat eskubideei buruzko teoria hobeak formulatzea da, autohazkundearen ondorio ustelkorretarako irekita ez daudenak. Horren alderdi bat izan liteke etorkizuneko eztabaidek giza eskubideen arloko erantzukizun kolektiboak buruzko gaiak aztertzea²¹⁴. Hau da, jokabide-kodeak bete beharreko araudiak bilakatzea, ez asmo-adierazmen hutsa, baizik eta erantzukizuna - eta ez langileena bakarrik, ikusi dugun moduan - Enpresari, pertsona juridiko bezala, zuzenduta.

²¹¹ G. BRENKERT, G. "Business Ethics and Human Rights: An Overview". *Cambridge University Press (Online)* <https://www.cambridge.org/core/services/aop-cambridgecore/content/view/4E12322863D6BA2B17871B03EDA9BBB9/S2057019816000018a.pdf/business-ethics-and-human-rights-an-overview.pdf>, 2016, 5-8 orr.

²¹² G. BRENKERT, G. "Business Ethics and Human Rights: An Overview". op, cit, 287-288 orr.

²¹³ T DE GEORGE, R. "Competing with Integrity in International Business". *Oxford University Press aldizkaria*, 1993, New York, 41 orr.

²¹⁴ G. BRENKERT, G. "Business Ethics and Human Rights: An Overview". op, cit, 295-298 orr.

Dударik gabe, enpresa hauen, baita armen agintzatik onurak lortzen dituzten Estaturen argudioa, mugitzen duen diru kantitateak dira. Amerikako Estatu Batuak, mundu maila esportatzaile handienak direnak eta sektore militarrean gastu zein inbertsio gehiena egiten du, baina sektore honek enpleguan duen eragina, barne-gastuaren lehentasun alternatiboekin alderatu zuten Heidi Peltier eta Robert Pollin Massachusetts Unibertsitateko irakasleek, bereziki energia garbian, osasun-laguntzan eta hezkuntzan egindako inbertsioekin konparatuz. Billioi bat dollar sektore militarrean inbertitzean, energia garbian, laguntza medikoan eta hezkuntzan gastatutako diru-kopuru beraren aurrean, kontsumo pertsonal handiagoa eragiten du²¹⁵.

Inbertsio batek sor ditzazke lanpostu gehiago sortzen ditu gastu kopuru jakin baterako besteak baino. Ulertzeko zailtasunak sortu ditzazkeen kontzeptua izan daiteke. Baina, aritmetika arazo gisa da, berez, hiru aukera daude. Hasteko, (1) lanaren intentsitatea, funtsen kopuru jakin batetik diru gehiago gastatzen denean, proportzioan, pertsonak kontratatzen dira, eta ez makinetan, eraikinetan, energian, lurrean eta beste sargai batzuetan gastatzen denean, orduan funts globalen kopuru hori gastatzeak lanpostu gehiago sortuko ditu. Bestalde, (2) barne edukiak, Estatu Batuetako barne-enpleguen sortzea aztertzen ari bagara honen ekonomian, inbertitutako kantitate proportzional handiagoa Estatu Batuetan gastatzen da beste herrialde batzuetako inportazioetan edo jardueretan gastatu beharrean, emandako diru-kopuruak beste lanpostu batzuk sortuko ditu. Hau da, barne-enplegua sortzen bada, barne ekonomia gora egingen du. Azkenik, (3) langileen kalte-ordainak, beste industria edo sektoreetan batzuetako soldata armadarekin zerikusia daukaten industriena baino txikiago bada, lanpostu gehiago sortuko dira lehenengoan inbertsio handiagoa egiten bada²¹⁶.

Amerikako Estatu Batuetako 600 mila milioi dolarreko inbertsioa sektore militarrean, gutxi gorabehera bost milioi lanpostu sortzen ditu, bai armadaren barruan, bai armadarekin zerikusia duten industria zibil guztietan. Eta, hain zuzen ere, armadan teknologikoki aurreratuta dauden ekipoen eskaera handiak direla eta, aurrekontu militarrek sortutako lanpostuen proportzio handi bat ongi ordainduko da, eta desafio profesionala ekarriko du. Baina, hau ere gertatuko da teknologia berriak erabiltzea eta garatzea eskatzen duten beste arlo batzuetan dirua gastatzen denean, hala nola

²¹⁵ PELTIER, H; POLLIN, R (2009) "The U.S. employment effects of military and domestics spending priorities: an updated analysis". *Political Economy Research Institute*, University of Massachusetts. 3. orr.

²¹⁶ PELTIER, H; POLLIN, R.. "The U.S. employment effects of military and domestics spending priorities: an updated analysis", *op. cit*, 6. orr.

osasurekin (19,600 lanpostu inbertitutako milioi bakoitzetik sortuko direla kalkulaten da) edo energiaren berriztagarriekin (17,100 lanpostu inbertitutako milioi bakoitzetik) gertatzen den bezala²¹⁷.

Emaitza hauek kontutan hartuta, garrantzitsua da gastu ez-militarraren bidez eratutako lanpostuen onurak haztatzea armadaren ondorioz sortutakoekin. Hau ebaluatzeko ardatz nagusia zera da, militarrentzako konpentsazio globalaren igoera bultzatzen duen faktore nagusia onurak direla, ez soldatak. Honi garrantzia handiko datu bati lotzen zaio, Estatu Batuek osasurearen arretaren erreformari buruz gaur egun duten eztabaidan: langile militarrek, oro har, osasure-estaldura bikaina jasotzen dute gobernu-programen bidez. Langile militarrei Estatuak ematen dien laguntza hori ez dator bat Estatu Batuetako ekonomiaren beste sektore batzuetan ematen den estaldura urriagoekin²¹⁸.

Beraz, Amerikako Estatu Batuetan, armagintzara zuzendutako hainbeste inbertsio ez balute eginen, eta gizarte osoarentzat, ez bakarrik enpresari edo Estatuarentzat, onuragarriak diren sektoreetara mugituko bazituzten diru kantitate hauek, ongizate maila igoko zen. Hortaz, analogikoki, armagintzatik hainbeste menpekotasuna ez duten beste Estatuetan ideia hau aplikatuko bagenu, ongizate maila munduan zehar hobetuko zen.

VI. ONDORIOAK.

i. MARKO JURIDIKOAREN HUTSAK.

Ikertutako marko juridiko zabala legegileek bilatutako armen salerosketaren kontrolpea hobetzen lagundu dute, baina, oraindik aurkitu daitezke hutsak, doktrinak adierazi duen bezala. Huts hauek Europar Batasunaren legediaren bidez betetzen saiatu dira, baina, oraindik hauek ere Estaturen barne-legediaren laguntza aipatzen dute. Hau da, nazioarteko araudia, erkidegoko araudiaren babesa behar du, eta honek Estaturen barne-legediaren babesa, oraindik ere nahikoa ez dena. Argi dago, bide luzea geratzen dela behar diren egoera guztietarako araudi sendo bat eratzeko eta garatutako Estatuak hau onartzeko, batez ere giza-eskubideak urratzen dituzten haiek. Zaila izan daiteke ulertzea zergatik Estatuak egoera txarto baten aurrean aurkitzen diren momentu bakoitzean,

²¹⁷ PELTIER, H; POLLIN, R. "The U.S. employment effects of military and domestics spending priorities: an updated analysis", *op. cit.*, 4. orr.

²¹⁸ PELTIER, H; POLLIN, R. "The U.S. employment effects of military and domestics spending priorities: an updated analysis", *op. cit.*, 8. orr.

zergatik ez dituzten Hitzarmenak eta barne Legeak edo Erreglamenduak modifikatzen eta eguneratzen. Gizakiaren historian zehar ikus daitekeenez, akats berdinak behin eta berriz errepikatzeko joera daukagu, baina ez da hau konpontzeko irmoa den neurririk hartzen. Egunero, nazioko eta nazioarteko instituzioetan gizabanako eta gizarte gisa dugun erantzukizuna, arazoak konpontzeko erantzukizuna gurea dela aipatzen dute. “Askatasuna beharrezkoa eta nahikoa da erantzukizunerako” azaldu zuen Amartya Sen-ek, berez, askatasunik gabe eta zerbait egiteko gaitasunik gabe, ezin gara horren erantzule izan; beraz, askatasuna eta hori egiteko gaitasuna izateak norbanakoaren erantzukizuna eskatzen du. Ekintzak sinesmenen arabera zuzentzea, gaitasunak garatzeko aukera emango diguten askatasun eta eskubideetarako sarbidea eskatzen du.

ii. DEFENTSARAKO ETA ERABILERA BIKOITZEKO MATERIALEN KANPO-MERKATARITZA ARAUTZEN DUEN MINISTERIO ARTEKO BATZORDEA ETA OINARRIRIK GABEKO SEKRETISMOA.

Defentsarako eta Erabilera Bikoitzeko materialen kanpo-merkataritza arautzen duen Ministerio-Arteko Batzordearen osaera ikusita, argi ikus daiteke merkantzia- interesen nagusitasuna eta lehentasuna, nazioko defentsa- eta barne segurtasuneko- interesen agerpen urriarekin. Aipagarria da armagabetze, giza-eskubideen eta nazioarteko kooperazioaren inguruko eskuduntza daukaten administrazio-organoen gabezia, esate baterako, Nazio Batuen Erakundearen, giza-eskubideen edo organismo multilateralen Zuzendari-Nagusiak, Terrorismo Ez-Ugaritze eta Armagabetze Nazioarteko Arazoen Zuzendaritza-Nagusiak, edo Nazioarteko Kooperazioaren Estatu-Idazkaritza. Ez dira interes hauek bermatzen, ez daude material adituak diren norbanakorik gai hauetan eskumena dauzkaten organorik ordezkatzeko. Estatu Espainiarraren esportazio araudiek, gerraren-industria sustatzeko gobernu-politikaren mekanismoak dira, enpresa esportatzaileen interesei lehentasuna ematen dietenak, sekretismoak bermatzen duena, esplotazio eta salmenta operazioak sekretu gisa sailkatzen baitira, baita Batzordearen akten edukia ere. Sekretuek hiritarren aurka egiten dute, ez dute, Legediak antzeman nahi duen bezala, hauen interesak babesteko lan egiten, bermatzen eta babesten diren bakarrak guda-industriarenak baitira.

iii. NAZIOARTEKO ZEHAPENAK ETA BABESTEAREN ARDURA.

Nazioarteko zehapenekin, orokorrean lortu nahi den xedea politikoa da, nahiz eta zenbait kasutan ekonomikoak izan daitezke. Honek, Estatu hauen ekonomian eragin negatiboa izan du, ez du saihesten indarkeriak gora egiteak, Libian eta Yemen-en egoeran aurkitzen diren lurraldeetan bezala. Zibilak babestera bideratutako zehapenak diren arren, Nazio Batuen Erakundearen Estatu kide direnek era ezberdinetako armen bidez hornitzen jarraitu dituzte Estatu edo talde errepresoreei haien interes politiko zein ekonomikoengatik, inolako erantzunkizunik gabe. Garatutako edo garapen-bidean dauden Estatuetan, gobernuek haien interes eta indar guztiak jarri behar dituzte haien herriaren osasuna eta hezkuntza hobetzen. Ekonomia ikuspegi kontserbadoreak begi txarrez ikusten du defizit publikoa handitu dezakeen edozer, baina ez du ezer esaten finantza publikoak armamentu-xedeetarako erabiltzen direnean, eta mugimendu hau ez da islatuko herritarren diru-sarrerak handitzean, haien dirua dena, honek ez du lagunduko gizabanakoen askatasunetan eta garapenean. Garapena eta askatasuna elkarren artean erlazionatzen diren bi kontzeptu anbiguo dira, eta horiek banatzeak ulertu gabeko errealitate batera eta pobrezia bakarrak eraman dezake. Ekintzak sinesmenen arabera zuzentzea, gaitasunak garatzeko aukera emango diguten askatasun eta eskubideetarako sarbidea eskatzen dute. Garatutako Estatuak, babesteko arduraren lehen zutabea ongi aplikatuko balute, gatazka egoeran dauden Estatuak edo errepresioa eragiten duten haiei armak ez baliete salduko arazoa jaiotzen denetik, edo hau sortzeko arriskua ikusten hasten denetik, herritarrek babestuagoak egonen liriteke. Arazoa errotik konpondu behar da, baina, hirugarren zutabera jotzeko joera daukate, giza-eskubideen urraketa sistematiko batekin topatuko gara. Interbenitutako Estatuari armak edo erabilera bikoitzeko produktuak saltzen bazaizkio, Estatuaren eskubideak babesteko asmo nimioa ikus daiteke.

iv. JOKABIDE-KODEAK, ERANTZUNKIZUN ETA INTERES FALTA.

Jokabide-kodea erakunde baten enpresa-etika jasotzen duen dokumentua da, baina, guztiek ez dute nazioarteko eta lekuko legediaren betearazpenari, giza-eskubideen errespetuari eta jokabide-kodeko printzipioak ez betetzekotan zein ondorio gertatuko direnei buruz hitz egiten. Airbus enpresarekin gertatzen denez, hornitzaileei eta hirugarrenei zuzendutako jokabide-kodea erreferentzia egiten du, bai langileen giza-eskubideei, bai zuzenean edo zeharka urratu daitezkeen besteen eskubideei. Enpresari

zuzendutakoa erreferentzia orokorra egiten dute giza-eskubideak errespetatzen direlaren inguruan, izan ere, langileen eskubideetaz ari dira bakarrik. Beste enpresen kasuan zuzenean ezin da hau aurkitu, idatzi ez dutelako, eta interes falta aurkezten dute, Sapa Palencia Enpresarekin gertatzen den bezala. Izan ere, Maxam-en jarrera izateko, egia esanda, hauek eratzea edo ez, garrantzia galtzen du, edo zuzenean ez du inoiz izan. Ikus daitekeenez, ez dute erantzunkizunik, nahiz eta nazioarteko zuzenbidea urratu. Eztabaida honen muina enpresen banakako erantzukizunari buruzkoa da. Enpresa-etizistek bete dezaketen eginkizunetako bat eskubideei buruzko teoria hobek formulatzea da, autohazkundearen ondorio ustelkorretarako irekita ez daudenak. Horren alderdi bat izan liteke etorkizuneko eztabaidek giza eskubideen arloko erantzukizun kolektiboari buruzko gaiak aztertzea. Hau da, jokabide-kodeak bete beharreko araudiak bilakatzea, ez asmo-adierazmen hutsa, baizik eta erantzunkizuna, ez langileena bakarrik, Enpresari, pertsona juridiko bezala, zuzenduta.

v. IKERTUTAKO PUNTUEK GIZA ESKUBIDEEN URRAKETA EKARTZEAK.

Nazioarteko armen merkataritzaren marko juridikoak etengabeko erreferentzia egiten du giza-eskubideen urraketan babesaren beharrari. Jatorri konbentzionala izan arren, giza-eskubideen nazioarteko zuzenbidearen printzipio eta arau batzuk ohiturazko zuzenbidearen osagai bihurtu dira, hortaz, irismen orokorra daukate egun. Aniztasuna sortu da, eta, horren arabera, nahiz eta sistema bakoitzak bere berezitasun eta ezaugarri bereziak izan, bat datoz, argi eta garbi, onartzen diren eskubideen zerrendekin. Horien babesari dagokienez, hauek urratuz gero, gizabanakoei errekurtoa jartzeko aukera ematen zaie. Baina, ikusitako sistemek ez daukate auzitegi edo epaile nahikoak eskakizunen oparotasunarentzat. Nahiz eta giza eskubideen babesa bermatzen duten, bitartekari urriak daude, gainera, denborari dagokionez, beranduegi iristen da erantzuna eta honekin soluzioa. Bestalde, Estatu kideetako herritarentzat sistema hauek funtzionatu dezan, gudetan lehen lerroan dauden mundu osoko zibilak daude, inolako laguntza jasotzen dutenak, *special operations* delakoak izan ezik, garatutako Estatuak eskainitakoa, ekintza militarrik, guda, edota inbasioak, alegia, eskubideen urraketa sistematikoa ekartzen dutena. Zibil hauek desberdintasunaren eta diskriminazioaren aurka lan egiten dute Estatu garatuek haien huskeriaz aberasten diren bitartean.

VII. BIBLIOGRAFIA.

1. Arautegia.

9/1968 Legea. «BOE» 84. znb., 1968ko apirilaren 6a.

Arma Bakteriologikoak eta Toxikoak Garatzea, Sortzea eta Biltegitratzearen Debekatzea eta haiek suntsitzearen buruzko Hitzarmena. «BOE» 165. znb., 1979ko uztailaren 11, 5900 – 15902 orr.

1950ko Erromako Hitzarmena. «BOE» 243. znb., 1979ko urriaren 10a, 23564 - 23570 orr.

Europako Gutun Soziala «BOE» 153. znb., 1980ko ekainaren 26a, 14533 - 14540 orr.

Errepresio eta Terrorismoarentzako Protokoloa. BOE» 242. znb., 1980ko urriaren 8a, 22357 - 22360 orr.

Torturari eta zigor edo tratu anker edo iraingarriei aurrea hartzeko Europako Hitzarmena. «BOE» 159. znb., 1989ko uztailaren 5a, 21152 - 21154 orr.

Nazio Batuen Fundazio Gutuna. «BOE» 275. znb., 1990ko azaroaren 16a, 33862 - 33885 orr.

Armen Inguruko Merkataritzarako Ituna. «BOE» 26. znb., 1991ko urtarrilaren 30, 3170 - 3179 orr.

Material Nuklearren Babes Fisikoari Buruzko Hitzarmena. «BOE» . 256. znb., 1991ko urriaren 25a, 34558 – 34562 orr.

11. Protokoloa. «BOE» 152. znb., 1998ko ekainaren 26a, 21215 - 21221 orr.

2000/0401 Akzio Bateratua. DOUE L 159/216. 30/06/2000.

2003/468 Jarrera Bateratua. DOUE L 156/79. 25/06/2003.

5/2005 Lege Organikoa. «BOE» 276. znb., 2005ko azaroaren 18a.

53/2007 Legea. «BOE» 312. znb, 2007ko abenduaren 29a, 53670 - 53676 orrialdeak.

2008/230 Akzio Bateratua. DOUE L 75/81, 18/03/2008.

2008/944 Jarrera Bateratua. DOUE L 335/99 13/12/2008

2009/1012 Erabakia. DOUE L 348/16, 29/12/2009.

Europar Batasunaren Funtzionamendu Ituna. DOUE C 83/116, 30/3/2010.

428/2009 Erreglamendua. DOUE L 326/26, 08/12/2011.

2012/711 Erabakia. DOUE L 321/62, 20/11/2012.

2144 (2014) Ebazpena. UN Security Council, Security Council resolution 2144 (2014) [on the Middle East], 14 March 2014, S/RES/2144 (2014).

679/2014 Errege Dekretua. «BOE» 207. znb, 2014ko abuztuaren 26a, 68148 - 68300 orr.

2174 (2014) Ebazpena. UN Security Council, Security Council resolution 2174 (2014) [on the Middle East], 27 August 2014, S/RES/2174 (2014).

2015/2309 Erabakia. DOUE L 326/56, 11/12/2015.

Europar Batasuneko Oinarrizko Eskubideen Gutuna. DOUE C 202/389, 7/6/2016.

2018/101 Erabakia. DOUE L. 17/40, 23/01/2018.

Tlaleolco-ko Ituna. Inf.11/2018, 2018ko ekainaren 5a.

2019/1560 Erabakia. DOUE L.239/16 17/09/2019.

2020/794 Erabakia. DOUE L.193/13, 17/06/2020.

2. Jurisprudentzia

Auzitegi Gorena (Hirugarren Gela, Administrazioekiko Auziarena) 1997ko apirilaren 4eko Epaia. RJ 1997\4515 [ARANZADI DIGITAL].
https://insignis.aranzadidigital.es/maf/app/document?srguid=i0ad82d9b0000018090214746e521237d&marginal=RJ\1997\4515&docguid=Iaaa3c1b0f5c611db9ce5010000000000&ds=ARZ_LEGIS_CS&infotype=arz_juris;&spos=1&epos=1&td=5&predefinedRelationshipsType=documentRetrieval&fromTemplate=&suggestScreen=&&selectedNodeName=&selec_mod=false&displayName=

Giza Eskubideen Europako Auzitegia (Gela Nagusia), Loizidou Turkiaren aurkako kasua. 1996ko abenduaren 18ko Epaia. 1996/3. [ARANZADI DIGITAL].
https://insignis.aranzadidigital.es/maf/app/document?srguid=i0ad6adc600000180d26a5f409d5ed3ca&marginal=TEDH\1996\3&docguid=I5ce26c20f40811dba7bd01000000000000&ds=ARZ_LEGIS_CS&infotype=arz_juris;&spos=3&epos=3&td=5&predefinedRelationshipsType=documentRetrieval&fromTemplate=&suggestScreen=&&selectedNodeName=&selec_mod=false&displayName=

Giza Eskubideen Europako Auzitegia, Soering Erresuma Batuaren aurkako kasua. 1989ko uztailaren 7ko Epaia. 1989/13. [ARANZADI DIGITAL].
https://insignis.aranzadidigital.es/maf/app/document?srguid=i0ad6adc500000180d25e4d867734bd2a&marginal=TEDH\1989\13&docguid=I0aff1a20fe9e11db8e5f0000846fb0e8&ds=ARZ_LEGIS_CS&infotype=arz_juris;&spos=4&epos=4&td=5&predefinedRelationshipsType=documentRetrieval&fromTemplate=&suggestScreen=&&selectedNodeName=&selec_mod=false&displayName=

3. Doktrina

ÁLVAREZ RUBIO, J. J.; IRIARTE ÁNGEL, J. L.; SANTAOLLA MONTOYA, C; BELINTXON MARTÍN, U. “Armen merkataritza eta esportazioa Euskadin. EAEko erakundeen eginkizuna gardentasuna hobetzeko, esportazioak kontrolatzeko eta aplikatu behar den esparru juridikoa betetzeko”. *Giza eskubide, Bizikidetzeta eta Lankidetzaren Idazkaritza Nagusiaren txostena*. Gobernantza Demokratikoaren Institutua, 2019, azaroa.

BORRÁS, A. “La Comunitarización del Derecho Internacional Privado: pasado, presente y futuro”, *Vitoria-Gasteizko Nazioarteko Zuzenbidearen eta harremanen ikastaroa*. 2001, Bilbo, 285-318 orr.

BRENKERT, G. “Business Ethics and Human Rights: An Overview”. *Cambridge University Press (Online)*, <https://www.cambridge.org/core/services/aop-cambridge-core/content/view/4E12322863D6BA2B17871B03EDA9BBB9/S2057019816000018a.pdf/business-ethics-and-human-rights-an-overview.pdf>, 2016, 277-306 orr.

CHICHARRO LÁZARO, A. *El Principio de Subsidiariedad en la Unión Europea*. Aranzadi, Zizur Txikia, Nafarroa, 2001.

GONZÁLEZ CAMPOS, J. D.; SÁNCHEZ RODRÍGUEZ, L. I; ANDRÉS SAENZ DE SANTA MARÍA, P. *Curso de Derecho Internacional Público*. Errebisatutako laugarren edizioa, Thomson Civitas, 2008.

IRIARTE ÁNGEL, J. L.; VIÑALS CAMALLONGA, J. M.; ESPARZA GUTIERREZ, T. “Prontuario de sanciones, 49 respuestas sobre el funcionamiento de las sanciones internacionales”. *Lucipino international law firm Aldizkaria*, 2018.

IRIARTE ÁNGEL, J. L.; ÁLVAREZ RUBIO, J. J; CELAYA, A. “La armonización del Derecho material en la Unión Europea”. *Zuzenbidearen Euskal Akademiaren aldizkaria*, ISSN 1888-0525, 4. urtea, 9. znb., 2006.

IRIARTE ÁNGEL, J. L. “Sanciones Internacionales - Negocios en Navarra”. *LUCIPINO International Law Firm*. 2019.

IRIARTE ÁNGEL, J. L. “La Ley Helms-Burton y la respuesta europea a sus efectos extraterritoriales”. *Cuadernos Europeos De Deusto*, (63), 2020, 81-112 orr.

IRIARTE ÁNGEL, J. L. “La armonización del derecho internacional privado por la Unión Europea”. *Zuzenbidearen Euskal Akademiaren aldizkaria*, ISSN 1888-0525, 4. urtea, 9. znb., 2006,. 45-74 orr.

IRIARTE ÁNGEL, J. L. “Las sanciones internacionales y su incidencia en las operaciones transnacionales de comercio e inversión. Especial referencia a las restricciones impuestas por la Unión Europea”. ÁLVAREZ RUBIO, J. J.; IRIARTE ÁNGEL, J. L.; BELINTXON MARTIN, U. *Representación aduanera y comercio internacional en el siglo XII liburuan*. Thomson Civitas, Nafarroa, 2022, 141-163 orr.

JANER TORRENS, J. D. “Política europea de control de las exportaciones de armas convencionales y seguridad humana: mecanismos para fomentar el respeto de los derechos humanos”. *Revista española de derecho internacional aldizkarian*, ISSN 0034-9380, 68, 1.º znb., 2016, 49-71 orr.

JIMÉNEZ OLMOS, J. “El Tratado sobre el Comercio de Armas”. *Razon y fe Aldizkaria*, ISSN 0034-0235, 268, 1381. znb., 2013, 373-383 orr.

LÓPEZ-LEVY, A. “Sanciones secundarias en el triángulo Estados Unidos-Unión Europea-Cuba”. *CIDOB d’Afers Internacionals Aldizkaria*, 125. znb., 2020, 87-111 orr.

MARRERO ROCHA, I. “El régimen de comercio de armas convencionales en la Unión Europea”, *Revista de Derecho Comunitario Europeo*, ISSN 1138-4026, 40. znb., Madril, 2011 iraila/abendua, 669-700 orr..

MELERO ALONSO, E. “El control judicial de los secretos de Estado en España. A propósito de las exportaciones de armamento”. *Medellin-go unibertsitatea*, ISSN 1692-2530, 7, 14. znb., 2008, 15-31 orr.

MELERO ALONSO, E. “La Administración y el comercio exterior del material de defensa y los productos y tecnologías de doble uso”, MUÑOZ MACHADO, S. *Derecho de la regulación económica* liburuan. Iustel, Madril, 25. znb., 2009, 787-823 orr.

MELERO ALONSO, E. “La Posición Común 2008/944/PESC sobre control de las exportaciones tecnológicas y equipos militares: análisis crítico”. *Revista española de derecho europeo aldizkarian*, ISSN 1579-6302, 34. znb., 2010, 235-264 orr.

MELERO ALONSO, E. “¿Se han legalizado las ‘guerras de agresión’ en España?”. *Herri-Ardularitzarako Euskal Aldizkaria*, ISSN 0211-9560, 83. znb., 2009, 91-115. orr.

MONTESINOS GARCÍA, D. (2017). *Desarmar la codicia: una propuesta ética ante el armamentismo*. [Tesia, Universitat Jaume I]. Dialnet.

PELTIER, H.; POLLIN, R. “The U.S. employment effects of military and domestic spending priorities: an updated analysis”. *Political Economy Research Institute*, University of Massachusetts, 2009.

RODRÍGUEZ, J. M. *La ponderación de bienes e intereses en el Derecho Administrativo*. Marcial Pons, Madril, 2000.

SAIZ ARNAIZ, A. “El Convenio de Roma y su interpretación por el Tribunal Europeo de Derechos Humanos y la cultura común de los derechos fundamentales en Europa”. *Estudios sobre la Constitución Española: homenaje al profesor Jordi Solé Tura*. 2, 2008, ISBN 978-84-7943-358-1, 2039-2056 orr.

SERBIN, A.; SERBIN PONT, A. “Brazil’s Responsibility while Protecting: a failed attempt of Global South norm innovation?” *Pensamiento propio*. 41. znb., 2015, 171-192 orr.

T DE GEORGE, R. “Competing with Integrity in International Business”. *Oxford University Press aldizkaria*, 1993, New York.

URBANO, F. “La responsabilidad al proteger: buenas intenciones que acabaron en olvido”. *Revista Electrónica de Derecho Internacional Contemporáneo aldizkaria* <https://revistas.unlp.edu.ar/Redic/article/view/12400/11582>, 4 (4), 2021.

VAZQUEZ RODRÍGUEZ, B. “La responsabilidad de proteger: entre el imperativo moral y norma jurídica”. Oviedo, *Ediciones de la Universidad de Oviedo*, 2017.

YANIZ VELASCO, F. (2013). *La Defensa de Europa: Las alianzas, las capacidades defensivas y la industria de Defensa*. [Doktoretza tesia, Rey Juan Carlos Unibertsitatea].

4. Errekurtso digitalak.

Berlin “Historia del Muro de Berlín. Apertura y caída del muro”. (2017)

<https://www.berlin.de/mauer/es/historia/apertura-y-caida-del-muro/>

Martin de Chazal, J. “Disolución definitiva del Pacto de Varsovia”. *Instituto de Relaciones Internacionales*. (2021)

<https://www.iri.edu.ar/index.php/2021/07/02/1-de-julio-de-1991-disolucion-definitiva-del-pacto-de-varsovia/>

Pauta “Los 30 años del fin de la Unión Soviética” (2021).

<https://www.pauta.cl/internacional/los-30-anos-del-fin-de-la-union-sovietica-causas#:~:text=Los%2030%20a%C3%B1os%20del%20fin,diciembre%20la%20disoluci%C3%B3n%20fue%20oficial>

European Parliament “Ficha temática N° 31. Las cuestiones de seguridad y defensa y la ampliación de la Unión Europea”. (1998).

[https://www.europarl.europa.eu/enlargement/briefings/31a3_es.htm#:~:text=La%20Cumbre%20de%20Roma%20de,nuevo%20concepto%20estrat%C3%A9gico%20\(%201\)](https://www.europarl.europa.eu/enlargement/briefings/31a3_es.htm#:~:text=La%20Cumbre%20de%20Roma%20de,nuevo%20concepto%20estrat%C3%A9gico%20(%201))

Esglobal “El futuro de la OTAN. Más de 60 años de historia y readaptación”. ()

<https://www.esglobal.org/infoguias/otan/historia.html#:~:text=Hasta%20la%20ca%C3%ADda%20del%20Muro,Varsovia%20de%20atacar%20Europa%20Occidental>

Cámara de los diputados “Cumbre de la OTAN, Nuevo Concepto Estratégico”. (2011).

<http://www.diputados.gob.mx/sedia/sia/dir/SPE-CI-A-08-11.pdf>

BBC Mundo “11-S: los 149 minutos de caos y terror que cambiaron el mundo” (2021).

<https://www.bbc.com/mundo/resources/idt-b7a00a0b-9386-4fae-84b7-9c3e9f39d8ff>.

Amnistía Internacional “La ‘Primavera árabe’ cinco años después”. (2016).

<https://www.amnesty.org/es/latest/campaigns/2016/01/arab-spring-five-years-on/>

United Nations “United Nations Charter”.

<https://www.un.org/en/about-us/un-charter>

Ministerio de Asuntos Exteriores, Unión Europea y Cooperación “Sanciones Internacionales” (2022).

<http://www.exteriores.gob.es/Portal/es/PoliticaExteriorCooperacion/GlobalizacionOportunidadesRiesgos/Paginas/SancionesInternacionales.aspx>

United Nations “Arms Trade”.

<https://www.un.org/disarmament/convarms/att/>

OPANAL “Tratado de Tlatelolco”.

<https://www.opanal.org/tratado-de-tlatelolco/>

United Nations Security Council “About the Council, Functions and powers”.

<https://www.un.org/securitycouncil/>

United Nations “General Assembly of the United Nations. Working of the General Assembly”.

<https://www.un.org/en/ga/>

United Nations “Plenary election”.

https://www.un.org/en/ga/62/plenary/election_sc/bkg.shtml

United Nations “Security Council Members”.

<https://www.un.org/securitycouncil/content/security-council-members>

OPANAL “Zonas libres de armas nucleares y mongolia”. (2020).

<https://www.opanal.org/cuarta-conferencia-de-zonas-libres-de-armas-nucleares-y-mongolia-2020/>

UK GOVERNMENT “EU General Export Authorisations (EU GEAs)”. (2020).

<https://www.gov.uk/guidance/european-union-general-export-authorisations#:~:text=GEAs%20>

Ministerio de Industria, Comercio y Turismo, ICEX “Material de defensa, productos y tecnologías de doble uso y otro material (policial, de caza y deportivo)”.

<https://www.icex.es/icex/es/navegacion-principal/todos-nuestros-servicios/informacion-de-mercados/tramites-y-gestiones/documentos-certificados-especificos/industria-tecnologia/material-defensa-productos-tecnologias-doble-uso-otro-material-policial-caza-deportivo/EST2014346093.html?sectores=119-137>

Consejo de Ministros, El sistema aarchivístico del Ministerio de Interior. Normativa. Colección Archivo General I “Acuerdo del Consejo de Ministros, de 28 de noviembre de 1986, por el que se clasifican determinados asuntos y materias con arreglo a la Ley de Secretos Oficiales, ampliado por Acuerdos del Consejo de Ministros de 17 de marzo y 29 de julio de 1994”.

http://www.madrid.org/archivos/images/AREA_PROFESIONAL/Legislacion_archivistica/EST_Acuerdo_Consejo_Ministros_SSOO_28-11-1986.pdf

Secretaría General de Política de Defensa “Revisión estratégica de defensa”. (2003).

<https://www.defensa.gob.es/Galerias/defensadocs/revision-estrategica.pdf>

United Nations “United Nations Security Council Consolidated List”

<https://www.un.org/securitycouncil/content/un-sc-consolidated-list>

Consejo de Seguridad de la ONU “Punto focal para la supresión de nombres”.

<https://www.un.org/securitycouncil/es/sanctions/delisting>

Naciones Unidas “Memoria del Secretario General sobre la labor de la Organización”. (2015).

<https://www.un.org/es/sg/speeches/reports/68/report-growth.shtml>

Datosmacro “BRICS”.

<https://datosmacro.expansion.com/paises/grupos/brics>

REDONDO, RAÚL (2022). El Consejo de Seguridad de la ONU cataloga como terrorista a la milicia hutí y extiende el embargo de armas a todos sus miembros. *Atalayar*.

<https://atalayar.com/content/el-consejo-de-seguridad-de-la-onu-cataloga-como-terrorista-la-milicia-hut%C3%AD-y-extiende-el>

Ministerio de asuntos económicos y transformación digital “ 2022, febrero, boletín sobre novedades de sanciones financieras”.

https://www.tesoro.es/sites/default/files/publicaciones/2022_febrero_boletin_novedades_sanciones_financieras.pdf

“United Nations Security Council. “Focal Point for De-Listing”.

<https://www.un.org/securitycouncil/es/sanctions/delisting>

Infodefensa: “El anuario 'Spain 2022' incluye el primer Top 20 de la industria de defensa española”. (2022).

<https://www.infodefensa.com/texto-diario/mostrar/3455743/anuario-spain-2022-incluye-primer-top-20-industria-defensaespanola>

Amnistía internacional: “Libia: Las violaciones del embargo de armas de la ONU ponen en grave peligro a los 1,2 millones de civiles de Trípoli” (2019).
<https://www.es.amnesty.org/en-que-estamos/noticias/noticia/articulo/libia-las-violaciones-del-embargo-de-armas-de-la-onu-ponen-en-grave-peligro-a-los-1-2-millones-de-ci/>

Atalayar: “El Consejo de Seguridad de la ONU cataloga como terrorista a la milicia hutí y extiende el embargo de armas a todos sus miembros” (2022).
<https://atalayar.com/content/el-consejo-de-seguridad-de-la-onu-cataloga-como-terrorista-la-milicia-hut%C3%AD-y-extiende-el>

France 24: “Libia, un país marcado por la guerra que ahora busca salir del conflicto”. (2022).

<https://www.france24.com/es/programas/historia/20220221-historia-libiahaftargadafi-guerra>

Mercados e investigación: “Principales empresas de armas en España”. (2022).
<https://mercadoseinvestigacion.com/principales-empresas-de-armas-en-espana/#:~:text=El%20Ministerio%20de%20Defensa%20espa%C3%B1ol,Espa%C3%B1ola%20de%20Defensa%202021%20%E2%80%93%202022.>

Atico 34: “¿Qué es el Código de conducta de una empresa? ¿Cómo hacerlo?”.
https://protecciondatos-lopd.com/empresas/codigo-de-conducta/#Que_es_el_codigo_de_conducta

Atico 34: “Compliance o cumplimiento normativo de empresas”.
<https://protecciondatos-lopd.com/empresas/compliance/>

Airbus Ethics Compliance Code of Conduct.
<https://www.airbus.com/sites/g/files/jlcbta136/files/2021-07/Airbus-Ethics-Compliance-Code-Conduct-ES.pdf>

Airbus, código de conducta para proveedores.
https://www.airbus.com/sites/g/files/jlcbta136/files/2021-10/Airbus-Supplier-Code-of-Conduct_SP.pdf

Indra weborria.

<https://www.indracompany.com/es/defensa-seguridad>

Indra. Código ético y cumplimiento legal.

https://www.indracompany.com/sites/default/files/d7/Documentos/SobreIndra/codigoetico_es_23122020.pdf

Navantia weborria

<https://www.navantia.es/es/>

Código de conducta empresarial de Navantia.

https://www.navantia.es/wp-content/uploads/2019/06/codigo-de-conducta_esp_mayo-2019_online_mas-baja_.pdf

La información: “Maxam se atrinchera con 10 millones en activos bajo la vigilancia del Kremlin”. (2022).

<https://www.lainformacion.com/empresas/maxam-rusia-kremlin-amenazas/2864124/>

SER: “Maxam, la empresa de explosivos citada por Zelenski, guarda silencio y mantiene su web caída desde que el presidente de Ucrania la nombró”.

<https://cadenaser.com/2022/04/06/una-de-las-empresas-citadas-por-zelenski-es-la-vizcaina-maxam-la-dinamita/>

